




Kontinenteetako sakontasunera bidaia

Gure barruko iparrorratzak iparra galdu samarra dauka une honetan. Atzo Kantauriko uretan bainatu ginen; orain Pazifiko ertzean gaude, plisti-plasta. Atzo azken trasteak biltzen, korrika eta presaka, Tolosan; orain, San Frantziskon nora ezean ibili eta gero, bat-batean oharitu gara espedizioa hasi dela.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mixmail.com  
San Frantzisko, Estatu Batuak

## ► POZIK GOAZ DEPRESIORANTZ ◀



PANGEA

**BIDAIAIRIAK.** Ezkerretik eskuinera, Aitziber Olano, Miguel Mari Elozegi, Josu Iztueta, Joxemi Saizar, Marijo Arrieta eta Ander Izagirre abiatzeko prest. Bidean hartuko dituzte gainerakoak...

**O**raindik etxean motxilak biltzen edo jadanik Kalifornia ezagutzen ari garen oso ongi ez dakigun honetan, lehenengo kronika idatzi dugu ZABALIKeko irakurleok argutu eta Pangea, kontinenteen sakontasunera bidaiaren aurkezpena egiteko. Datozen bederatzi hilabeteetan gure bidaiaren zati garrantzitsuenetakoa izango da zuekin izango dugun asteroko hitzordu hau.

Izan ere, duela ehun edo berrehun urteko espedizioen espiritua berreskuratzeko asmoz abiatu gara: mundua esploratu nahi dugu, ahalik eta ikuspegi zabalenetik, eta topatzen ditugunak jendearekin kontatzeko

-dibulgazioak- lehenetsuna du guretzat. Kontinenteetako sakonuneak ezagutzeko asmoz bizkareratu ditugu motxilak: Heriotzaren Ibarra aztertu nahi dugu lehen hila-bete honetan (Kalifornia, 86 metro itsas maila azpitik); ondoren, Eyre lakura joko dugu (Australia, -12 metro), Valdes penintsulara (Argentina, -40 metro), Kaspio itsasora (Errusia, -28 metro), planetaren eremu baxuena den Itsaso Hileria (Israel eta Jordania, -395 metro), eta Assal lakura azkenik (Djibouti, -155 metro).

Gaur egungo bidaia eta abenturen joera gorakoa den arren -Himalaiara begira, batez ere-, beherantz joko du Pangeak, esplorazio bidaia oraindik ere posible dela sinetsita. Munduko lurralde sakonak, basamortu

tanterakoak ia denak, alor desberdinetatik ezagutu nahi ditugu: biologia, geografia, geologia, botanika, zoologia, astronomia... Eta depresio idor hauetara egokitu diren biztanleen istorioen jakin-minez, gizon-ema-kume hauek historia, ohitura, elikadura, musika, joko eta abarretara hurbilduko gara. Neurketa zientifikoetarako eta komunikazioarako tresnak daramatzagu. Baina Thor Heyerdahlen hitzak dira gure iparrorratz nagusia: «Guztia liburuetan dagoela pentsatzea akats handia da», esan zuen antropologo eta esploradore norvegiarrak, «ia dena naturan dago. Esploratzeko gauza ugari gelditzen da planeta eder honetan».

### Zientzi taldea ala txaranga?

Taldeakide guztiak benetako zientifikoak garenik ezin esan: teknologia eta tresnadun begiluzeak gairela, bai. Ez dugu lurralde berririk aurkituko, baina lurraldeak begi berritakin ikusi nahi ditugu. Horregatik, Kalifornian zehar erabiliko dugun furgonetan bestelako traste bitxiak ere sartu ditugu: akordeoia, klarineta, alboka eta gitara, adibidez. Pangeakide batzuen zaletasun musikalak jendearekiko harremana erraztu diezaguke, tokian tokiko biztanleen berezitasunei adi egon nahi baitugu.

Jakin-min horrek leku askotara bultzatuko gaitu, eta Kaliforniako mapa zabaldu dugunean gure erakargarri asko markatu ditugu gorri: naturaren eskaparateak -Yosemite parke, Coloradoko kanola, Arizonako basamortua...-; hiri handi eta bitxiak -San Frantzisko, Salt Lake City, Las Vegas- eta euskaldun emigranteen etxe diren Boise eta Reno. Leku hauetako bizitza interesgarriaren bila gidatuko dugu furgoneta, eta guztien artean, Ipar Ameriketako lehen urrats honen ardatza izango den depresioa: Heriotzaren Ibarra, arrautzak lur gainean frijitu daitezkeen basamortu kiskalgarria.

Depresio fisikoak dira gure bidaiaren mamia; bestelako depresioak dira gure bidaiarentzat mamua. Depresio ekonomikoak, adibidez. Hamaika ate jo arren, ez dugu babeslerik lortu. Dena den, pangeakide guztiok argi genuen espedizioa aurrera aterako genuela nola edo hala, eta gure patriketatik bada ere, tresneria apalagoa eskuratzuz helburu bere-tsuie eutsiko diegu. Babesle batzuk, hala eta guztiz, gure ondoan dazkagu, eta asko eraztu dute Pangearen zeregina: Coleman etxe-ak kanpin denda, lo zakua, su txikiak eta abar eman dizkigu, Cinalp-ek guapo-guapo jantzi gaitu, Orbeak bizikleta batzuk eskuratu dizkigu, Karlisek material fotografikoa, eta ZABALIKek gure istorioa astero kontatzeko bidea zabaldu digu.

Munduko sei sakonune horiek ikertu eta gero, gure poltsikoaren zuloa izan daitezke munduko beste sakonune handienetarikoa. Baina Pangea bezalako espedizioak merezi du, zuzentzat istorio erakargarriak topatzeko gai bagara behintzat. Eta horren neurria zuek, irakurleok, jarriko diguzte.

## Zein da Teodolito?

Azken egunetako bileretan traste kontaketa behin eta berriz egin genuen. Eskura al genituen ikerketa lanetarako tresna guztiak? Ea bada... mapak eta liburuak -hogei kilol-, barometroa, termometroa, higrometroa, anemometroa, altimetroa, GPSa, ordenadorea, argazki eta bideo kamera digitalak, grabagailua, landare, animalia eta mineralak jasotzeko potoak, teleskopioa, teodolito...

Une hartan belarria tente jarri zuen pangeakide despistatuak: «Zein da Teodolito? Ez al ginen bederatzita lagun taldean?». Galderak bidaiako maskota bihurtu daitekeena bataiatu zuen: *Teodolito*, Aitziber eta Marijok, taldeko topo-

grafoek, depresioen altuera neurtzeko erabiliko duten hiru hankako tresna.

Ba al du zentzurik gaur egun horrelako tresna eramateak? Atlasek ez al dute dagoeneko planeta osoa zehatz-mehatz azaltzen? Ez uste... XXI. mendean atarian, National Geographic, Britannica eta geografiaren gainerako gurutak ez dira ados jartzen neurketa batzuetan. Everest ingurutik Mallory mendizaleak eskutitza idatzi zion emazteari 1921. ean: «Mapetatik iriteteko zorian gaude». Gu ez gara hainbestearino iritsiko, baina ZABALIKeko irakurleoi ondo ezagutu eta neurtu ez diren lurralde batzuen berri emateko itxaropena badaramagu. Eta badugu pista bat...

### IPAR AMERIKA





Kontinenteetako  
sakontasunera bidaiatu

Kalifornian dena da handiena, luzeena, zabalena, garaiena... Kaliforniarrek harro erakusten dituzte tituluak: Estatu Batu kontinentaleko mendirik altuena eta sumendi bizi bakarra, munduko kale bihurriena, planetako zuhaitz handienak... Edozerk balio du superlatiboen bilduma gizentzeko. Pangeako kideok Ipar Amerikako eremurik sakonena ikertuko dugu, Heriotzaren Ibarra -itsas maila azpitik 86 metro-, baina alde zuzenetik Kaliforniak dauzkan beste marka aipagarriak ezagutu ditugu.

ANDER IZAGIARRÉ  
pangea2000@mlamail.com  
San Frantzisko, Estatu Batuak

IPAR AMERIKA

## ► SEKULAKO SEKUOIAK ◀

**T**urismo bulegoetan ez dute oharra zabaltzen, baina Kalifornia bisitatzeak lepamina sor dezake; iritsi ginenetik, gora begira ematen dugu eguna. San Frantziskon, adibidez, etxeorratzak ez dira munduko altuenak, baina bai mugikorrenak, eta eraikitzen dardara antzeman nahian lepoa zerura okertuta ibili gara. Mugikortasun horren arrazoia etorri zaigu burura furgoneta autobide baten azpian aparkatu dugunean. Kaliforniaren marka zorigaitzokoena dioenez, urtero milaka lurrikara gertatzen dira bertan, eta etxe malguak behar dituzte mugimendu sismikoak jasateko. Gehienak nabariezina dira, baina 1906ko Big One astindu erraldoiak suntsitu egin zuen San Frantzisko, eta 1989ko ez hain Big Onek dozenaka batzuk hil zituen; gu bezala, zubi eta errepide azpian zeudenak, hain zuzen.

Berehala alde egin dugu San Frantzisko zubipeetatik, premiazko erosketak egin bezain laster. Josuk gidatu du titiriteroena dirudien furgoneta, munduko parke ederraren titulua -nola ez- aldarrikatzen duen eta Gipuzkoaren tamaina duen Yosemite antz. Lepaminaren peregrinazioan, santutegia da Yosemite. Lepoa behin eta berriz altxatu dugu, laurogei metroko sekukoien burua ikusteko asmoz.

Behera ere begiratu dugu sarritan, lurrean korrika dabilizan katagorri lotsagabeak, orein lasaiak, sugeak, mapatxeak, koioteak... ikusteko. Migel Mari eta Aitziber basoan sartu dira, teleobjektiboarekin ehizan. Argazki pelikuletan harrapatu dituzte Yosemiteko animaliak eta landareak, baina pitxitirik bilatuena, hartz beltzak, izkina egin die oraingoz. Dena den, Sherlock Holmes antzean ibili eta gero, arrastoa behintzat aurkitu dute: hartzaren gorotz galanta. Krimenaren eszenatokira itzuliko al da animalia?

Yosemiteko bisitari askok topatzen dute hartza, baina gogoz kontra. Kanpinetan janaria gordetzeko kutxa bereziak daude, hartzek ireki ezin dituztenak, baina, hala ere, ia 1.400 kotxe birrindu zituzten hartz janari bila, lau kotxe egunero. Hartz batzuek ikasi dute jatekoa kanpinetan bilatzen, basoan baino errazago, eta azken hilabeteetan halako bost hil dituzte, gizakiei erasotzeko joera hartu zutelako.

Hartzek usaindu ezin dituzten lata berezietan janaria sartu, eta mendira abiatu dira zazpi pangeakide bi egunetarako. Atzo, Pangeako traste zientifikoek diotenez, 41,4 graduko eguzkitan hederatzi orduko ibilaldia bete genuen eskalatzailen paradisia den El Capitán tontorreraino; mundu osoan dagoen granitozko monolitrik handiena da, mila metroko pareta zuzena. Guk bizkarretatik igo genuen, baina horman zintzilik Gasteiz, Amurrio eta Villabonako eskalatzailak baziren, bertikaltasunaren ikur hau garaitu nahian. Gaur, ordea, Marijok oinetako babak josi eta belau tendinitikoa igurtzi dit. ZABALIKeko kronika idatzi beharren aitzakiaz, atsedean eguna hartu dut. Beste zazpi kideak mendiz abiatu dira, Yosemite parkeko lurralde garaienetara, eta ni bizikletaz helduko naiz haiengana bihar arratsaldean. Zita egiteko modurik apro-



ZABALIK

SEKUOIA. Pangeako zazpi kideren artean ere ez dute hartzen zuhaitzaren buelta osoa.

**Gasteiz, Villabona eta Amurrioko eskalatzailak aurkitu genituen El Capitán horman, munduko granito monolitrik handienean**

sen, beste superlatibo bat; Tioga Pass mendatean bilduko gara (3.031 metro), Kaliforniako errepiderik altuenean.

**Yeah, euskaldun amerikanoa naiz**  
Hamabost lagunentzako furgoneta alokatu genuen San Frantziskon, gu zortziok eta traste guztiak sartzeko. Bizikletek lekua behar zuten, atzeko eserlekuak kendu genituen... baina non utzi soberan zeuden eserleku haiek? Erantzuna, telefono-gida mardulean: Basque Cultural Center, Rail Road 599, South San Francisco.


Euskal Etxea elkarte gastronomikoen antzeko txokoa izango zela uste genituen -egurrezko mahaiak eta sukaldea, txapelak eta

sagardoa-, baina Expo unibertsaleto pabiloien antzekoa topatu genuen. Bi pisuko eraikin zuria, barruan jangela dotorea, kafe-tergia, areto ugari eta frontoia zeukana. Ingu-ruko apartakaleko zabalean, kotxe garestiak matrikula deigarriekin: Pottoka, Mayte, ImBask...

Sarrerako kartelean «Cantxa is closed at 11 p.m.» -frontoia hamaiketan itxiko zutela, alegia-, eta Iparaldeko etorkinen afaria egiten ari zirela irakurri genuen. Traje eta korbatadun aitona -artzain itxura sarioa ezin disimulatu- gaueko soinekodun amonekin hizketa bizian ari ziren euskanglish azkarrean. Xalbadorren lehengusua zen urepeldar batek eman zigun arrastoa: eserlekuak gordetzeko, jangelan *maitre* lanak egiten zituen Arantzak gaztearekin hitz egin behar genuen.

Arantzak Californian ikasi du euskaraz: «Yeah, euskalduna naiz. Gurasoak Baztan-koak ditut, baina ni amerikanoa naiz». Eserlekuak Euskal Etxean hilabetez gordetzeko baimena eskatu genion. «Yeah, sure, goitzeko gela».

Eta han utzi genituen, «Office» eta «Euskal apezaren egoitza» ondoko aretoan, lasai asko. Okei, mutirik. No problem.



## ▶ LEHORTUTAKO LAKUA ◀



Kontinenteetako sakontasunera bidaia

Hondamen ekologikoak edertasuna sortu du Mono lakuan. Kalifornia idorrean egarri, Los Angelesko biztanleek mendialdeko aintzirak edan dituzte, eta ur mailak jaitsi direnean, Mono hondoa 13.000 urte zeramatzaten kare-harrizko dorre ikusgarriak agerian gelditu dira. Hilzorian egon den laku hau aztertu dugu Pangea espedizioko kideok.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mlsmail.com  
San Frantzisko, Estatu Batuak

IPAR AMERIKA


**M**ono Lake, berez, kraterra da, duela 700.000 urteko leherketa bolkanikoaren ondorioz sortu eta inguruko mendietako errekek jasoz laku bihurtu zena. Ipar Ameriketako lakurik zaharrena den honek antzekotasun handiak ditu aurrerago ezagutuko ditugun sakonuekin: lurralde lehorretako depresioa da, inguruko urak biltzen ditu, bero itogarriaren eraginez ur asko lurruntzen zaio eta gazi gelditu da.

Kontinente guztietako sakonueekin alderatzeko, Mono lakuaren ezaugarri fisikoak—uraren tenperatura eta gazitasuna, airearen hezetasuna...— eta bere ingurunea aztertu ditugu. Lakuaren ekosistema simplea da: ur gazitako eltxoek, turisten zainak bakean utzita, uretako algak jaten dituzte, eta aldi berean, eltxoak kaioen bazka dira.

Ipar Kaliforniako bost kaiotatik lau Monon pausatzen dira, eta neguan Argentinako Laguna Chiquitara doaz oporretan. Abendu aldean guk ere Argentina aldera emigratzeko asmoa dugunez, ordurako zita jarri diegu kaierei. Eta basamortu erdiko oasi honen hondamen ekologikoaren berri izateko, historia piska bat ere ikasi dugu...

1849ko sukarra piztu zenetik, milaka urte bilatzaile samaldan iritsi ziren Kaliforniara. Misiolariak sortutako El Pueblo de la Reina de los Angeles herrixka ere tumore hipertrofiatu baten antzera hazi zen, Los Angeles hiri erraldoia bihurtu arte. Bertako urrezaleak berehala konturatu ziren metal bitxi ugari zeudela, baina edatekoa oso eskasa zela. Eta whiskyak ez zuen galtzerdiak garbitzeko balio. Urte gutxitan, ura urea baino estimatuagoa izango zela ikusita, Los Angeles hiriak bi agente bidali zituen 1905ean, Sierra Nevadako lurraldeak ezkuan erosi zituzten. Lurrak erosi ostean, Udalak 500 kilometroko ubidea eraiki zuen, inguru menditsu hartako urak Los Angelesa eramateko. Hiritarren mesedetan eta Sierrako nekazarien kalteetan, noski.

Sierra Nevadako Owens lakua erabat xurgatu zuten 1930erako. Eta 1941ean lehenengo zurrutadak eman zizkioten Monori: lakuraino iristen ziren sei erreketatik lau Los Angelesko ubiderantz desbideratu zituzten, eta ur gutxiago lakurazten zen gero lurruntzen zena baino. Ondorioz, Monoren mailak metro asko galdu zituen, kaiok alde egin zuten eta eltxoak eta algak arrisku larrian gelditu ziren. 1982an, laku urte gutxitan lehortuko zela iragarri zuten biologoek. Los Angelesko Udalaren txostenek zioten laku salbatzea ez zuela merezi eta lehorteak agerian utzitako kare-harrizko dorreek turismoa erakartzin zutela. Baina epaitegitan hemezortzi urtean borrokan ibili ondoren, Kaliforniako epaitegiek Monoren aldeko agindua eman zuten 1994an: Los Angelesko Udalak ezin zuten lurrundutako ura baino gehiago atera, eta kalte ekologikoak konpontzeko lanak ordaindu behar-



ZABALIK  
MONO LAKE. Handitzen ari da berriz eta hamabost urte barru hartuko ei du maila egokia.

ko zituen. Egun, Mono lakua handitzen ari da berriz eta hamabost urte barru maila egokia harrapatuko omen du.

Baina Ipar Ameriketako laku zaharrena ia edan bazuten ere, naturak mendekua hartu zuen Los Angelesko ubidea eraiki zuten hartan, 1905ean: Colorado ibaiko ura garraiatzen zuen hodi bat leheritu eta uholeak lautada bat estali zuen. Horrela jaio zen Kalifornia hegoaldeko Salton Sea, Ipar Ameriketako lakurik gazteena eta turismo gune berria.

Nevada estatuko Pyramid lakuari ere ura

urene legeekin eta, tarteka, inguruko zuriek lurak alokatzen dizkiete parranda basatienak antolatzeko, Poliziak ez baitu erreserbara sartzeko eskubiderik. Lahontan amuarrairain erraldioen argazkiak erakutsi zizkiguten paiuteek, lakuan harrapatutakoak, eta Joseba Zulaika billarrean oso trebea zela esan. Arratsalde hartako txapeladunak, ordea, Susana eta Marijo...

Urrearen garaiko herri fantasma ugariaren arrastoak gelditzen dira Kalifornian, eta fama heldurgarriena lortu zuen lekura, Bodiera, inguratu gara. Bertan urea aurkitu zuten, eta 1880rako zortzi mila ameslari eta etsitu bildu ziren; haien beharrak asetzeko 65 saloon, putexxe ugari—ospetsua zen Madame Moustachereña—, bankua, kartzela eta eliza zabaldu zituzten. Berehala hasi ziren lapurretak, hilketak, erronkak... garai istilutsuenera, hildakoa zegoen egunero. Hantxe ikasi dugu pelikuletako saloon guztiek zergatik duten ispilu luzea barraren atzean: ure bilatzaileek eta cow-boyek

bizkarra zaindu behar zuten whiskyak edaten zituztenean ere. Bodieko apaiz metodistak infemuaren sukursaltzat zeukan herri hura. Eta familiari jaraika Bodiera alde egin behar izan zuten neska batek hantxe idatzi zuten bere egunerokoa: «Agur, Jainkoa, Bodiera noa». Esaldia herriko eslogen hartoa bihurtu zen segituan, eta Bodiera zihon orok Jainkoari agur esaten zion aurretik. Urrea agortu zenean, Bodie hustu ziren zen piskanaka, eta herriaren bukaera bere historia osoarekin bat etorri zen: 1932an, Bill izeneko eskale haserretuak su eman zion. Eta suak infernua erre zuten.

▶ 1905ean, Los Angeles hiriak lurrak erosi eta 500 kilometroko ubidea eraiki zuen, bertako urak eramateko

▶ Hemezortzi urteko lehiaren ondoren, 1994an Mono lakuaren aldeko agindua eman zuten epaitegiek

edaten zioten hiriek, eta istiluak sortu ziren bertan bizi diren ehun amerindio paiuteekin. Paiuteei bisita egitera eraman gintuzten Joseba Zulaikak—Renoko Basque Studies Programeko zuzendariak— eta Pello Salaburuk—Nevadan urte sabatikoan den Euskal Herriko Unibertsitateko errektore ohiak—. Hori bai, aurretik Zulaikak eta Salaburuk tripak ondo asetut zizkiguten, palko barbakano prestatutako txuleta eta izokinarekin. Bapo bazkaldu, Susanak, Luzek eta Joxemik musika piska bat jo, eta Zulaikak lagun dituen paiuteengana abiatu ginen Pyramid lakura. Bertako erreserban bizi dira,



## ► BOISEKO EUSKAL TAUPADA ◀




Kontinenteetako sakontasunera bidaiatu

Madalen Bieter Lete duela sei urte jaio zen Boisen (Idaho, Estatu Batuak), eta zortzi euskaldun iritsi dira bere etxera furgoneta batean. Afaldu ondoren, musika jotzen eta bertsotan hasi dira. Madalenek badaki Idahoko amerikarra izateaz gain euskalduna ere badela, eta amari galdera bota dio: «Handitzen naizenean, ni ere hauek bezalakoa izango al naiz?».

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mixmail.com  
San Frantzisko, Estatu Batuak

### IPAR-AMERIKA



BONNEVILLE. Susana Elozegi eta Ander Izagirre. Atzean, Silver Mountain Island mendia.

**N**ere Lete da bere etxean zortziok jaso gaituen ama hori. Nere errenteriarrek hamabi urte daramatza Ameriketara, eta bertan jaio dira Madalen, Josu eta Andoni. Aita, Chris Beiter idahotarra, euskaldun emigranteen ondorengoa da; gaztaroan. Oñatin urtebete egin eta euskaraz ederki ikasi zuen. Nerek eta Chrisen Boiseko ikastolara eraman dituzte haurrak, eta orain sei urteko Madalen bere nortasuna kokatzen omen dabil. Zer esan nahi du Amerikan euskaldun izateak?

Lehenago astean, galdera horren inguruko erantzun batzuk jaso genituen Nevada Unibertsitatean, Basque Studies Centerko irakasleen ahotan. Baina arlo akademikoan aztertzen duten kezka hori sei urteko neska-mutilen buruetan ere badabil, Madalenen buruan adibidez, eta horregatik Unibertsitateko haur-eskolara salto egin dugu aste honetan.

Boiseko ikastolak hogeita bi haur ditu, eta andereño korrekantinos bat. Hiru eta sei urte bitartekoak dira haurrak; Izarne Garmendia iruratara, hogeitabikoa. Izarne urtebeterako etorri da Boiseko ikastolara, eta txoratuta daukaten haurrak aurkeztu dizkigu: Josu -Madalenen anaia-, Ellie, Gorka, Brittany, Ametsa, Joseba, Logan, Claire... Susana pangeakideak gitarra atera eta ikasleek eskaera egin diote azkar: «I wanna abestu Pimttou-pimttou». Eta ahoskera amerikarra, txuribelta den eta kosk egiten ez duen txakurraren kanta abestu dugu denok.

Ikastolako haurrentzat aste berezia izatu da hau: guretzat ere bai: Boiseko Kilome-

Boisen euren Kilometroak festa ospatu dute, eta bisitan joan zaizkie Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak

Bonnevilleko gatzagan erreferentziak galdu egiten dira, eta aurrera joan ahala mendiak lehen baino urrutiago dirudi

troak festa ospatu dute, eta bisitan joan zaizkie Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak. Pangeakideok aireportura hurbildu gara pailazoei ongietorria ematera. Izarne trikititxa eraman du eta gu zortziok ZABALIKeko argazkietan argitara ezin daitezkeen moztueroekin pailazotu gara.

Kilometroak festa Boiseko euskal bihotzean ospatu dute, Grove kalean. Lurreko harlauzetan lauburu erraldoi bat ageri da; beste trikiago batzuetan, euskal kaniten partiturak -«Agur jaunak», «Haurrak ikas-zazue»- eta hiriko euskal abizenen zerrenda luzeak. Kantoian, Gernika tabernak usain tentagariak hedatzen ditu sandwichak eta kakahuete krema jan ditugunontzat: solomo bokatak piper gorriekin, patata tortilla, txanpiak, kroketak... Ondoa daude Euskal

Etxea, frontoia eta Euskal Museoa. Museo-ko zuzendaria Patty Miller da, Boiseko euskal bihotza taupadaka jartzen duena: Pattyren birraitona 1918an heldu zen Aulestiutik Ameriketara, eta laugarren belaunaldiko emakume euskaldun-amerikar honek jo ta ke egiten du lan Boiseko euskal gizartearen nortasuna indartzeko.

Joxemik elkartzeketa luzea egin dio Pattyri Ameriketako euskaldunen historiari buruz, baina ostekabeen topatutako beste emakume batek eman digu balizko nortasun horren arrasto baliotsua. Laurogei urteko amona aurkitu dugu supermerkatuan, shopcatzen. Euskal koloniaren eskaerari jaramon eginez, Euskal Herritako produktua Boisea ekartzen hasi ziren duela urte batzuk, eta supermerkatuan kartel berria juri dute pasta, txanpua edo txokolatzen kokapena adierazten duten kartelen ondoan: «Basque food» -euskal janaria-. Bertan, amona aukeraketan dabil -piperrak, esparragoak, babarrunak, ardoa, sagardoa, txakolina...-, eta euskaraz esan digu nola pozitu zaion sukaldea piper beteak prestatzeko aukera daukanez geroztik. Ameriketako sukaldeetan piper beteak jaten dituzte oraindik: hortxe euskal nortasunaren zutabe nazionalgastronomikoa.

**Lurra biribila dela ikasi genueneko** Basamortua, Antartida edo ilargia: horrelako parajeak filmatzeko sarritan erabili dute Bonnevilleko gatzaga. Lautada zuri hau 12.000 hektareatan zabaltzen da eta bertan altzatzen diren mendi bakanak irla izena dute: Floating Island -irla flotante- eta Silver Mountain Island -zilarrezko mendiaren irla-, ozeano solidoan harrapatuta gelditu ziren harkaitz puskak.

Duela 15.000 urte, Bonneville lakuak Utah estatuaren heren bat betetzen zuen Pixkanaka, lehortu egin zen, oraingo Salt Lake laku gaztaren mugetara murriztu arte. Gaur egun, historiaurreko laku haren arrasto, gatzeko lautada hedatzen da begirada galdu arte, eta oinen azpian gatzaren karraska entzuten da beti.

Susana, Marijo eta hirurok Orbea bizikletak hartuta abiatu gara gertu dirudien irla flotante hartara. Baina lautada perleku honetan ez dugu erreferentziarik, eta ia ordubetez pedalei eragin ondoren, mendiak lehen baino urrutiago dirudi. Bidea luzea bezain bitxia da: gatz gogor hauetan, abiadura markak hausten saiatzen dira bolido itxurako kotxeak urteroko Speed Trial jaialdian. 1970ean, Gary Gabelichek orduko 1.001 kilometro harrapatu zituen Floating Islanderako bidean.

Gure bizikletak manto soago doaz. Gatzetan hamabi kilometro bete ondoren, irlak urrutu jarraitzen du eta, aspertuta, atzera begira hasi gara, abiapuntuan utzi dugun furgonetaren bila. Lautada erabatekoa da, baina furgonetaren arrastorik ez. Nola litike? Erantzunak inkisizioaren sua ekarri zezakeen duela mende batzuk: furgoneta eta beste pangeakideak planetaren kurbaturaren atzean ezkutatuta zaizkigu. Hona, luraren biribiltasunaren frogak, Pangea taldeko zientzialarien aurkikuntza galanta.



## ► METRO GALDUAREN BILA ◀



Kontinentetako sekotasunera bidaia

Ipar Amerikako lurrik sakonena zapaldu dugu, Kaliforniako Death Valleyn (Heriotz Ibarrean). Errepidearen ondoan Badwater edo ur txarren putzua dago, itsas mailatik 85

egiten dute argazkia. Baina topografia mapa zehatzenez diote handik kilometro gutxira, Heriotzaren Ibarreko gatzagaren erdian, badela eremu bat -86 metrora. Eta metro galdu horren bila abiatu gara.



HERIOTZAREN IBARRAREN ERDIAN. Lehen sakonunea aurkitu dute Pangeako kideek.

**B**aia abiatu ere. Gazez, gainera. Heriotz Ibarrean bizi diren animalia gehienak gazez ibiltzen dira, eguzki kiskalgarria saihesteko, eta guk ere ondo ikasi dugu lezioa. Egun hauetan, gure termometroak 41° neurtu ditu itzalean, 53° eguzkitan, baina ezin kezatu: aurtengo ekainean, 53° horiek itzalean harrapatu zituzten, eta aspaldi, 1913an, 56,7° raino igo zen merkurioa itzalean. Udako egun sargorienetan, basalto beltzeko harriak 95° tan egoten dira, eta shoshone indiarrek, termometrorik gabe, «suzko lurra» deitu zioten bailara honi. Harri gainean arrautzak frijitzea ohitura topikoa da hemen, baina guk gosaria gaueko iluntasunean prestatu dugu, goizeko bost eta erdietan, 22° ko epeltasunean.

Bodilak urez bete ditugu, biderako; Heriotzaren Ibarreko Iturri urriek ematen duten ur beroa edatera ohitu gara, eta horretaz ere ezin kezatu: mende hasieran, basamortu honetan loratu ziren meatzari herriek ez zuten edatekorik. Greenwater herrira adibidez —ur berdea... ironia fina urre bilatzailer haiena—, urrutitik ekartzen zuten ura, eta kupelak dirutza balio zuten. Herriko kazetariari etxeak su hartu zion, eta laguntzera hurbildu ziren lagunak mesedez eskatu zion sua itzali ez zezaten: garestiago zen sutea itzaltzeko behar zen ura, etxea bera baino. Guk, behintzat, ez zarr lehorrak bustitze-ko edatekoa eskatzen diogu lagunari, eta

nora joan ez dakigunean, mapa, altimetroa, barometroa eta satellite bidez uneoroko koordenadak ematen dituen GPS tramankulua. Traste hauek hartuta hasi gara -86 punturen bila. Heriotz Ibarrean hegoaldean gatzaga zabala hedatzen da, eta ilargi antzeko lautada zuri horretan punturik baxuena den eremua bilatu nahi dugu. Zaila da antzematen, gatzagan ez baitago erreferentziarik, eta zentimetro gutxi gorabehera jokatzen baita titulua.

Mapa topografikoan azpimarratua dagoen puntu hartaraino inguratzeak ordu eta erdiko bidea eskatuko digu. Gatz gogorretan ibiltzea nekagarria da: hasieran, azukre koxkorak kraskatzen gabiltzala dirudi; geroago, gatzak harlauza geometrikoak osatzen ditu, krater txikien antzeko poligonoak, eta batekik bestera erdi saltoka ibili gara astronauta baldarren antzera.

Ekialdean, gure martxaren aurrealdean, bi mila metroak harrapatzen dituen Amargosa mendikatea ageri zaigu, eta bere bizkarretik eguzkia altxatu egin da pixkanaka. Mendebaldean, gure atzean, nahiko gertu, Panamint mendikateak 3.368 metro harrapatzen ditu Telescope gailurrarekin. Heriotzaren Ibarreko depresioa bi mendikate horien artean estututa dago, eta eguzkiak goitik behera zuzen jotzen duenean, erradiazio gutzia behean pilatu eta hemen ez da giro izaten. Goizeko zazpietatik bederatzak arte, hamabi gradu igo da temperatura.

Horrexeatik, pausoa azkartu egin dugu

-86 puntura lehenbailehen inguratze. Balentinek eta Josuk gidatzen dute martxa, altimetro, barometro, GPS eta mapei adi. Halako batean, traste gutziek esan dute mapan azpimarratuta dagoen puntuaren inguruan gabiltzala.

Kartografoek txanpon baten neurriko plakatxo bat iltzatu omen zuten gatzagan eta haren bila hasi gara. Ez dugu topatu, ordea: itsas maila azpitik 86 metrotan dagoen eremua zabala da, sei edo zortzi kilometro karratukoa, eta zentimetro gutxi alde nabariezina da gatz lautada uniforme honetan. Bakoitza gure aldetik abiatu gara zirkuluan, plakatxoaren bila, baina arrastorik ez. Krater txikien izkinaren batean egongo ote da, edo gatzak estalita, plakarik benetan ba al dago, plakaren ordez postea jarri izan balute...

Argazki ofizial antzekoa bota dugu azkenik, eta Pangea espedizioaren lehenengo depresiora jaitsi garen honetan, misterioaren xarma utzi dugu gatzagaren erdian: -86 puntura heldu gara, baina metro galduaren muturrak gatzagan ezkutaturik jarraitzen du.

### Izen madarikatuak

Shoshone indiarrek Tomesha —suzko lurra— deitu zioten oinak erretzen zituen lurralde idor honi. 1849an, hogeitamar urre bilatzaile bailara ezezagun horretan sartu ziren. Bide motzago baten bila. Baita damutu ere. Hemezortzik besterik ez zuten bidea bete, eta atzera jo zutenen artean, meatzari bat hil zen. Geroago, emigrante familia bat Ibarrean gelditu zen, ez aurrera ez atzera, beroak eta egarriak jota hilzorian. Esploradore mormoi batzuek esker onik atera ziren, eta emakume batek eskerrak eman zizkien -heriotzaren ibar honetatik ateratzegatik-. Eta Halaxe bataiatu zuten, Death Valley edo Heriotz Ibarra.

Urrea eta mineral preziatuak aurkitu zituztenean, milaka lagun inguratu ziren Heriotz Ibarrean lurretara. Bizitzeko baldintzak oso gogorrak ziren hor: eta toponimiak sufrimenduen oroimena gorde du gaur egun arte. Bailara ikusteko balkoirik onenetakoa Dante's View da, Danteren Ikusmira, eta han goitik idazle italiarrak deskribatutako infernua ageri da: Hell's Gate -Infernuko Atea-, Desolation Canyon, Funeral Mountains, Amargosa Valley, Malpais, Dry Mountain -Mendi Lehorra-, Furnace Creek -Labeko Erreka-, Salt Creek -Erreka Gazia-, Badwater -Ur Txarra—...

Meategien izenak ere aproposak dira meatzariak jazotako gorabeherak ezagutzeko: Lost Burro Mine -Asto Galduaren meategia— edo Eureka Mine izen itxaropentsuagoa, adibidez. Eureka meategi honen ondoan, Aguerberry Point gailurra altxatzen da, eta hor aurkitu dugu beste hari bat, Heriotzaren Ibarreko historiaren matzari tira egiteko. Pete Aguerberry zuberotarra 1890ean etorri zen Ameriketara. Pilotari, artzain, karrozazain eta ur garraioan lan egin ondoren, urre bila hasi, Eureka meategia aurkitu, aberastu, jokoan dirutzak galdu, poltsikoa berriz bete eta heriotz misteriosua izan zuen. Bere espektuaren bila abiatuko gara orain mendian gora.

ANDER IZAGIRRE  
 pangea2000@mxrmail.com  
 San Frantzisko, Estatu Batuak

IPAR AMERIKA

HERIOTZAREN  
 IBARRA  
 -86 m.

## ► GUK 4.504 METRO IGO, TERMOMETROA 65,8 GRADU JAITSI ◀



Kontinentetako  
sakontasunera bidala

Kaliforniako hilabetea  
bukatu eta etxera  
itzultzekotan garela,  
bi eguneko tartearekin  
zapaldu ditugu Ipar  
Amerikako eremurik  
sakonena (Heriotz  
Ibarra, -86 metro) eta  
Ipar Amerikako  
gailurrik altuena,  
Alaskakoak kenduta:  
Whitney mendia  
(4.418 metro).  
Bat-bateko aldaketa  
bortitza izan da,  
labetik hozkailura  
bezalakoa: Heriotz  
Ibarreko basamortuan  
55,8° neurtu zituen  
termometroak  
eguzkitan; Whitney  
mendiko  
elurretan, -10°...

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mxmail.com  
Whitney Portal, Estatu Batuak

### IPAR AMERIKA



**B**asamortuak badi-  
tu milaka aurpegi:  
horixe ikasi  
dugu Araba eta  
Nafarroa batera  
bezain handia  
den Heriotz Ibarrean. Geologoa-  
k maiteminduta daude 225  
kilometroko luzera duen depresio  
idor honetaz, bertan gure  
planetaren istorioa azaltzen baita  
kapituluz kapitulu. Agerian  
daude duela bilioi bat urte sor-  
tutako harkaitz primarioak eta  
duela milioi bat baino gutxiago-  
koak; jaioberriak, neurri geolo-  
gikoentzat. Eta agerian daude  
basamortuak har ditzakeen for-  
ma ikusgarrienak.

Bardeak, Teide, Sahara, Uyu-  
ni... basamortu ederrenen bil-  
duma Heriotz Ibarrean biltzen  
da. Lurraldierik sakonena, adi-  
bidez, gatzaga zuri baten erdian  
topatu dugu; ondoren, Ubehe-  
be kraterrera igo eta hauts bol-  
kaniko beltez zikindu zaizkigu  
botak. Munduko eremu leho-  
rrenetakoa den honetan, noiz-  
behinkako ekaitzek, ur lasterrek  
eta haizeek orbain sakonak  
marrazten dituzte mendi soil-  
duetan, eta txanpiñoi itxurako  
harkaitzak, zubi eta arku natu-  
ralak modelatzen.

Beste lautada zabal batean,  
gatz koskorak petrifikatu egin  
dira estalagmita moduan, eta  
Devil's Golf Course -Deabrua-  
ren Golf Zelaia- sortu dute,  
orkatilk bihurritzeko eta belau-  
nak kolpatzeko lurrik minga-  
rriena. Eta hortik ez oso urrutik,  
kontrastean beriz ere, hondar  
ale finak tonaka bildu dira Mes-  
quiteko duna leunak sortzeko.

Hiru orduko bidea bete dugu



PANGEA

ELURTEA. Udazkeneko aurreneko elurtea, ezusteko fresko-freskoa.

oinez dunak zeharkatzeko, eta  
bestaldean, basamortuko ispi-  
latzea balitz bezala, Stovepipe  
Wells herrixkan igerileku txiki  
bat aurkitu dugu. Klorodun oasi  
horretan freskatu ditugu hon-  
darretako 55 graduak, Heriotz  
Ibarrearen sargoria agurtzeko.

Basamortuko berotan kiskal-  
tzen ari ginela, handik kilome-  
tro gutxira udazkeneko lehe-  
nengo elurtea bota du Whitney  
mendian. Kalifornia kontraste-  
en erresuma da, superlatiboen  
museoa, eta Ipar Amerikako ere-

murik sakonenak oso gertu dau-  
ka Ipar Amerikako tontorrik  
garaiena (Alaskako gailurrik  
kenduta). Baina Alaska, kome-  
ni denean, beste galaxia urrun  
batean dago beti.

Kontrasteak eta superlatibo-  
ak malte ditugunez, aukera ede-  
rra iruditu zaigu Whitney men-  
dia eskalatu eta -86 metrotik  
4.418 metrora pasatzea. Whit-  
ney Portal akanpalekuko 2.500  
metrotan hartu behar dugu era-  
bakla: zein abiatuko da gailu-  
rrentzat? Normalean, mendiza-

## Arrainak kantineplorarekin

Heriotz Ibarrean, bizitza ugari. Ipar Amerika-  
ko basamortu beroena eta lehorrena izanik,  
erakusleho bikaina da landareak eta anima-  
llak baldintza zailenetara nola moldatu diren  
ikusteko. Heriotz Ibarreko landareak -zuhalkak,  
kaktusak, Joshua zuhaitzak... - apenas urrik  
gabe bizi daitezke. Animalia gehienak gauze  
libiltzen dira, eta eguna zuloetan gordeta pasa-  
tzen dute, beroa salhesteko. Horrexegatik, basa-  
mortuan zaila da animaliak ikustea, baina hon-  
darretako oinek arrastozutako autopista txikiak,  
sugeen sgi-sagak, sugandila eta koioiteen aztar-  
nak... Beleak, dortokak, ahuntzak eta bestela-  
ko animalia bitxiak ere topa daitezke Heriotz  
Ibarrean lurretan: aintzinako meatzariei ihes

egindako astoen ondorengoak *wild burro* -asto  
basati-bihurtu dira, eta basamortuan arrainak  
ere bazirela jakin genuen. Arrainak basamortu-  
an? Kantineplorarekin ote dabilta? Munduan  
parekorik ez duen pupfish arrain txikia Salt  
Creek -erreak gazia- inguruko putzuetan bizi  
da. Aspaldian, Heriotz Ibarra ur gezak bete  
omen zuen; laku hura lehortu eta gazitu zen  
heinean, uretako animalia gehienak hil egin  
ziren, eta inguruko hegazti eta ugaztunak  
beste leku batzuetara mugitu. Baina pupfish egos-  
kor hau moldatu egin zen ur gazitara, eta pu-  
tzu eskasetan bizi da orain, urteroko euri urteak  
errekak eta putzuak beteko dituen itxarope-  
narekin. Kantineploradun arrainak ez dugu aur-  
kitu, baina hodeiei begira bizi dena bai.

leek bi egunetan betetzen dute  
hemendik gorako bidea, baina  
gaua pasatzeko baimena eskatu  
behar da aurrerapen askorekin.  
Guk baimenik ez, eta gelditzen  
zaigun aukera bakarra, egun  
berean igo eta jaistearena:  
hamalau-hamasei ordu behar  
omen dira, eta gainera elurra  
dago hemendik gora.

Afartzan ari garela hartu du  
bakoitzak bere erabakia: Josu,  
Balentin eta Susana igotzen  
saiatuko dira. Goizeko lauretan  
botak jantzi eta bidari ekin diote,  
iluntasunean eta hotzetan.  
Egungentian bere termometro-  
ak -10° neurtu ditu.

Beste pangeakideok beran-  
duago jaiki eta ibilaldi lasaigoa  
bete dugu Whitney mendian  
gora: 3.300 metrotan dagoen  
Mirror lakura igo, bertako eguz-  
ki epelatan bazkaldu eta beriz  
jaitsi gara Whitney Portalera.  
Bertan, kafe eta txokolata beroa  
duen egurrezko etxola batean  
sartu eta hantxe gaude, irakur-  
tzen, idazten, beste hiru pange-  
akideen zain.

Josu eta Balentin arratsalde-  
ko hiru eta erditan itzuli dira.  
Kafe beroa hartu dute eskuetan,  
eta kontaktu digute Whitney  
mendiarren lepora Iritsi direla,  
4.100 metrora, baina atzera egin  
dutela nekearengatik, hotzaren-  
gatik eta altuerak arnasa ondo  
hartzeko arazoak ematen zuz-  
kielako. Itsas maila azpitik zuz-  
nean etorrita, bagenekien akli-  
matazio falta aurka izango zute-  
la. Eta Susana? Gora egitea  
erabaki omen du, beste bi ame-  
rikarrekin batera. Josuk eta  
Balentinek behera egin dutenean,  
Susana hantxe ikusi dute,  
maldan gora, elurra gerriraino  
eta amerikarren aurretik arras-  
toa irekitzen.

Selak jo baino lehen Susana  
iritxi da, hamalau orduko mar-  
txa elurretan bete ondoren. Bi  
amerikarrek ere etsi omen dute  
bidean, eta berak bakarrik jo du  
4.418 metroko gailurra. Lainoa  
sartzen hasi denez, Whitney  
Portalera ino azkar jaitsi eta oso  
nekatuta heldu da. Furgonetan  
sartu, txokolata beroa eraman  
diogu -Whitney osoa igo duen  
Pangea taldeko kide bakarrari  
saria- eta arropa lehorra jantzi  
du hotza kentzeko.

Hotzak beste sorpresa bat  
eman digu. Akanpatuta geun-  
den basoan iturri bat geneukan,  
baina hondatuta zegoela uste  
genuen. Bili bazebilen, baina  
orain konturatu gara hodia  
izoztu egin zela guez: gaur,  
menditik itzuli garenerako,  
eguzkiak izotzeko tapoia urtu  
egin du, eta txorrita irekita  
zegoenez, orduak eta orduak  
pasa ditu ura isurtzen.

Whitney magalean jaino den  
erreak berri hau Susana River  
bataiatu dugu, gailurra harri-  
patu duen pangeakidearen obo-  
retan, eta gero korrika sartu  
gara denb. Susana River...




## ▶ TERRA AUSTRALIS INCOGNITA ◀



Kontinentetako  
sakontasunera bidaia

Ezagutu baino lehen  
asmatu zuten  
Australia antzinako  
kartografoek.  
Iparraldeko  
hemisferioan  
hainbeste lurralde  
zegoenez,  
hegoaldekoan lur  
eremu handia behar  
zen masa  
kontinentalak  
orekatzeko, eta  
ustezko eremu horri  
Terra Australis  
Incognita,  
Hegoaldeko Lurralde  
Ezezaguna, deitu  
zieten mapetan.  
Esploradore  
europarrak 300 urtez  
ibili ziren kontinente  
fantasma horren bila.



PANGEA

KRONIKAK. Estatusunak jotakoan, komuna ere leku aproposa da kronikaok idazteko.

**E**ta zapaldu dugu Australia. Abioiak hiru jauzitan bete du Australiarako bidea: Bilbo-Zurich-Singapur-Sidney. Hogeita bi orduz aspertu gara hegan, beste mordoxxa bat aireportuetako aulkietan erdi lo eta, azkenik, hegazkinek eskaileretatik burua astinduta jaitsi gara: ostiralean irten ginen -udazkena Bilbon- eta igandean iritsi gara -udaberria Sidney- Erlojuia hamar ordu aurreratu behar dugu, eta Australian urriak 29ko goiza denean, Euskal Herrian oraindik 28an egongo

zarete. Egun bat aurrerago izango gara askotan: kintelako emaitzak eta burtsako gorabeherak kontatuko dizkizuegu, han gertatu baino lehen. Zeruko konstelazioak desberdinak izango dira eta buruz behera biziko gara. Nahasketa honekin, denbora dezente beharko dugu ordulari biologikoak egokitzeko. Belarrietatik edango al dugu bitartean? Erlojuari zorabioa kentzen zaionean, here orratzen norantzen eman nahi diogu itzulia Australia erdiari, berrogei egunetan. Sidneytik abiatuko den ibilbide horretan, gure helburu nagusia Eyre lakua da, kontinente-

## Ingalaterrako kartzelarik handiena

James Cook kapitainak 1770ean aurkitu zuen, azkenik, Terra Australis Incognita hura. Australia ekialdeko kostan mapetan marraztu -barnealdea zuri utzi- eta Ingalaterrara itzuli zen Cook. Londresko Gobernuak ez zekien nola erabili munduaren beste puntan zegoen kontinente berri hura; hamazazpi urte geroago, soldadu talde bat eta zazpiehun preso itsasontzi batean sartu eta Australiara bidali zituen, Sidneyko presondegia sor zezaten.

Hauexek izan ziren hasierako europar kolonoak. Kondairak fama beldurgarria eman dio lehenero taldeari, baina pre-

so haien artean ez zen hiltzailerik edo bortxatzailearik. Zazpi urteko deportazio zigorra ordaindu behar zuten denek, delitu harrigarriengatik: batek hamabi pepino lapurtu zituen Londresen; besteak, saski bat; hirugarren batek, liburuak. Deportatuaren artean 9 urteko mutila eta 82ko amona zeuden. Zazpi urteko zigorra omen, baina inor ez zen arduratu itzulerako bileteaz, eta deportatu askok oinez ihes egin zuten oraingo Sidney ingurutik, kostaldeko mendien atzean Txina zegoelakoan. Basamortura sartu eta bertan kiskaliko ziren, aurretik aborigenek jan ez bazituzten.

ko punturik baxuena (16 metro itsas maila azpitik). Ipar Ameriketako Heriotz Ibarrean (-86 metro) Pangea bidaiaeren lehenengo urratsa bete ondoren, Australiako eremurik sakonena aztertu nahi dugu orain.

**Nafarroa osoa adinako gatzaga**  
Iritsi baino lehen, badakigu Eyrek antzekotasunak dituela bisitatu berri dugun Heriotz Ibarrekin, baita etorkizunean ezagutu nahi ditugun depresioekin ere. Basamortuaren erdian dagoen sakonunea da Eyre lakua, inguruko lurraldeen urak jasotzen dituena. Eguzkiak gogor jo eta ura azkar lurrintzen duenez, gelditzen den putzu eskasa oso gazia izaten da. Are gehiago: Eyre lakuak ia Nafarroaren tamaina dauka, eta Espainia gehi Frantziaren tamainako lurralde baten ur guztiak jasotzen ditu, baina hala ere... erabat lehortuta egoten da urte ia osoan, eta 500 milioi tona gatz uzten ditu agerian. Nafarroaren tamainako gatzaga! Ez dugu arazorik izango entsaladak prestatzeko.

Gatza hantxe daukagu, baina olioia, ozpina eta bederatzita platerak nonbait eraman behar, eta furgoneta zahar bat erosiko dugu Sidneyn bertan. Ipar Amerikan, 6.000 kilometro bete genituen alokatutako furgoneta batean: alokairua ordaintzeko gastatu genuen diru kopuru berarekin, Australian furgoneta erosi egin dezakegu. Guretat. Eta berrogei egunen buruan, salmentan trebe bagabiltza, diru horren zati dezentea berreskuratuko dugu.

Sidneytik hegoaldera eramango gaitu furgoneta zahar horrek bidaia hasteko. Australiako hiriburu ia anonimoa den Canberra jo, eta handik Kosciusko mendia maglera hurbilduko gara. Ipar Amerikan, jarraian zapaldu genituen eremurik sakonena eta gailurrik altuena -Alaskakoak kenduta, Whitney mendia da handiena (4.418 metro)-, eta oraingoan asmo beretsua daramagu: Eyreko depresiora jaitsi aurretik, Australiako tontorra harrapatzen saiatuko gara Kosciusko mendia apalean (2.228 metro).

Hegoalderago oraindik, Tasmaniako itsas inguruetan freskatuko gara, eta Melbourne eta Adelaida hirietan letxugak eta tomateak erosiko ditugu Eyreko gatzaga handirantz joan aurretik. Kontinentearen bihotzerantz sartu ahala, basamortuko beroak gero eta gogorrago erreko gaitu, eta Coober Pedy herriko biztanleek bezala egiten ikasi beharko dugu: haiek mendi barruetan zulatu dituzte beren etxeak, kanpoko temperatura 40°tik apenas jaisten delako, eta harkaitzen barruan 24° konstanteetan bizi direlako. Uluru harri gorriaren aitzakiarekin, Australiako aborigenen arrastoak ikasi nahi ditugu Alice Springs inguruan, eta handik iparraldeko kostaraino joko dugu, zona tropikalera ezagutzeko. Ekialdera, berriz, bi mila kilometroko luzera duen eta munduko izaki bizidun handiena omen den Koralezko Barrera Handian murgilduko gara, marrazoei gaizki iruditzen ez bazaie. Eta erlojuari buelta itxeko, Sidneyra iritsiko gara berriz, hamabi mila kilometro bete ondoren.

Asko dirudi, baina Australia erraldoia da -Europaren tamainakoa- eta gure bidea, marrazko fin bat besterik ez mapan. Inguuruko hutsune itogarri horrek azken mendetan bezala jarraituko du: terra incognita.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mixmail.com  
San Frantzisko, Estatu Batuak

AUSTRALIA

EYRE LAKUA  
12 m.



## ► URREAK ETA TXAPELAK ◀



Kontinenteetako sakotasunera bidaiatu

Etxean ezin, eta munduaren bestaldean finkatu zuten bizitza euskaldun askok. Australian azukre kainabera moztu zuten, basoan lanean aritu ziren, Sydneyko Opera House fatatuan ere igeltsero ibili zen bat edo beste. Eta aspaldiko garaietan, meategietan sartu ziren beste batzuk, urrearen usainak deituta. Gaur egun, Australian metal preziatuena aurkitzen duen euskaldunik badago: Javier Conde maratoilari basauriarrak urrezko domina eskuratu du Joku Paralinpikoetan, eta eguerdian bertan Sydneyko *Gure txoko* elkartean.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mxm.com  
Canberra, Australia

AUSTRALIA

EYRE LAKUA  
-12 m.



PANGEA

FURGONETA. Aurrean, kanguruaren aurkako paratxokea. Gainean, Josu Iztueta.

**H**ogeita hamar lagun inguru bildu gara *Gure txokon*: Sydneyko euskaldunak, Pangea taldekoak, Joku Paralinpikoetan lan egin duten beste euskaldun batzuk, maratoilariak eta euren ingurukoak... Javier Conde iritsi denean, txaloka jaso dugu denok, Luzek *Txapeldunak* jo

du akordeoiarekin eta elkarteko lehendakari Carlos Oruek babarrun plater ederraren aurrean eseriarazi dio.

Conderekin batera, maratoian bosgarren postua lortu duen Aretxabaletak Joseba Larrinaga dator. Dominak hiru lehenengozentzat besterik ez dituzte banatzen, baina *Gure txokon* denentzat dira babarrunak -sakramentu guztiekin-, txuleta piperrekin

## Sydmeladperbrisho, hiriburu anonimoena

«Nola deitzen da orain goazen hiria?», galdetu du pangeakide batek, Canberrara bidean. Gutxitan gertatzen da bidaiariak herrialdearen hiriburua zein den ez jakitea, baina Australian arrunta da zalantza hau. Izan ere, Canberra hiri artifiziala da. 1901ean, ordurarte Ingalaterraren koloniak ziren sei estatu eta bi lurralde bildu egin ziren Australiako Federazioa sortzeko. Sydney eta Melbourne bedi lehian zebiltzanez, hiriburua neutro bat asmatu zuten bien arteko bidean. Hiri berriari izena jartzeko zozpi urteko eztabaidan egon ziren: propoimenen artean, Shakespeare, Emu, Eucalypta, Kookaburra, Victoria Defendera Defender edo Sydmeladperbrisho (estatu guztietako hiriburuaren lehenengo silaben bilduma: Sydney, Melbourne,

Adelaide, Perth, Brisbane, Hobart). Azkenean, aborigenen hizkuntzan -topalekua» esan nahi omen duen Canberra hautatu zuten.

Izena bazuten, izana falta. Nazioarteko arkitektura lehiaketa antolatu zuten hiria eraikitzeko, eta Griffin estatubatuarren proiektuak irabazi zuen: 400.000 hektareako parke artifizial batean galduta daude eraikinak, batzuk besteengandik oso urrutiti, eta bisitariak ez du hiria inoiz topatzen. Ez baitago guneirik, geometria butsa da: etxe sakabana-tuak, basoak, etorbide luzeak, laku artifizial handia... Ederra paseorako, baina hiri aspergariaren topikoa indartzen digu tabernako zerbitzariak: «Canberrak badu alde on bat: Sydneytik hiru ordu-ra besterik ez dago».

eta ardoa. Eskerrak bazkalondan doping kontrolrik egin ez diguten.

Maratoilariak txistuaren erradiografia bezain argalak dira eta, beste muturrean, tripak ondo zailtzen dituzten Sydneyko euskaldunen ondoan eserita daude. Javier Conde txapelduna da gaur; euskaldun emigrante zahar hauek txapela egunero jartzen dute. Eta gertu, Australiara lan eta olatu bila iritsi diren surfer itxurako bi bizkaitar gazte, lle oxigenatuarekin: antipodetara emigratutako belaunaldien bilakaera daukagu begien aurrean.

Postrea irentsi eta berehala hasi dira Sydneyko euskaldun zaharrak musean. Carlos Oruek, elkarteko lehendakariak, muslarien istorioak kontatu dizkigu: «Hemengo hau itsasontzi batean ezkatututa iritsi zen Australiara. Hango hark Italiara ihes egin zuen 1956an eta Nazio Batuek errefuxiatu pasaportea eman zioten, baldintza batekin: Australiara ala Kanadara joan behar zuen lanean». Altona errefuxiatuak baiez egiten du buruari, baina jaso berri dituen bi erregoen bizarrak laztantzen ditu eta enbidea jo du handira.

Eusebio Ilarramendi zarauztarrak gogo gehilagoz hitz egin digu. Bizitza erdia Australian eman du, baina jubilatu zenetik, bi urtean behin joaten da Euskal Herria. Gustura geldituko litzateke Zarautzen bizitzea: «Txikiteoa falta zait Australian», aitortzen digu. Baina seme-alabak australiarrak jaiotzaizkion eta ez dute hemendik joan nahi. Lasa ezkiotarrari ere antzekoa gertatuko zajo, filipinar batekin ezkondu eta Amaia alaba eta Aitor semea Sydneyn izan dituztelako. Euskal Herriko bizitza eten zuten munduaren bestaldera etortzeko, eta hemeri eraiki dutena ez dute berriz eten nahi.

### Kanguruaren aurkako hesia

Joku Paralinpikoaren sua itzali dute Sydneyn, eta atleta elkarrituek turismorako aprobetxatu dituzte azken egunak. Gorpildun aukiek, itsuen makilek eta herrene makuluek kaleak bete dituzte, «normaltasunaren» mugak zalantzan jarriz. Frantziako familia batek Sydneyn pasa ditu oporrak, hankarik ez duen alaba gaztearen ilusioak bultzatuta.

Furgoneta asmatikoa erosi digu, Europara bezain handia den Australiari itzuli erdi bat emateko, eta guk ere traste berezia gehitu diogu, bere elbarritasunez aurre egiteko. Argazkian ikus daitekeen bezala, furgoneta hesi metaliko bitxia du aurrealdean: *roobar* ospetsua da, kanguruaren aurkako paratxokea. Hirietan dabiltzanek ez, baina kontinentean barneratzen diren kotxe eta kamioi gehienek daukate tramankulu hau, bidean kangurua harrapatzea ez baita oso zaila Australian.

Sydney erditik irten eta surfarien paradisu, Bondi Beachen, igaro dugu gaua. Hondartza ondoko parkean sartu gara lozaketan, baina goizeko ordubietan eurijasa bota digu eta handik korrika egin dugu ihes. Zubipean egin dugu lo -ez dezatela etxean jakin- eta goizean goiz furgoneta kargatu digu: bizikletak eta kaxak goian lotu. motxilak pilatu, eta bagoaz hegaldara bidean, tupust eginez gero min handiena zeinek hartuko lukeen eztabaidatuz: kanguruak ala furgonetak?





## ▶ AUSTRALIAKO ELURRETAN ◀



Kontinenteetako sakontasunera bidaia

Australiako depresiorik sakonenera abiatu aurretik, kontinente honetako gailurrik altuena igo dugu: Kosciuszko mendia (2.228 metro). Bertako elurretan azkar izoztu zaizkigu sudurrak eta Australiari buruzko topikoak.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mixmail.com  
Melbourne, Australia



PANGEA

KLIKI Ez zen giro gailurrean. Argazki pare bat egin, eta behera laster batean...

**L**ehengo astean kontatu genizuen gure furgoneta asmatikoak kanguroen aurkako paraxokea duela; orain, atzeko karrotxoa gehitu diogu traste guztiak lasaiago eramateko. Australian berrogei urte darmatzan Javier Iriondo legorretarrak eta Maria Jose bere emazteak etxean hartu gaituzte bi egunez, eta karrotxoa jartzen lagundu. Mendirantz jo dugu ondoren: furgoneta ez tulka ibili da aldapa latzenetan, baina ondo ekarri gaitu Kosciuszko mendiaren magaleraino.

Australia zurira bidean, Australia berdea ezagutu dugu: golf zelai amaigabe baten antzeko lautadak eta muinoak, moketa itxurako hektareak eta hektareak eukalipto basoak inguratzen, eta noizbehinka, makalak, pinuak, sahasak. Zelaletan ehunka behi ikusi ditugu bazkan eta lehenengo kanguro taldeekin animalia exotikoen zerrenda gizentzen hasi gara. Beranduago agertu dira

emuak -ostrukaren oso antzekoak, baina batere ahaidetasunik gabekoak: eboluzioak emaitza berdintsua lortu du kontinente bananduetan-, eta bide ertzean pare bat aldiz gelditu gara kotxeek jotako bi uombat ikusteko. Uombata marsupiala da -kumea gordetzeko poltsaduna, kanguroak eta koalak bezala-, arratoiaren itxura eta basurde txikiaren tamaina duena. Eta hillik dagoenean, jaki goxoa milaka eulirentzat, dirudienez.

### Gailurra lainoan

Kosciuszko tontorra Australiako hegoekialdean dago, itsasotik gertu, Snowy Mountains izeneko mendikatean. Mendi Eluruen mendikatean, alegia: izen horrek ez luke zentzu handirik elurra ugari botatzen duen lurraldean, baina Australia bezalako kontinente idorrean berezitasun aparta adierazten du Snowy Mountains izenak.

Toponimo berdina aurkitu genuen Kali-

fornian, Whitney mendira (4.420 metro) igo ginenean: Sierra Nevada, Eta halakoxea dago Andaluzian baita ere. Australiako Snowy Mountains; Kalifornia eta Andaluziako Sierra Nevada: salbuespen elurtuak basamortuaren ondoan.

Eta salbuespenak ondo prestatu gabe harrapatu gaitu. Australiara datorrenak etxeko armairuan utzi ohi ditu elurretarako arropak: guk ere bai. Ondorioz, trakets samar jantzi gara hotzari aurre egiteko, eta ibilbidearen hasiera den Charlotte Pass toponimoari ere ohore egin diogu: zapiak lotu ditugu lepotan, plastikozko poltsak oinetan, galtzerdiak jantzi eskutan, eta txarloteatzen abiatu gara Kosciuszko mendian gora.

Goizeko hamarretan ekin diogu bideari, xirimiri izoztuaren azpian. Atzo elurra bota zuen Kosciuszkon, udaberri australiarreko azkenekotakoa, eta arrastoa desagertu egiten zaigu batzuetan. «Urte garai honetan elur guzuegi gelditzen da eskiatzeko, baina gehiegi oinez igotzeko», esan digute Charlotte Passeko eski estazioan. Hemisferio honetan, hegoaldeko maldetan pilatzen da hotza eta elurra, eta iparraldekoak garbiago agertzen dira.

Azken palaren oinean gaudela, euri zaparrada hasi du. Behelainoak inguratu gaitu eta itsu-itsu abiatu gara gailurrerantz, elurrak jan duen bide lasaiagoa bilatu gabe. Elur-metak altxa ditugu noizean behin, beharkean arrastoa ez galtzeko, baina Josu eta Aitziber argi ibili dira iparrorratza eta maparekin: zuzen-zuzen iritsi gara Australiako gailurrera.

Kosciuszko gainetik kontinentea ikusteko aukera gutxi, ordea: argazki pare bat bota eta marxta, euria gogor ari duelako. Elurretan eseri eta irriskata jaitsi gara tontorretik, laino artean bidea berriz topatu dugun arte. Txango samurra da Kosciuszkoakoa, lau ordutan erraz betetzeko, baina baita oso berezia ere: hotzak jota eta blai egon arren, Australiako elur exotikoak topikoen zain zegoen burua freskatu digu.

Daotzen egunetan murgilduko gara Australiako topikoetan: desolazio gorria, kanguroen hezurdurak bide ertzean, herrixka bat laurehun kilometro, pizti pozoitsuak, hautsa, bero kiskalgarria. Eta topikoak dio Australiako barrualdea hutsik dagoela: hutsan zer aurkitu dugun kontakatu diezugu datorren astean.

## Hipodromoan, takoi luzerik ez

Melbourneko biztanle guztiak -hiru milioi inguru- ezkontza berea gonbidatu dituztela dirudi. Australia osoa telebistaren aurrean jarriko duen Melbourne Cup zaldi lasterketa ospatuko da gaur, eta melbournetarrek, emakumeak batez ere, Ingalterako erret-familiaren antzera jantzi dira hipodromora joateko: loreduen soineko laranja eta txaketa berdeak, gasak, pisu akotako sonrero luma-dunak, lazo handiak. Samaldan doaz tren geltokirantz, igandetan San Mamesa edo Kontxako estropada egunean jendea Urgullerantz doan bezala, baina Ingalterako Ama Erreginaren klonak bezala itxuratuta.

Klonak ala clownak? Eleganzia ala pailazakeria? Guretzat horteroa dena, haientzat derra. Besteen gustuak errespetatu behar. Badira idatzitako gabeak; adibidez, Melbourneko Herald Sun

egunkariak gogoratzen dituenak. «Aurtengo joerak jarraitzeko errazak dira», esaten du egunkariak, «gustu piska bat besterik ez da behar elegante izateko». Joerak dioenez, garraibide publikoetan joan behar da hipodromora; gustu txarrekoak omen dira helikopteroak eta limusinak. Eguraldiari dagozkion jantziak eramane behar dira, ezta okurritu ere irla tropikal batean oporrak pasatzeko modelitoa jaztea. Takoi luzerik ez, noski. Ezta behatzekin jateko hamaitzakerik ere: hipodromoan azukrezko algodiak jango dituzu. Sakeleko telefonoak eleganteak dira lagunei mezuak idazteko, baina inolaz ere telefonotik «non zaule?» oihuka hasteko. Bi edo hiru xanpan kopa edan daitezke, baina ura ere tartekatuz: parrandarekin ez duzu ahaztu behar zaldi lasterketa ikustera etorri zarela. Hurrengorako badakizue.

AUSTRALIA

EYRE LAKUA  
-12 m.



## ► UHOLDEA BASAMORTUAN ◀



Kontinenteetako  
sakontasunera bidaia

Nafarroaren tamainako gatz lautada batek estaltzen du Eyre lakua -Australiako depresiorik sakonena, lehorrena eta beroenetakoa-. Europarrek duela 160 urte aurkitu zuten lakua, eta ordutik lau alditan besterik ez da urez bete. Baina ertzera hurbildu garenean ezustekoa hartu dugu: aurten, uholdeak basamortuaren bihotza berriz busti du.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mixmail.com  
William Creek, Australia

AUSTRALIA

EYRE LAKUA  
15 n.



PANGEA

BERO. Eguzkitan 53 graduko tenperaturak jaşan dituzte Pangeakoek Eyre lakuan.

**A**ustraliako bihotza basamortu gorria da, desolazio amagabea -outback izeneko eremu idorra-. Hala ere, kontinente barruan ltsaso bat zegoela uste zuten XIX. mendeko esploradore europarrek, ibai gehienek erdialde ezezagun hartarako bidea hartzen baitute. Teoria horrekin erabat sinistuta, esploradore batzuk gameluetan igo eta txalupak hartuta barneratu ziren outback kiskalian.

Ez zebiltzan guztiz oker: Australiako ibai askok basamortuan aurrera egiten dute Eyre

lakurantz... baina bidean galtzen dira. 1.200.000 km karratuko lurralde baten ur guztiak -Iberiar penintsula gehi Frantziaren tamainako lurralde baten urak- Eyrerantz erortzen dira, baina askotan lakuari ez zaio ur tanta bakarra ere iristen, errekek bidean lurrindu edo iragazi egiten direlako.

Aurten, ordea, euri ugari bota du kostaldeko mendietan eta erdialdeko lautadetan. Errekek ikusi ditugu basamortuko errepideak moztzen; bi kanadiarrek kontatu digutenez, bat-batean jgotako uren artean bederatzir ordu pasa dituzte karreteran, ez aurre-ra ez atzera. Ibaiek indarrez iritsi dira

## Australia hutsaren ahotsa

Eyre lakurako bidean, Australiako barnekalde idorra -outback lurraldea- ezagutu dugu. Hutsik omen dago kontinente honen barrena eta mapak ez digu gezurrik esan: asfaltoa bukatu eta larogei kilometro aurrerago dago Marree herrik, beste planeta batetik erori eta ezerezean landatuta bezala. Gero, lur gorriko pistak beste berrehun kilometro saltoka eraman behar gintuen William Creekeraino. Horregatik gelditu ginen Marreen: beste inon gelditzerik ez zegoelako.

Zerbeza izoztuekin egarria asetu, furgoneta gasolinaz bete eta ur erreserba berritu -120 litro daramatzagu-; horixe zen gure asmoa. Baina herriko dendatuberna-gasolindegia bakarrean, liburuxka fotokopiatu batek jakinmina piztu zigun: Marreeko gida turistikoa zen, bertako eskola aborigeneko haurrek egin eta salgai utzi zutena. Ale batzuk eskuratu

eta tabernan eskolako irakasle bat zegoela jakin genuen. Jenni Caldwell Adelaidan jaio zen, kostaldean, baina sei urte daramatza outbackeko haurrekin lanean, eta eskola pozik erakutsi zigun: «Herriaren garai onenetan 300 ikasle biltzen ziren; baina duela hogeitau urte trenak kendu zuten eta 1.500 biztanle ordez 100 gara. Orain 25 haur datoz eskolara». Horietatik hogei aborigenak dira, arabana herrikoak: «Beraien hizkuntza aspaldi galdu zen eta aborigenek ingelesez egiten dute etxean, baina herriko zaharrek hitz batzuk gogoratzen dituzte eta horietatik erakusten dizkiegu haurrei». Australia hutsean topatu ditugun ahotsei oihartzun eginez, furgoneta martxan jarri eta lezioa errepikatu dugu. Nhiki antha kudna (hau da nire aurpegia): miltjardi (begia), midla (sudurra), marna (ahoa), yarri (belarria), wakarra (lepoa)...

Eyereraino, maiatza aldean betetzen hasi zen lakua.

### Infernuko sukaldea

Basamortuko pista utzi eta beste okerrago bat hartu behar dugu Eyre ertzeraino iristeko. Inor gutxi sartzen da bertara: eguzkiak erretako lurraldea da, 75 kilometroko bidean itzalik ez duena eta irteerarik gabekoa. 4x4ak besterik ezin daitezke pista honetan ibil, eta halako bi alokatu ditugu. Gidariek lakuraino eramango gaituzte eta bertan utzi traste guztiak.

Dena den, Josu, Balentin eta hirurok bizikletaz abiatu gara goizeko seietan. Abionetaz Eyre gainera egiten duten zentzuzko ederra da basamortu erdiko gatzaga erraldoi hau, baina errealitatearen zati bat besterik ez da hori. Bizikletaz zazpi ordu behar izan ditugu -ia bi ordu azken hamar kilometro onduatsuk eguzkipeko 50°tan betetzeko-, nekea, egarria eta beroa jasan ditugu, baina horri esker Eyre lakuaren benetako aurpegia ezagutu dugu: lehenengo esploradore europarren hitzetan, Eyre inguruko paisaia -antzia, heldungarria, nazkagarria- da; «ez dut lurralde hau inoiz gehiago ikusi nahi», idatzi zuen batek. Infernuko sukaldea da Eyre.

Bide ertzean, abionetatik ikusi ezin den gurutze txuri bat dago: «Caroline Grossmueller, 1998ko abenduak 11». Alemaniako bikote baten autoa trabatu egin zen Eyre inguruko hondarretan, udarako egun kiskalgarriaren garaian -60° eguzkitan-. Caroline oinez abiatu zen laguntza eske, eta 47 kilometro ibili ondoren, beroak jota hil zen bide bazterrean. Hiru egun beranduzago topatu zuten gorpua. Alokatu dugun 4x4etako baten gidariak gizona bizirik topatu zuen, kotxe azpiko itzaletan etzanda.

Itzal bakarra dago Eyre lakuaren ertzean: teilatutxi bat lau posterean gainean. Sei metro karratuko habesa ematen du, eta bertan pilatu gara bederatzik eguneko ordu beroenak piska bat leuntzeko -53° eguzkitan, 37° gure itzal pusketan-. Itzaletan irakurri, idatzi, aspertu eta siesta egin dugu; goizaldean eta iluntzean abiatu gara lakua ezagutzera.

Maialenek eta Susanak iparralderantz egin dute bidea; Balentinek bizikletan hegoalderantz. Marijo, Josu, Joxemi eta laurok lakuko uretara hurbildu gara, gatz geruza hautsi eta lokatz beltzetan trabatuz; Eyreko ura, gatz eta lokatza bildu ditugu poteotan. Aitziber eta Luze animaliak azzertzen ibili dira: lakua piskanaka lehortzen ari denez, gatz kristalizatu berritan itakako arrainak eruz ikusi dituzte. Baina aurtengo hezetasunak bizitza leherketa ekarri du Eyre inguruan: hantxe dabilta hondarretako baranoa, emuak, untziak, kakatuak, bealek...

Agindutako egunean gidariak gure bila etorri dira -kredito txartela gurekin gorde dugu, gu han uzteko tentaziorik izan ez zezaten-, eta William Creek herritik era- man gaituzte. Inguruko berrehun kilometrotan basamortua besterik ez dago, eta egarriak jota iristen diren bidaiariek iritzi heratu dute: William Creekek hamar biztanle dauka eta munduko zerbezarik onena. Eta esker oneko grafitiak daude komunetan: «Eske- rraz, Jauna, pub honengatik».

## ▶ ARRASTO TXIKI BAT AUSTRALIAN ◀



Kontinenteetako sakontasunera bidaia

Eyre lakuko depresioa aztertu ondoren, Australia barruko desolazio gorria zeharkatu dugu furgonetarekin. Gure bideak arrasto txiki bat besterik ez du egin maparen hutsune beldurgarrian: nahikoa, erdialdeko Australia mundutik oso urruti dagoela sentitzeko.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mxmail.com  
Alice Springs, Australia

**A**lice Springsen furgoneta martxan jarri dugunean, hurrengo herria 850 kilometrorra dagoela esan digu mapak. Tartean beste bi puntu markatzen ditu, baina kamioizaleen pub bat eta gasolindegia bat besterik ez dago bakoitzean. Barkley Homestead da atsedengune hauetako bat, eta oharra du sarrean: «Hemengo produktuak garestiak irudituko zaizkizu agian. Baina kontuan hartu behar duzu argindarra geuk sortu behar dugula, eta horretan 500 litro gasoil erabiltzen ditugula egunero. Basamortuaren erdiko erosotasunek ordaina behar dute».

Mundua oso urruti gelditu zaigu, hondar gorriko pisten bakardadean. Taberna isolatueta kamioizaleek distantzia luzeen gogortasuna astintzen dute: zerbeza hotz batetik hurrengora bost orduko bidea dago Australiako bihotz esklerotikoa barrena.

Gizakiak harramazka batzuk egin ditu ezerezen mapan. 1862an, John McDouall Stuart esploradoreak kontinentea hegoalde-tik iparraldera zeharkatu –hiru mila kilometroko lautada– eta buelta egin zuen lehenengo aldiz. Stuartek aurkitutako errekek eta ur putzuak marraztu zituen bere ibilbidetan: basamortuaren erdiko bizkarrezur mehe hura jarraitu zuten lehenengo artzainek eta gamelu gidariek. Berehala, 1872an, 37.000 zutoin lerrokatu zituzten Stuartek egindako bidean, eta telegrafoak Australia munduarekin lotu zuten: Londonera iristeko hiru hilabete behar zituen mezu batek bi egunetan egiten zuen bidea telegrafoari esker. Trenbidea sartu zen ondoren; bidea Bigarren Mundu Gerran asfaltatu zuten korrika eta presaka, japoniarrak iparraldeko hiriak bonbardatzen ari zirelako...

Kontinentearen bernaldera sartzea erraztu egin da. Baina aurrerapen hauek Stuartek irekitako orban txikiak pixka bat besterik ez dute sakondu: gizakiak basamortuan telegrafo estazioak, tren geltokiak, asfaltoa edo garagardoak hozteko frigorifikoak landatu ditu. Baina arrasto fin horretatik kanpo, kontinente hutsak zorabioa eragiten du oraindik ere.

Distantziak eta neurriak ikaragarriak dira: dingo zakur basatiek ardiak eraso ez ditza-



FURGONETA. Pangeakoak Australiako basamortuan aurkitutako erreka zeharkatuz.

ten, 9.600 kilometroko hestarekin itxi zuten Australiako zati handi bat: Euskal Herriatik Indiaraino hesia jartzearen antzeko lana. Abeltzainen lurraldeak Europako herrialdeen tamainakoak izan daitezke –Anna Creek rantxoak Belgika baino handiagoa da–, eta artzainek helikopteroz zaintzen dituzte barruti hauetako abereak. Eskola irratiz jasotzen dute sakabanatutako haurrek; Royal Flying Doctor zerbitzuari esker, sendagileak ablonetaz iristen dira abeltzain eta meatzari gaixoengana.

Pasa den astean Eyre lakuko gatzagan geunden, basamortuaren errailetan, baina

beste 1.730 kilometro bete ditugu kontinentearen zentroraino iristeko. Bertan dago Alice Springs, putzu baten ondoan eraikitako telegrafo estazio izana eta bidaiari guttien topaleku bihurtutako herria. Atsedean eguna pasa dugu bertan, gizakion eskala lasaigarrian: kanpina, tabernak, aborigenen arte galeriak, parkeak, museoak...

Baina Australiako ekialdeko kostara heltzeko asmoz abiatu gara berri, eta mapak esan digu gure bideko hurrengo herria, Mount Isa, 850 kilometrorra dagoela. Eta itsasoraino, 2.050 kilometro: paseo polita hondartzara joateko.

## Ionosfera gaizki, eskolarik ez

Aideko Eskolara sartu garenean, irakasle bat mikrofonotik ari da irratu estudioan. «Celeste, entzun, zenbat dira lau bider hamaika?». Erdialdeko Australian dena dago urruti, ikasleak ere bai, eta distantzia luzean arazoari erantzun orjinalak eman dizkiete. Bitxiak, netakoa, School of the Air (Aireko Eskola).

Eskola honetako ikasle gehienak abeltzainen estazioetan bizi dira, Alice Springs herritik 1.000 kilometrorra batzuk. Iberiar penintsula gehi Frantzia bil ditzakeen lurralde batean (1,3 milioi kilometro karratu), Aireko Eskolako uhinak 120 ikaslerengana heltzen dira. Astean hiru eguneko ordu erdiko irratia saioa egiten du ikasle bakoitzak irakaslearekin, eta hortik aurrera gurasoek ardura hartu behar dute haurrak egunero bost edo sei ordu ikasten igaro ditzan.

«Zenbat da lau bider hamaika?». Celeste, bost urteko neska, Alice Springstik 300 kilometrorra bizi da. Irratian zaratak, interferentziak, karraskak entzuten dira, eta azkenean neskaren ahotsa iritsi

da beste galaxia batetik bezala: «Berr...ta lau». Eskolari ihes egiteko aitzakiak bitxiak izan daitezke: ionosferaren baldintza txarrak, adibidez. Orduan, klasea bertan behera utzi behar dute.

Eskolako maisu batek esan digunez, irratididezko ikasleek ikasle arruntek baino emaitza hobeak lortzen dituzte goi mailako ikasketetan: «Saiatuagoak dira». Eta haurren lanak erakutsi dizkigu harro. Nartewtoona estazioan bizi den 5 urteko Melissak mar...kia bidali du postaz: «Gamelu txiki bat dut. Esnea ematen diot goizero». Eta 8 urteko Allan Hildebrantek Australia erdialdeko hotsak kontatu dizkigu: «Bakarrik nago. Zer entzun dezaket? Uiiiiirrr. Klunk! Uiiiiirrr. Klunk! Haize errotak bueltak ematen ditu. Oinez hasi naiz. Skruntx! Skruntx! Skruntx! Harri txintxarrak oinen azpian. Baina itxaron! Uiiiiirrr... Haizearen txistua entzun dezaket zuhaitzen artean. Hauexek dira egunero entzuten ditudan hotsak».

AUSTRALIA

EYRE LAKUA  
15 m.



## ► TROPIKOAN MURGILDUTA ◀



Kontinentetako sakontasunera bidia

Australiako erdialde lehorra atzean utzita, Queenslandeko kostalde tropikalera heldu da gure furgoneta. Basamortuko hauts gorria astindu eta ozeanoan murgildu gara, animaliek sortutako egiturarik handiena ezagutzeko: koral arrezifeek 2.200 kilometroko luzera dute itsasertzearen parean.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mlmail.com  
Townsville, Australia



PANGEA

HONDARTZAN. Aitziber, Susana, Joxemi eta Migel Mari, tropikoaren topikoez gozatzeko.

**A**rrzifea langile txikiak sortutako katedral ikusgarria da. Koral bakoitzak kareharrizko babesa sortzen du bere inguruan, eta hiltzen denean zentimetro gutxiako oskol hori uzten du. Oskola oskolaren gainean, hemezortzi milioi urte daramate koralek lan etengabea betetzen, jaiotzen, hazten eta hilerri erraldoiari beste ale bat gehitzen.

Koralek baldintza bereziak behar dituzte bizitzeko: ur epelak -itsasoa 22 eta 29 gradu artean egoten da beti-, eta, eguzkiaren argia jasotzeko, ur garbiak eta sakontasun gutxiak. Hala ere, koral arrezifeak kostaldetik urrutik samar daude, 50 eta 150 kilometro tartean: barkua behar da haraino iristeko. Queensland estatuan, tropikoaren topikoak ustiatzen dituzte turismoa erakartzeko: hondartza luze zuriak, itsaso gardena, palmondoak, surfa, eski akuatikoa... Arrezife-

etara doazen barkuek eta koralarren inguruko buzero saioek biltzen dituzte bisitari eta diru gehien. Dena den, gu Beaver arrezifea eramango gaituen enpresak hiru egunetik bat gaitzen du eguraldiaren erruz: atzo haizeak indar pixka batekin jotzen zuen eta segurtasun arauak ez zioten barkuari iristen utzi. Gaur, ordea, baldintzak hobetu egin dira, eta bagoaz.

Ozeano Barean barrena, bi ordu eta erdi-ko bidea bete dugu arreziferaino. Hondartza irla txiki bat dago bertan, 30 metro luze eta 15 bat zabal dituen, eta haraino eramane gaituzte kristalezko hondoa duen txalupa batean. Kristalezko hondotik antzemane ditugu gero buzero saioan ikusiko ditugun arrainak eta koralak. Irla zapaldu eta batzuk lehenengo aldir jantzi ditugu urpeko betaurrekoak, amasa hartzeko hodia, txalekoa eta aletak. Gure artean badira ur azpian ibilitakoak, baina batzuontzat espe-

rientzia berria izan da.

Esperientzia latza, hasieran, Cousteau kapitainaren estiloarekin uretara salto egin, burua ur azpitian sartu eta itsasoaren hondoa hain argi ikusi dudanean, instintoak alertan jarri zaizkit. Izutu egin naiz eta amasa hartzen saiatu, baina sudurra maskararen berruan irabatu zegoela ahaztu egin dut. ahoa gomazko hodi batek estutzen dit, bertatik airea har dezakerala ez zait burutik pasa, burua astindu dut, itotzen ari naiz, belarrietatik amasa hartzen ahalegindu, ostikoka hasi aletekin, ahoa zabaldu eta ur gazi trago galanta edan dut, ur azalera salto egin arazi didana. Karpoan amasa hartu dut azkenik, eta ezutka hasi naiz birrik destomilatu arte.

Ederra. Itsasertzetik metro pare batera itozteko zorian ibili naiz, ura gerriraino iristen zitzaidala. Lehenengo hamar minutuan hartu ditudan zurrutadekin, ozeanoaren maila metro pare bat jaitziko zen. Hala ere, uste baino azkarrago ohitu naiz, eta burua itsaso azpian lasai mantentzen ikasi dudanean, sorpresa handia jaso dut.

Aurkikuntza ustegabekoa eta hungigarria izan da: arrezifeko ur azpitian igeri egitean, badirudi ozeanoari estalkia kendu diotela eta bizitzaz betetako oihana biluzik ageri dela. Haurren poza etorri zait nire azpian koralarren mundua aurkitu dudanean, planeta arrotz baten gainean hegan bezala. Koralek sortzen dituzten formekin metaforak agortu egiten dira: orein adarrak, burmuinak, labirintxoak, mendiak, katedralak. Eta inguruan, itsas azpiko korontek anemona basoak orrazten dituzte, munduko handienak diren txirlek -1,30 metro- ezpain kurbatuak zabalzen dituzte, errin fosforeszente eta koloredunak saldoka pasatzen dira koronteen autobideetatik, potoloenak txikienak jaten saiatu eta borroka hasi dien arte... Orduan bai arrain buffet librea.

Emozio berriak buruan bueltak ibili zaizkigu, kontinentera ekarri gaituen barkuan. Australia osoarekin berdin pasatzen zaigu orain: kostaldea jarraituz, Pangea bidaiaren zati australiarren abiapuntua izan zen Sydneyrantz goaz. Gero, abioian, sei astez ezagutu dugun mundu berri hau pixkanaka ulertzen saiatuko gara.

## Heriotz beldurgarrien katalogoa

Arriskua txikia omen da, estatistikak dio kasuak oso urriak direla... baina Australiako kostalde tropikalean heriotza beldurgarrien bilduma erraz osa daiteke. Ur tropikal hauetan, adibidez, munduko animaliarik pozoitsuena ezagutzeko ohorea eduki dezakezu: kutxa itxurako marnoka (medusa) txikia. Bere tentakuluen lastanarekin, etxeko egongelan sar daitekeen jende gutzia hil dezake pizti bitxi honek.

Marnoka sailhestu gero, eraztun urdin-  
dun olaguroaren eztenak gabi zaitzake. Bestela, itsasertzeko hondar edo harkaitzetan kamufflatzen den harri-arrainaren hamahiru arantzako toxikoak zapal ditzakezu, zure

bizitzako azken hankasartzean; maskor koi-  
koaren eztenkada batek paraliza zaitzake; hogoita hiru besodun itsas izarraren arantze-  
kin nahigabeko akupuntura egin dezakezu; gizakia hil dezaketen hamabi itsas-suge espezieen hokadak jaso ditzakezu...

Marrazoak besoa kentzen ez badizu, edo krokodiloak tripetan hozka egiten ez badizu, orduan itsasoko korronte bortitzek itoko zaituzte -Australiako lehen ministroa zen Harold Holt gertatu bezala-, olatu erraldoi batek jo eta bueltan ozeano barneraino eramango zaitu -1968an Sydneyn banatzen ari ziren berrehun lagun gertatu zitzaizten, eta sei ez ziren itzuli- edo hondartzako eguzkiak

azaleko minbizia sortuko dizu -ozono geru-  
zaren zuloa gertu baitago Australiatik-.

Eman dezagun arrisku guztiak sailhestu eta karpinera osorik itzuli zirela: tropikoko hiriak sarritan txikitzen dituen zikloia ez zuzula suertatu eta karpinak zutik dirautela. Orduan, sarritan oharra irakurriko duzu -Arriskutsua da palmondo eta kokotenen azpian egitea- Koko aske batek burua kaskatzen ez du oso heriotza epikoa -baina karpinako kargitek zeharritzen ari diren olatuak zirela, palmera baten azal zuzenaren karpin denda urratu zigun gortik, beldur tropikoan izan dugun zigorrik arriskutsuena, hori ere antutu behar.

AUSTRALIA

EYRE LANUA

1911

1911

1911

1911

1911

1911

1911

1911

1911

1911

1911

1911

1911

1911

## ► EBOLUZIOAREN GANBARA ◀



Kontinenteetako  
sakontasunera bidaia

Australiak 60 milioi urte daramatza isolaturik, eta eboluzioak animalia eta landare bereziak sortu ditu bertan.

Baina europar kolonoek eragindako aldaketak medio, munduan parekorik ez duten zenbait espezie desagertzeaz zeudela iragarri zuten biologoek XX. mendearen hasieran. Galdu baino lehen, 24 espezie eraman zituzten kontinentetik Kangaroo Islandera. Australia atzean utzi eta Argentinarako bideari ekin aurretik, hiru egun eman genituen guk ere han.



PANGEA

ADISKIDEKORRAK. Aitziber Olano, Kangaroo Islandeko biztanleekin.

**P**angea superkontinente baka-  
rretik banandu zenetik, Aus-  
traliak ez du harremanik izan  
beste kontinenteekin. Ebolu-  
zioak aparteko bidea jorratu  
zuen hemen eta, horregatik,  
bertako espezieen %80a endemikoa da -ale-  
gia, lurralde honetan besterik ez da bizi-  
Baina Europatik iritsitako kolonoek anima-  
lia eta landare berriak ekarri zituzten, eta  
naturak 60 milioi urtetan landutakoa urte  
gutxitan galtzeko zorian jarri zen.

Untxieta da kasu ezagunena. 1859.ean,  
Thomas Austin emigrantea aspertu egiten  
zen bere Australiako rantxoan, eta ehizara-  
ko zaletasuna zuenez, Ingalterrrako 24 un-  
txi ekarri eta bere lurretan askatu zituen.  
Ikaragarri ugaltu ziren, Australian apenas  
baitago untxia jango duen depredadorerik,  
eta hogeitamar urtetan 810.000 belar hek-  
tarea soildu zituzten kontinentearen hego-

aldean. Belar faltaren eragina areagotu egin  
zen 1890 eta 1900 arteko lehorteeekin; urte  
haietan goseak eta egarriak 35 milioi ardi hil  
zituzten. Eta bitartean untxiak saltoka, urte-  
ro 120 kilometro aurrerago.

Izurritea hasi eta mende bat beranduago,  
untxien aurkako neurria asmatu zuten azke-  
nik: mixomatosiaren birusa txertatu zieten  
animaliei, eta urte gutxiren buruan %99,9a  
hil zen. Milatik bat salbatu zen, baina bizi-  
rik iraun zutenei mixomatosiak ez zien kal-  
terik egiten eta belaunaldi indartsuago hura  
berri ugaltu zen. Gaur egun, 300 milioi  
unxi dabilta kontinentean, eta australiar-  
rek dirutza handiak behar dituzte haiek  
kontrolatzeko.

Bestelako kasuak ere badira: lehenengo  
esploradoreek erabilitako dromedarioen  
ondorengoak basati dabilta kontinentean  
zehar; kolonoiei ihes egindako katu, zakur  
eta zerriek ere Australiako faunan eta floran

txikizkoak egin dituzte. Europatik helduta-  
ko azerientzat plater erraza eta goxoa dira  
koalak eta pinguinoak; Darwin hiriko parke  
botanikotik hiru landare espeziek ihes egin  
eta Kakaduko oihana arriskutan jarri dute...

### Ornitorrinokoaren zelatan

Australia herrialde bitxia da, dudarik gabe.  
Ihes egindako landareen eta animalien  
argazkiak karteletan ikusten dira, nazioaren  
etsai publiko arriskutsuenen modura: «Aka-  
zia hau Darwineko parke botanikotik ater-  
ta eta Kakadu oihanaren bihotzera hur-  
biltzen ari da». Ez dute saririk ematen infor-  
mazioaren truke, baina parke batzutan botak  
goitik behera garbitu eta miazten dituzte,  
onddo eta hazi kriminalak bertan itsatsi egi-  
ten baitira parkezainen kontrolak saiheste-  
ko.

Australiako naturaren oreka hauskorra  
zaintzeko, xenofobia izan behar. Landare-  
ei pasaporte eskatzen diete Kangaroo  
Island bezalako lurraldeetan eta kalterik  
egingo ez duten espezie kanpotarrak beste-  
rik ez dituzte onartzen, kontrolpean beti.  
Uhartean honetan erle espezie berezia bizi  
denez, 800.000 pezetako isuna edo bi urte-  
ko kartzela zigorra dago kanpoko ezitia, pole-  
na edo argizaria ekartzen duenarentzat.

XX. mendearan hasieran, Australiako  
espezie endemiko asko galtzeko zorian zego-  
en, eta haien zati babesleku bihurtu zuten  
Kangaroo uhartea. Bertan baziren makina  
bat animalia eta landare -kanguroa uga-  
riena, horregatik iralaren izena-, baina 1911  
eta 1946 artean koalak, emuak, uumbatak,  
ornitorrinokoak, ualabak, dordokak, kaka-  
tuak... sartu zituzten. Eboluzioak Australian  
sortu dituen emaitza ikusgarrienen bildu-  
ma Kangaroo Islanden dago, bizirik eta sal-  
tota. Haien artean, gu ere bai.

Ja hiru egun pasa ditugu bertan, eta tal-  
dea banatu egin dugu Kangaroo Island ondo  
ezagutzeko. Marijok eta Susanak bizkarre-  
an hartu dituzte lozakuak, denda, janaria  
eta ura, eta bi egunetarako oinez abiatu dira  
mendebaldeko kostatik. Itsasertzearen beste  
norabidea jarraituz, Josu eta Joxemi  
Remarkable Rocks ingurura hurbildu dira  
-haizeak eta urak forma emandako harkaitz  
ikusgarriak-. Balentinek, Maialenek eta hiru-  
rok bizikletak hartu ditugu Couedic lurmu-  
turrean itsas lehoiak ikusteko eta Rocky  
ibaiaren itsasoratzea ezagutzeko. Aitziber  
eta Luze, teleobjetiboan lepoan hartuta, bar-  
nekaldeko basoetan eta Murray aintziran  
ibili dira animalien zelatan, baita haien  
ordutegira moldatu ere: arratsaldeko ordu  
beronetan animaliak ezkatutzen diren  
bezala, siestarako tartea hartu dute biek.  
Goizaldean eta iluntzean ikusi dituzte ani-  
malia gehienak: kanguroak, koalak, ekidnak,  
arranoak, possumak, kakatuak, tigre suga...

Alfaldu aurretik bildu garenean, ornito-  
rinoko espaziera eman gaituzte Luze eta  
Aitziberrek. Eboluzioaren aspaldiko pausoan  
sortutako animalia izateaz gain, lotatuta ere  
bada: iluntzanean besterik ez da mugitzen,  
errika eta putzuen inguruan. Ordu pare bat  
eman ditugu iluntzanean zelatan, baina  
gaur gauden ornitorrinokoak ez diugu audien-  
tziarik eskeini. Pangekide nekaturaren zuntza  
ka ozenezko izutuko zuten agian.

## Artilea mozten

Australiako espezie bitxiaren gordeleku  
bada ere, Kangaroo Islandeko ugaz-  
tun ugariena guretzat aspaldiko ezagu-  
na da: Nafarroaren tamaina erdila duen  
lurralde honetan milioi bat ardi bizi dira.  
Horiek, eta lau mila biztanle: 250 ardi  
biztanleko.

Josuk furgoneta bapatean gelditu du  
arkume bat ez harrapatzeko. Artialdea  
bilatu eta bildotsa han utzi dugunean,  
artzai batek kontatu digu Parndana  
herrian ardi mozketak txapelketa ospa-  
tzen ari direla oraintxe. Pabiloi batean  
sartu eta harmailetan eserita topatu  
ditugu chun bat parndanatar, gizon,

emakume eta haur, artile moztaileri  
oihuka. Hiruko taldetan ari dira oholta  
gainean, ile kiskurdun merino ardiak  
hanka artean estutu eta alfobren tamai-  
nako artile puskar mozten. Arkume txu-  
letak tipula errearekin jan eta zerbeza  
ugari edan dugu, lau mila ardi dauzkan  
artzai australiar baten kontuak entzuten  
ditugun bitartean. Shannon Warnest  
australiarra da egungo munduko txape-  
luduna, baina zelandaberritar batek  
omen du marka: 600 ardiren ilea moztu  
zuen hamar ordutan -minutuko bat,  
batzaz beste-. Goi mailako pelukeria,  
zalanzarik gabe.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mxm.com  
Kangaroo Island, Australia

AUSTRALIA

EYRE LAKUA  
15 m.



## ► EURIA BEHETIK GORA ◀



Kontinentetako sakontasunerako bidaia

Australiako etapa amaitu eta etxera bidean, Singapurren pasa genuen eguna pangeakideok, Europarako hegazkinaren zain. Etxera iritsi ginen azkenik: motxilak hustu, arropak garbitu, motxilak berriz bete eta Argentinara. Lau kontinente zapaldu ditugu sei egunetan, eta zorabioa baretu zaigunean ahozabalik gelditu gara Hego Ameriketako paraje ikusgarrienetako baten aurrean: Iguazuko ur jauziak.

ANDER IZAGIRRE  
 pangea2000@mixmail.com  
 Puerto Iguazu, Argentina

### HEGO AMERIKA

Valdes penintsula  
 -40 m.



PANGEA

LILURA. Egunak pasa daitezke Iguazuko zokoak miatzen, seko liluratuta.

**B**urua zeharo nahasi digu azken aste honek. Sydneytik sei ordu berandu atera zen gure abioia, eta Singapurre-ra iritsi ginenerako, handik Europara eraman behar gintuen hegaldiak alde egin zuen. Singapurreko hotel batean sartu gintuzten hogei orduz, hurrengo abioiaren zain. Ondoren, hamahiru orduko hegaldia bete genuen Zurichera, handik beste jauzi bat Basileara, han hegazkinetik jeitsi eta korrika beste baten bila, hamar minutu barru Bilbora eramango gintuena. Sondikara heldu ginen azkenik... Gu bai, baina gure trasteak?

Etxera itzuli eta bi egun beranduago atera behar genuen berriz: bixita azkarra familiar eta lagunei, bapo jan eta lo, arropa garbitu eta ospa Hego Ameriketara. Baina ezin garbigailua martxan jarri, munduko auskalo zein aireportutan galdu zirelako gure zapi motxila eta hiru bizikleta.

Azken orduan iritsi zitzaizkigun, zorionez, eta Argentinara garbigailutik atera berriak ekarri ditugu arropak, heze eta jaboitsu oraindik. Beste hiru hegaldi eta gero zapal-

du dugu Hego Amerika eta burua pixka bat ordenatzen saiatu gara. Gure inguruan bada aldaketa franko: kontinenteak aldatzeaz gain, taldekide batzuk ere aldatu zitzaizkigu. Luze eta Aitziber leitzarrak lanera itzuli dira -gaixoak- eta frantxipenaren usainetan gogoratu ditugu hemendik aurrera. Haien ordez, Amaia Askasibar eta Eneko Imaz biologoak batu zitzaizkigu, bederatzikotea mantentzeko.

Beste aldaketa garrantzitsua: Ipar Ameriketako zatirako furgoneta bat alokatu genuen, Australian beste furgoneta zahar bat erosi -eta gero saldu-, baina oraingoan Nairobotarra autobusaren barruan ibiliko gara Argentinan zehar. Autobusak 28 urte ditu -horietatik 18 Nairobotar bilakatuta- eta epe horretan, motore aldaketak barne, 500.000 kilometro bete ditu, Ilargiraino joan eta Lurrera itzultzeko zorian balego bezala. Pangea bidaiaren hirugarren etapa honetan beste 6.500 kilometro inguru gehituko dizkigu autobusari, Argentinaren punta batek bestera: orain tropiko inguruan gabilta, 33<sup>ko</sup> bero hezearekin, eta egunkariet diote hego puntako Ushuaia herrian -gure jomugetakoko batean- termometroak 2<sup>o</sup> neur-

tu dituela. Kontraste handiak termometroan, baita paisaietan eta helburuetan ere: Hego Amerikako depresiorik sakonena aztertzea da gure asmo nagusia (Valdes penintsula inguruan, Patagonian, -40 metro), baina pangeakide batzuk Ameriketako gailurrik altuena den Aconcaguarekin (6.960 metro) amets egiten dute. Bietara hurbilduko gara, bidean eroso, autobusean hankak lasai luzatu ditzakegulako taldekiderik jo gabe. Gure gupildun etxe honek badauzka sukaldeak, mahaiak, kajoak, lotarako koltxoiak... eta aukera dugu eserita joateko, zutik, etzanda, kantari, dantzan, irakurtzen edo ZABALIKerako kronikak idazten.

### Iguazuko ur jauziak

XX. mendearen hasieran, hernaniar bat Iguazuko urjauzien inguruan ibili omen zen. Ikuskizunarekin liluratuta, bertako oihanean gelditzeko erabakia hartu eta etxolaxo bat eraki zuen, porlanez betetako esne poteak erabiliz. Bertakoek *el vasco de la carretilla* deitzen zioten, orgatxo batean eramaten omen zituelako bere ondasun guztiak.

Iguazun bizitzeko gelditzeko asmorik ez badugu ere, hernaniar bitxi haren lilura ondo ulertu dugu kataratak begien aurrean jarri zitzaizkigunean. Iguazu ibaiak bapateko zulo sakona topatzen du bere bidean eta bertara amiltzen da 260 ur jauzitan; aparrezko 260 kortina sortzen ditu, goikaldean esne biltegiaren bat lehertu balitz bezala. Egunak pasa daitezke Iguazuko zokoak miatzen, ibaiaren goikaldean edo behekaldean, inguruko uharte nahiz oihanetan, Argentinako aldean zein Brasilgoan. Ibilbide ugari bete daitezke oinez, txalupaz hurbildu ur jauzien azpira, helikopteroz hegaldi panoramikoak gozatu...

Argentinako aldean bada egurrezko plataforma bat, urjauzi handienaren ertzera no hurbiltzen dena. Bertan, Deabruaren Ezarrian, ura 72 metroz erortzen da, azpiko ibaiaren kontra bortiz jotzen du, eta leherketa zaratsuan sortutako lurrikak eta zipristinak goraino iristen zitzaizkigu. Erraz antzeman daitezke zein datorren Iguazuko urjauzien ertzetik: blai goaz denok, Hego hemisferioan, munduaren beste aldean, buruz behera ibili beharko genuela txiste zaharra zen guretzat, baina ezin ukatu hemen eurria behetik gora botatzen duenik.

## Brasil, urak bultzatuta

Naturak miraria sortu du Iguazuko urjauzietan; handik oso gertu, naturaren erronkari erantzun harroa emanez bezala, Itaipuko urtegi itzela eraiki du gizakiak. Itaipu, munduan energia gehien sortzen duen zentral hidroelektrikoa, XX. mendeke obrarik handiena da eta bixita egin diogu.

Datuek zorabio eragiten dute: 1977 eta 1982 artean aritu ziren Parana ibaiaren eutsiko zuen paretan eraikitzen, eta orduko 25 solairuko eraikuntza egiteko adina porlan sortzen zuten makinak. 1980an, lana-

ren garai gorenean, 32.000 langile aritzen ziren, egunean 24 ordu txandaka. Urtegiaren paretan zutenean, Maracana estadia 210 aldiz eraikitzeko adina porlan erabili zuten bertan eta 380 Eiffel dorre altxatzeko altzairua. Urak 132 metrorako jauzia egin eta 18 turbina erraldoi mugitzen ditu. 12.600.000 kilowatt sortuz.


Parana ibaiak Brasil eta Paraguay arteko muga marrazten du eta bi herrialdeek hartu zuten parte urtegiako lanetan. Itaipuko

hidroelektrikak sortutako energiaren %50a erabiltzeko eskubidea dute, baina Paraguaiak %5a besterik ez du erabiltzen eta beste zatia Brasili saltzen dio. Beraz, Brasilek erabiltzen du urtegiak ematen duen ia energia guztia eta herrialde erraldoi honek bere energia behararen %25a asetzen du Itaipu -160 milioi biztanle dituela eta munduko zortzigarren ekonomia dela kontatzen hartu behar-. Sanba, kafea, azukrea eta bestelako topikoak baztertuta, urak mugitzen du Brasilen bihotza.



# ▶ LOKATZETAN TRABATUTA ◀

Buenos Airesera doan errepide nagusia utzi eta Esteros de Ibera aldera jo dugu. Hezegune honetako zingiretan dozenaka hegazti espezie, animalia berezi mordo eta paisaia ikusgarriak daude, baina urtero 2.500 bisitari inguru besterik ez dira iristen honaino. Bertaratzeko lurrezko bide txar eta luzea bete behar da, eta hortxe harrapatu gaitu lokatzetan ekaitz batek. Azkenean Colonia Pellegrini herri isolatura iritsi garenean, bertako biztanle askoren etorkizuna ere lokatzetan trabatuta dagoela ikusi dugu.



PANGEA

KATEAK. Elurretan ez ezik, lokatzetan ere erabilgarriak suerta daitezke.

**S**ei ordu eta erdi behar izan ditugu Colonia Pellegrinira iristeko azken 40 kilometroak betetzeko. Gorpilei kateak jarri dizkiegu; hala ere, autobusa behin eta berriz trabatu zaigu; altzurra, palak eta eskuak erabili ditugu azpiko lokatza atera eta bide berria sortzeko. Metroz metro egin dugu aurrera, baina Pellegrinirako sei kilometro falta direla, buztinezko putzu sakonean murgildu eta autobusak etsi egin du. Eguzkia sartzen ari da; iluntzearekin batera tximista batek zerua urratu du eta euria uholdeka bota digu. Gaua pista lokatzetan eta zaparradaren azpian pasa beharko dugula iruditu zaigunean, traktore miragarri bat agertu zaigu. Traktorean bi nekazari datoz, gure aingeru guardakoak: «Zelaitik etxera gindoazen eta autobusa lokatzetan ikusi dugu...». Kate batekin autobusa lotu eta traktoreak zulotik atera gaitu, berehala. Euria amorrutz ari du Pellegrinira heldu garenean.

Biharamunean, egun argitan, gaueko zaparradak herrian utzitako hondamena ikusi

dugu: hengo kaleak lurrezkoak dira, harri eta hautsezkoak, eta ekaitzak putzu zingiratsu bihurtu ditu. Colonia Pellegrini zorigaitzoko herria da, Corrientes probintzia behartsuaren zoko batean ahaztua: ondoan ditu Iberako lakua eta inguruko aintzirak, turismoa erakar dezakeen naturaren alborra, baina haraino ez da errepiderik iristen, urrutiko dago dena—Gobernua ere bai—, lurrak txarrak dira nekazaritzarako, biztanle asko etsituta bizi dira eta samina alkoholarekin edo etxe barruko biolentziarekin arintzen dute.

Iberako lakuan paseoa egin dugu. Txalupa gidatzen duen Rolok erakutsi dizkigu hegaztiak, uretan etzanda bezala dauden yakare kaiman patxadatsuak, inguruan dabiltzan karaya tximuak eta zingiretako oreinak... Laku gainean landareek osatutako irla handiek flotatzen dute, eta iceberg begetat horietako batean oinak jarri ditugu, bertan dabiltzan karpintxoak ikusteko —70 kiloko karraskariak, arratoien antzekoak—. Rolok turistak paseatzen ditu txalupan, eta igeltseroa da; etorkizuna Ibera inguruan erakitzeko asmoa. Lehorrean, berriz, Sain-

gatu tabernako jabeak esan digu kanpura eraiki nahi duela bere lurretan. —igerlekua jarriko diet turistei eta merke kobratuko diet—. Badago itxaropen handiar bat Niko Grinin, eta gar aahul horri eskolan eusten diote batez ere.

Colonia Pellegrinik 500 biztanle dauka eta eskolan 200 ume aritzen dira. Eskola zeharo pobrea da, eta izenik ere ez du eskola deitzen diote, besterik gabe. Laz, dukerik ez zitzaion iritsi eta bertan behertu zuten ikasturte osoa. Aurten martxan hasi dira berriz, baina lau ikasgai besterik ez dituzte. Lilianak, Jorgek, Laurak eta beste sei irakasle buru-belarri dihardute baina biade falta nolabait konpontzeko.

Makina bat haurrek egunero bizi dituzte etxeko biolentzia, langabezia, alkoholismoa. Guraso asko analfabetoak dira. Lurra eta kasleak kontatu digunez, «gure egunkari garrantzitsuena haurrei maitasun piska bera ematea da. Umeez badakite eskolan ikasteko ez dituela joko, eta horrek lasaitasun handia ematen die. Egun osoa anderehandarek ondoan pasa nahi dute, ez dakizu nola maitate gaituzten...». Familietako dramak eskolara iraino iristen dira. Haurrak erasokortak oso berekoiak izaten dira, eta horrek lan gehiago bihurtzen du irakasleena. Baita ederra ere. Lilianaren hitzetan: «Honako etorri behar dugula esan zidatenean depresioak jota gelditu nintzen. Orain ez dut alde egin nahi. Gureko arduratzen naize haurren beharrek oso erosotasunak baino».

Ikasturte bukaerako agiriak emango dituzte gaur, eta ekitaldira gonbidatu gaituzte. Hantxe egon gara, eskola utziko dute 15 urteko haurren jaialdian. Argentinan, hezkuntza derrigorrezkoa da 14 urte arte. Colonia Pellegriniko eskolak ez du dirurik eta azkeneko bi urteak moztu dizkiete. Ikasle batek horrelaxe hasi du bere hitzak: «Bukatu zaigu eskolaren garaia. Hemen uzten ditugu liburuak...». Eta orain ere Hamabi urteko haur gehien-gehienek ez dute etorkizunik herrian. Buenos Airesera, bertan dabiltzan karpintxoak ikusteko —70 kiloko karraskariak, arratoien antzekoak—. Rolok turistak paseatzen ditu txalupan, eta igeltseroa da; etorkizuna Ibera inguruan erakitzeko asmoa. Lehorrean, berriz, Sain-

## Sagardóa peajerako

Corrientes probintziako mugatik irten baino lehen, orain arteko seigarren kontrola topatu dugu karreteran. Betiko interrogatorioa hasi da: ea nor garen, nongotarrak, nondik gatozen, nora goazen... Ohiko galderak berri bat gehitu dio poliziak: «Y no les sobra algo de plata para la sidra?». Xanpaina garestia da eta gasdun sagardoarekin ospatzen dituzte Eguberriak Argentinan. Eskarari ezezkia eman eta orduan serio jarri zaigu polizita, atzeko argiak ez direla ondo ikusten eta gerrikoak eraman behar ditugula esanez. «Ez da egi», erantzun diogu, «autobusak 3.500 kilo baino gehiago pisatzen ditu eta gerrikoak ez dira derrigorrezkoak». Alde egiten utzi digu azkenean... «baina adi, hurrengo kontrolako poliziak zortotzagoak dira eta».

Halaxe da. Berrehun metro aurrerago Entre Rios probintzian sartu gara eta kontrol berriko poliziak 400 dolarreko isuna jarri nahi digu (80.000 pezeta gutxi gora behar) gerrikoak ez eramateagatik. Polizilaren kasernara sartu eta han protestaka hasi gara, 400 dolar astakeria delako. «Tira, orduan esan zuek. Zenbat ordainduko zenukete?». Eguberriak gure kontura ospatu nahi ditu txantajista honek, baina ez dugu isuna erregateatzeko asmorik eta enbidioa jo dugu: «Begira, munduari buelta ematen ari gara eta taldeko batzuk kazetariak gara —ZABALIKeko kronika fotokopiatuak erakutsi dizkiogu—; gertatzen zaigun guztia kontatzen dugu eta ez genuke Argentinatik irudi txarra jaso nahi; kolaboratzeko prest gaude, bai-

na 50 kilometroko atrako bat egiten badigute...». «Atrako» hitza ez da oso aproposoa eta polizita sutan jarri da: «Barkatu! Hemen inork ez dizeu kolaboraziorik eskatu, ariko Nik legea beteazkiko dizuet eta kitto». Gero ordago: «Legea? Idatziezaguztu isuna eta bete ez dugun legearen artikulua: ez dugu presarik, hemen gelditu gaitzeko eta taldeko batzuk Buenos Airesera joango dira, legea zein den eta ea isuna ordaindu behar dugu galdetzer». Hortik aurrera solasaldia bertan egin da eta Eguberriak buruz hitzketak hasi gara. Hamar peso eskaini dizkigu sagardoa pixka bat eros dezan; baina, bataketo etikak jota-edo, ez dizkigu hartu. Azkenean bostekoa luzatu digu, bidaiari opatu eta... «Feliz Navidad!».

ANDER IZAGIRRE  
 pangea2000@mixmail.com  
 Colonia Pellegrini, Argentina

HEGO AMERIKA

Voldes penintsula  
 10 m.






Kontinentetako  
sakontasunera bidaia

Munduko atlas opetsuenek diotenez, Hego Amerikako punturik baxuena Valdes penintsulako depresio batean dago, itsas maila azpitik 40 metrora. Pangea bidaia hasi aurretik susmo batzuk bagenituen: inork zalantzan jartzen ez dituen mapa horiek agian ez dira hain zehatzak eta hutsuneak izan ditzakete. Buenos Airesen, Argentinako Kartografia Institutua bisitatu eta datu berriak jaso genituen. Valdes penintsularen atarian gaude orain, baina bidean depresioz depresio ibili gara, mapa askotan ahaztuta dauden Salinas Chicas (-42 metro), Chasico lakua (-17 metro) eta Salinas de Gualicho (-50 metro inguru) ezagutzuz.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mixmail.com  
Puerto Piramides, Argentina

## HEGO AMERIKA

Valdes Penintsula  
-40 m.



PANGEA

GATZAGA. Gatzetan ere gelditu da trabatuta autobusa, lokatzetan bezalaxe. Hortik irteteko modurik onena, zangoak eta bizikleta.

## ► DEPRESIOEN BILDUMA ◀

**E**rrapide nagusia berriz utzi eta Salinas Chicaseko depresiora doan lurrezko pista hartu dugu. Iluntzean iritsi gara, gorringoa dirudien eguzkia gatzagaren zuringoaren atzean sartzen ari denean. Ez dugu denbora askorik izan argazkiak ateratzeko, metaforak zorrozteko edo arrautzak frijitzeko, autobusa gatzagaren ertzean zentimetro batzuk hondoratu egin baitzaigu. Lehengo astean lberako lokatzetan trabatu ginen, orain gatzetan, baina berdintsua izan da lana -aitzurra eta palarekin gurgpilei bidea egiten saiatu- eta berdina izan da Josuren betiko kontsolamendua: «Hauxe izan dadila okerrik handiena».

Ez gara gai izan autobusa gatzetatik ateratzeko eta bertan pasa dugu gaua, itsas mailaren azpian. Kontinentean sakontasunera egin nahi dugu bidaia, baina aski genuen Salinas Chicaseko -42,7 metroekin, ez genuen asmorik -42,8ra jaisteko. Biharamunean, gertuko etxalde batera bizikletaz hurbildu gara laguntza eske eta traktore batek atera gaitu, lehengo astean bezala. Beste hoge kilometro eskas bete eta Cha-

sico lakua topatu dugu, depresio berri eta bitxi bat. Eredu hau itsas maila azpitik 17 eta 23 metro artean dago eta inguruko ur guztiak jasotzen ditu uholdeak gertatzen direnean. Baina Chapalco herriko blztanleek ez zuten horren berri, lakuaren ertzean etxeak eraiki zituztenetik ibaiak ez zutelako inoiz gainezka egin. Biescasko kanpenean gertatu bezala, uholdearen bidean zeuden, ihes egiteko denbora izan zuten, ordea, 1972-74an lehendabizi eta 1980an berriz, uholdeak herria urperatu zuenean. Ondorioz, Chasico lakuaren azalera laukoiztu egin zen -bi mila hektareatik zortzi milara- eta 130 etxe gelditu ziren orain. Lakuaren azalera kanpandorre baten muturra eta zuhaitz altuenen adarrak ikusten dira oraindik.

Baina hondamenak, bide batez, turismoa erakartzeko modua sortu zuen: ibaiak gainezka egin zutenean, Chasico lakuraino arrain asko iritsi ziren, baina pejerrey espeziea besterik ez zen moldatu bertako gazitasun handira. «Lakuan pejerreya besterik ez da bizi, munduan ez duzue topatuko arrain espezie bat eta bakarria duen beste lakurik», kontatu digu Angel Guet- tek. Pejerreyek predatzailerik ez zutela eta

arazorik gabe ugaltzen zirela ikusita, arrantzaleak Chasicora erakartzeko proiektua bururatu zitzaion Guetteri 1991.n. Orain, laku handituaren ertzean txalupak eta kainaberek alokatzen dituzte; pejerreyak garbitu, xerratan ebaki eta erre egiten dituzte

### Hauxe izan dadila...

Valdes penintsularako bidean beste behin desbideratu gara, oraingoan Salinas de Gualichoko depresiora heltzeko. Bistan agertu zaigu gatzaga zuria, gure helburua: hala ere, derrigorrez gelditu gara bertan... Irtsi baino bostehun metro lehenago motorreko gasoilik iritsi ez delako. Josuk eta Balentinek, mono urdina jantzita, tutuak garbitu dituzte, eta kamioizale batek bidoikada bat gasoil eman digu badaezpada. «Hauxe izan dadila okerrik handiena», Josuk.

Erepede itzas mailan dago, 0 metroan, eta bertaraino iristen da Salinas de Gualichoko ertza. Argentinako Kartografia Institutuko mapetan -50 metroko sestra kurba bat agertzen da gatzagan barrena, eta harantz abiatu gara oinez, Pampako eguzkiak gogor jotzen duela (38,6 grado). Josu eta Balentin bizikletaz aurreratu dira mapak eta GPSa eskuetan dituztela, depresioaren puntu baxuena bilatu eta oinez goazeno bidea markatzeko. Ordubeteko ibilaldia bete ondoren iritsi gara, teorian Valdes penintsulako depresioa baino sakonagoa den puntu honetaraino. Bertan argazkiak bota eta itzulerako bidea hartu dugu, baina bi bizikletek zulatua izan dute laster: T. ideko guztioz aho batez bota dugu... «Hauxe izan dadila okerrik handiena».

Valdes penintsularantz abiatu gara ondoren, bertako Salinas Grandes depresioa aztertzeke asmoz. Laster neurtuko dugu beste sakonune hau, Hego Amerikako punturik baxuena ote den behinogor jakiteko. Valdes penintsulako gatzagaren altuera neurtu eta pingumok, itsas elefanteak eta Antartikara oraindik abiatu ez diren azken bade despiatuak ikusi nahi ditugu. Baina ondoren ilusio berri batek eraman gaitu Patagoniak hogoalderantz: oraindik ere, mapa askok ahaztuta dute lurralde hau, eta jasotako informazioen arabera, badugu itxaropena bertako eremu zabaletan depresio sakonago bat topatzeko.

Mapetako hutsuneak bilatzera abiatu eta aurreko gurgila zulatu zait autobusari. Josul, hasperena bota du... Hauxe izan dadila...

## Aitzurrarekin lanean ikusten baduzue... boliviarrak da

«Depresio bila bazabiltzate, hauxe da herrialderik aproposena», esan digu Santiagok, Buenos Airesko lagunak. «Depresioa Argentinako moda da. Badirudi denok gaudela etsituta, teledibak eta egunkariak ez dute beste gairik, depresioa gora eta behera. Azkenean depresioarekin gozatu egiten dugula ematen du». Topatu ditugun argentinarrak kexa berdina dute ahotan: oso herrialde aberatsa da, baina biztanleak alfer hutsak dira eta politikariak oso kaskarrak. «Argentinarrak ez dute lanik egin nahi, esan digu jatetxe bateko jabeak, Chasico laku ertzean. «Bide ertzean aitzurrarekin lanean norbait ikusten baduzue...

onartzen dute, etsipenari harrotasun puntu bat nahastuz. Argentinak duen gauzarik okerrera argentinarrak omen dira.

Jatetxearen jabeak iaz hamar milioi pezetara irabazi eta paperak aldatu omen zituen zerga guxi ordaintzeko: «Noski, hemen denok saiatzen gara zergak ez ordaintzen. Eta ni oso abertzalea naiz, hortxe daukat Argentinako bandera handia zintzilik... Beraz, pentsa ezazue zer egingo duten besteek». Iruzuraren aitopena batera lotsarik gabe bota du, eta beste esaldi bat jarriaraino: «Hemengo politikari guztiak ustel hutsak dira, nik ez dakit zergatik. Herrialdea hondoratu





Kontinentetako  
sakontasunera bidai

Susmoak baieztatu egin ditugu, azkenik: mapa eta atlas ospetsuenek ahaztuta badaukate ere, Laguna del Carbón (Argentina) da Hego Amerikako zein Amerika osoko depresiorik sakonena: itsas maila azpitik 105 metrora dago. Eremu ezezagun hau 52.000 hektareako etxalde baten barnean dago -Estancia La Silvita- eta bertako jabeari sartzeko baimena eskatu diogu. Margarita Egluz Mendieta da jabea, Argentinan jaio baina aita donostiarra eta ama okendoarra dituen 69 urteko emakumea. Eta, baimena emateaz gain, Amerikako puntu baxueneraino lagundu gaitu.

ANDER IZAGIRRE  
 pangea2000@mixmail.com  
 Puerto San Julian, Argentina

## HEGO AMERIKA

LACUNA DEL CARBON  
 -105 m.



# ► SAKONENA HAUXE DA, ETA EZ BESTERIK ◀



PANGEA

MAPAK. Ezinbesteko bidekide dira, baina oraingo honetan ez dute bete-beteen asmatu...

**I**a mapa eta atlas guztek diote Hego Amerikako punturik baxuena Valdés penintsulan dagoela, Salinas Grandesko -40 metroan. Lehengo astean neurketak hartzen ibili ginen bertan, baina ordurako beste depresio batzuk ezagutu genituen Argentinako Patagonian, Valdés baino sakonagoak batzuk: Chasico lakua (-23 metro inguru), Salinas Chicas (-42 metro) eta Salinas de Gualicho (gu -52ra iritsi ginen, baina -73ko sakonunea ere agertzen da bertako mapetan).

Orain dela hiru aste, Buenos Airesen geundela, Argentinako Instituto Geografiko Militarera joan ginen informazio eske, eta mapa militarrek eskuratu genituen, oso zehatzak. Ordur geroztik, helburu bat genuen buruan: Patagoniako hegoaldea. Gran Bajo de San Julián inguruan, inork gutxi ezagutzen duen depresio sakona omen zegoen.

Eta badago. Puerto San Juliánen, sakonunetik 50 bat kilometrora dagoen herrian,

jende askok ez daki depresio handi hau badenik ere, baina pixkanaka informazioa bildu eta, azkenean, Gran Bajo de San Juliánen 52.000 hektareako lurraldea duen -Gipuzkoaren laurdena inguru- Margarita Egluzengana jo dugu. -Oso lursail handia da, baina lehorra eta antzua-, esan digu. -Aspaldian ardiak izan genituen bertan, baina Patagonia osoan bezala, lan handia eta etekin urria ematen zuten. Orain, Tierra de Fuego tik gasa ateratzen duen enpresa batek lurralde zati bat alokatu dit gasbidea jartzeko eta hori da lurrak ematen didan probetxu bakarra-. Margaritak badaki munduko depresiorik sakonenetakoa daukala bere sallean, -baina hemengo inork ez dio arduririk eskalitzen eta ahaztuta dago-.

Gran Bajo de San Juliánen badaude eremu sakonak -izenik gabeko laku bat (-49 metro), Laguna Guadaluza (-68 metro)...-, baina Laguna del Carbón (-105 metro) da baxuena. Haraino 14 kilometroko bidea oinez bete nahi genuen arren, Margaritak bere kamionetan pixka bat hurbilduko gai-

tuela esan digu: -Bestela ez duzue bidea aurkituko, ez da erraza. Paraje hauek ilargia bezalakoak dira, desolazio hutsa. Ikusiko duzue-. Susana eta Josu kabinan sartu eta beste zazpiok, motxilak eta neurketetarako trasteak hartuta, atzeko kaxan joan gara artaldearen moduan, bide txarrean saltoka. Margaritak aurrera egin du, azeleradorea gogo biziz zapalduz eta bolantea batera eta bestera astinduz, 69 urteko rally txapeliduna balitz bezala. Guk behin eta berriz esan diogu nahikoa dela, oinez abiatuko garela Laguna del Carbóneraino, mapak, iparorratzak, altimetroak eta GPSa baditugula... Baina Margarita gure amona babeslea bihurtu zaigu -amona gazte eta sasotsua!-. -Nola utziko zaituztet hemen, galxoak, basamortu honetan kiskali egingo zarete...-. Eta Laguna del Carbónen ertzearaino eramán gaitu.

Lakuaren ondoan, harrizko etxola batean, Raspasi izeneko gizon bat bizirik omen zen ahurtzak zaintzen, eta txablske hartan jarri dugu kanpamentua. Arratsaldea lakuaren ingurua ezagutzen eta neurketak egiten pasa dugu. Ur gazi haietan flamenkoak ikusi ditugu, eta lurlean ostrukaren antzekoak diren nanduak, gameluen taldekoak diren baina lllamaren antza duten guanakoak -beidurti hutsak, beti gugandik ihesi, bi egunerako patata tortilla nahikoa bagenuela ez zekitelako agian...-. Patagoniako udan egunak oso luzeak dira, eta oraindik egun argiz ginel, disko erraldoia azaldu zaigu lakuaren atzetik. Ilargi beteak zintzilik gelditu da, ilargiaren antza duen Amerikako depresiorik sakonenaren gainean.

Itzulera 14 kilometroko oinez egin aurretik, Laguna del Carbónen datu meteorologikoak jaso ditugu. Altuerari dagokionez, hamar metro inguruko okerra izan dezaketen gure tresnek militarren mapek diotenaren antzekoa neurtu dute. Beraz, zalantza izpirik gabe, Laguna del Carbóneko -105 metroan dago Hego Amerikako punturik baxuena, baita Amerika osokoa ere. Iazko urriaren hasieran iritsi ginen Kaliforniako Heriotz Ibarra (-86 metro), eta bertakoek Amerika osoko depresiorik sakonena huraxe dela aldarrikatzen dute, Hego Amerikako sakonena Valdésko -40 metroak direlakoan. Baina kartografiari aritzen diren argitaletxe nagusienek mapak zuzendu beharko dituzte eta Laguna del Carbóneko sakonunea gehitu.

## Munduari buelta, buruak bueltaka

XVI. mendearen hasiera arte, Hego Amerika hegoaldeko beste kontinente batekin lotuta zegoela uste zuten askok -Antartika eta Australia bilduko litzukeen lurralde erraldoi batekin-. 1519ko irailean, Sanlúcar de Barramedatik (Espainia) bost ontzi eta 266 marineleren ziren Magallanesen agindupean, Hego Amerikaren hegoaldean Ozeano Barerako iraganbide baten bila.

Atlantiko zeharkatu eta, 1520ko martxoan, Magallanesek babesleku bat bilatu zuen Hego Amerikako kostaldean, negu australa pasatzeko. Aurkitu zuten, badia San Julián bataiatu eta bertan bost hilabeteko negu gogorri aurre egiteko prestatu ziren. Janaria oso eskasa zen ordurako eta marineler talde Espainiara itzultzeko eska-

tu egin ziren eta Elkano izendatu zuten kapitain. Magallanesek matxinada menperatu eta Quesada marineleri lepoa mozteko agindua eman zuen. Beste matxinatu guztiek barkamena jaso zuten, bidaia jarraitzeko beharrezkoak zirelako. San Juliánen bi hilabete zeramatzatela, lehendabiziko aldiz topatu zituzten bertako biztanleak: Antonio Pigafetta kronista italiarrak idatzi zuenez, gizaki erraldoiak ziren haiek eta Magallanesek -patagoi- izena eman zien. Handik etorriko zen Patagonia toponimoa. Ontziak abuztuaren itsasoratu ziren berriz, eta handik lasterrera Magallanesek itsastarte topatu zuen Ozeano Barera pasatzeko. Filipinetan hil zen kapitain portugaldarra, eta Elkano getariarrak osatu zuen munduari emanda-

duaren inguruko bigarren itzulia osatu zuen, baina beste helburu batekin nabigatu zuten Amerikako kostaldeak: espainoler ontziak hustu zituen eta lortutako urte, zilar eta harri bitxiak esker %4.700eko etekina lortu zuen bidaiak. Bere lau ontziek ere San Juliánen geldialdia egin zuten, eta Magallanesek eraikitako urkamendi bera erabili zuen Drakek marineler bat lepoa mozteko. Ohitura zortotza...

Handik aurrera, esploradore, merkataritza eta piraten ontzi gehienek San Julián badiara erabili zuten babeserako eta konponketarako -haien artean, Charles Darwin gaztea zeraman Beagle ontzia-. Pangea taldekook ere bi gau eman ditugu San Julián-ko itsasertzean; oraingoz, matxinadarik ez

## ► PATAGONIA GAINBEHERA ◀



Kontinenteetako  
sakantasanera bidaiaria

Ushuaian guztia da «munduaren amaierakoa»: denda, taberna, museoa, baita harategia ere. Topikoak, ordea, ez du emozioa ezabatzen: bidaiaria luze baten ondoren honaino iristen dena hunkitu egiten da bidearen bat-bateko bukaerarekin; bizkarrean dakarren bidaiaria osoa haragitu eta aurreneak zabalzen zaion hutsuneak zirrara sortzen dio. Izen mitikoen oihartzunak erakarri ditugure urratsak honaino –Magallanes itsasarte, Tierra del Fuego, Ushuaia–, baina guretzat magia hutsa diren lekuotan, egunero lan egiten dutenak topatu ditugu, biziminetan, Patagoniaren gainbeheran.



ARDIAK. Horien inguruan eratu zen Patagoniako bizimodua, baina amaitu dira garai haiek.

**P**atagoniako lautada amaigabea zeharkatu dugu Ushuariaraino iristeko. Mapamundiak maite dituztenen artean, makina bat amets ematu ditu 30.000 biztanledun hiri honek. Ushuaia azpimarratuta dago bidaiarientzat. Munduaren amaiera diren beste leku –ala desleku?– batzuk bezala: Nordkapp, Vladivostok, Finisterre, Katmandu, Tamarassat, Alice Springs... Ushuaian iltzatu ziren gure begiak, baina alhora ere begiratu nahi izan dugu. Eta Tierra del Fuegoan galten ari den mundu bat ikusi dugu.

Carlos Robaina, 44 urte, 80 ardi moztaileren nagusia da. Zuzentzen dituen zazpi koadrillak Patagonia osoan zehar ibiltzen dira, irailetik urtarrilera, 800.000 ardiren ilea moztzen. Robaina ehun kilotik gorako gizon puska da, irribarre leuna eta hitzak tinkoak dituena. Koadrudun alkandora jaz-

ten du artilezko txalekoaren azpitik, panazko galtza eta txapela beltza. Bizitza osoa eman du artilea moztzen, zamak kamioietan kargatzen, Patagonian zehar urtero 200.000 kilometro gidatzen... eta nabari zaio, bostekoa ematen duenean. Esku haragitsu eta indartsuak dauzka; hatzak, esparrago lodiak bezalakoak. Euskal Herriatik txapela bidaltzeko eskatu digu: neurria, 58koa.

Tierra de Fuegoko etxalde nagusienetakoan ari da orain lanean, Estancia Saran. Hemengo 63.000 hektareatan –Gipuzkoaren herena– 65.000 ardiak bazkaten dute, eta gu ere afaltzera gelditu gara, autobusa bertan utzita. Carlos gonbidatu dugu eta hark, ordainetan, Patagoniako paisaia ulertzen erakutsi digu.

Patagoniako bizimodua ardiaren inguruan eratu zen eta Robainak oso errotuta du, pasio biziz maite du: «Gazte-gaztetik hasi nintzen artilea moztzen eta orain oso harro

nago Patagoniako etxalde famatuenekin lan egiten dudalako: Estancia Sara, Estancia Maria Behety, Estancia Menendez Behety...». Izenak dastatu egiten ditu, mirespenaz ahoskatu. «Buruari mila buelta ematen dizkiot beti, eta ardlekin lan egiteko sistema erabat aldatu nuen; orain, Patagonia osoan eskatzen dituzte nire moztaille koadrillak, eta horrek zoriontsu egiten nau».

Biharamunean, Robainaren koadrilla jardunean ikusi dugu: egunero berdutzen ordu lana betetzen dute 3.000 ardiren ilea mozteko. Estancia Sarak, denera, 250 tona artile lortzen ditu. Baina etxaldeari petrolioak eman dio aberastasuna, jabeak hilero 60.000 dolar (1a 12 milloi pezeta) eskuratu baititu urte beltzari esker. «Ardiak ez du ia irabazirik ematen gaur egun», dio Robainak. «900.000 ardiak 500.000ora jaitxi gara Tierra de Fuegion bakarrik, eta okerragoa izan da Patagoniako beste eskualdeetan».

Ordu batzuk beranduago, horixe argitu digu Julio Mandrinik, Estancia San Martingo administratzaileak. Guretzat propio hil du arkuema bikaina, eta gu arkuema beste arkuema gaudela, Patagoniako etxalde batzua azaldu digu. «Lehen, 7.000 ardirekin aberastu egiten ziren lurjabeak: etxaldea Patagonian, etxe ederra Buenos Airesen, bi kotoxe atean, eskola garestienak umeentzat... Baina ardiak 30 peso balio zituen orduan eta orain 12 besterik ez; artileak 2,5 peso, orain peso bat». Salneurriak amiltzeaz gain, hainbeste urteko buzkar lurra zeharo onbre-tu zuen; 1991n Hudsok sumendi txiletarraren erabutsak milaka ardi hil eta lur sail oso zabalak hondatu zituen –Santa Cruz probintzian 450 etxalde ardiarik gabe gelditu ziren–, eta 1995eko elurte gogorrak biribildu zuen hondamena.

Mandrinik kudeatzen duen etxaldeak 8.000 ardi dauzka, baina 75 petrolio putzuk uzten diote dirutzat jabeart. Geroa beltza da, petrolioaren kolorekoa, baina Patagoniatik petrolio ateratzeko oso langile gutxi behar dira. Eta ondorioa argi ikusten du Carlos Robainak: «Lurtaldea hutsik dago. Gizakiak badoaz, pumak eta azteriak izango dira berriz Patagoniaren jabe».

## Ushuaia, presoek sortutako hiria

Argentinako agintariak, kontinentearen azken puntaren jabeagoa aldarrikatzeko, biztanleak eraman nahi zituzten Tierra del Fuegora, «Argentinako Siberia» ikaragarria. Hara joateko inor prest ez zegoenez, agintariak Ushuaia kartzela sortu zuten 1896an, presoak infemura bidali eta bertan kolonia sor zezaten.

Ushuaia kartzelan kondena gogorragoa zen thesa bertan irautea baino, eta iheslari gehienak egun bat edo bi beranduago itzultzen ziren gartzelara, hotzak edo goseak erdi hilda. Dena den, denboraldi luzeak ematen zituzten presoek kartzelatik kanpo. Izan ere, Ushuaia kolonia sortzeko, lanbideak irakasten zizkieten –igeltsero, arotz, nekazari, okin...– eta egunero espetxetik lanera ateratzen ziren, soldata baten truke. Kartzela-

ren ingurura biztanle libreak iristen hasi ziren Gobernuaren laguntzarekin –funtzionarioen familiak hasieran, merkatariek eta arrantzaleak ondoren...– eta presoek eraiki zituzten Ushuaia kolonien bidea –munduko australena–, errepidea eta etxe asko; basotik egurra atera zuten ushualiarren neguak epeltzeko, baratzak sortu zituzten, ogia eta esnea eraman zuten herrira, farmaziak eta shiltzaila zerbitzuak antolatu zituzten... HERRIA DEZENTE HANDITU ZEN, 1947an –gizabidezko arrazoiengatik– kartzela itxi zuten arte.

Gaur egun, espetxea museo bihurtu dute, eta aspaldiko istorioen bilduma gorde dute ziegatan, Cayetano Santos Godinorena, adibidez. *El petiso orejudo* («ipox belarri handia») goituzena zuen preso honek, eta hama-

bi urterekin su ematen zien Buenos Airesko etxe, biltegi, fabrika eta ahal zuen guztiari. Ondoren, haurrak urkatu eta betondoan iltzea sartzen zien. Hamasei urterekin atxilotu zutenen, Lombroso fisionomista eta kriminologo italiarraren teoriari jarraitu zituzten gaztearen portaera aztertzeke. Lombrosok zioenak, gorpuztaren formak –buzurreko koskak, adibidez– gizakion izaerakin lotuta daude. *Petiso orejudok* belarri oso handiak eta zakila oso luzea omen zuten, eta ebakuntza egin zioten belarriak normaltzeko –belarriak bakarrik–, horrela lasaituko zela-koan. Kondairak dio belarriak berriz hazi zitezizkiola. Eta egia da ebakuntzak ez zizkiola manki sendatu: 44 urte zituela, kartzela-ko maskota zuen katua akabatu eta beste presoek jipoiuta hil zen *Petiso orejudo*.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mixmail.com  
Ushuaia, Argentina

HEGO AMERIKA

LACUNA DEL CARBON  
105 m.




## ▶ ANDEEN MAGALEAN ◀



Kontinentetako  
sakontasunero bidaia

Amerikako eremurik sakonena Patagonia urrunean aurkitu eta gero, Ushuaiaraino jarraitu genuen hegoalderako bidaia.

Bertan bukatu zitzaizkigun errepidea eta kontinentea. Beraz, beste erremediorik ez: aste honetan iparralderantz jo dugu, zibilizaziorako bidean berriz ere. Baina etxerako itzulera ez dugu azkarregi egingo eta Andeen magalean galduko gara datozen asteotan. Hasteko, Paineke Dorreak, Perito Moreno glaziarra, eta Fitz Roy eta Cerro Torre gailurren inguruan izan gara.



PANGEA

GLAZIARRAK. Ura emateaz gain, turismo ugari erakartzen dute.

**P**atagoniak lautada amaigabea dirudi, baina mendealdeko ertzean, Txile eta Argentinako mugan, Andeekin topo egiten du. Horizontala bertikalekin lotzen den lurralde hauetan, zelaietatik altzatzen dira mendi beltzak eta tontor zorrotzak, bertan nahasten dira glaziar erraldoiak eta lakuak.

Ande patagonikoen ibilbidea Txileko aldean hasi dugu, Paineke Dorreen inguruan. Haritzko orratz hauen oinarria iristea ez da zaila -Joxemi eta biok arratsalde batean igo eta jaitsi gara-, baina gailurra zapaldu nahi duten eskalatzailerik hamaika komerria jasaten dute paretatik hauean. Laina, haize bortitzak eta eguraldi txarra izaten da ia egunero; gu hurbildu garenean, dorreen

silueta ozta-ozta ikusten zen hodeien artean, eta elur arina ere bota digu une batzuetan. Amaia, Eneko, Maialen, Susana eta Balentin ere dorreen oinarria heldu dira, baina Joxemi eta nirekin jaitsi ordez, gertuko atepean pasa dute gaua, biharamunean Paineke Adarren azpitik beste ibilaldi bat osatzeko.

### Glaziarra lehertzen

Asfaltoa ezezaguna da Patagoniako barrualdean, eta harrizko bideetan saltoka iritsi gara Perito Moreno glaziareraino. Ere mu honetan, izotz kontinentalak 37.000 kilometro karratu betetzen ditu -Euskal Herria bi aldiz- eta amaigabea eztabaida dute Txile eta Argentinak, mugaren marra izotzetan aurreraxeago edo atzeraxeago marrazteko. Ez da txantxetako gaia, glaziarrek ura

eman eta turismo ugari erakartzen dutelako. Gizakion kezkei arretarik eskaini gabe izotz masa erraldoi honen besoak mendien artean irristatzen dira, Txilera zein Argentinara, eta beso hauetako batek osatzen du Perito Moreno glaziar ospetsua.

Perito Moreno glaziarrek hamalau metro metroko luzera eta sei kilometroko zabalera du, eta Argentinako lakuaren gainean aurkitzen da, ehun metro urtero. Izotzeko partak 50-55 metroko garaiera dauka urazalaren gainetik, eta pixkanaka zeharkatzen du lakuak. Batzuetan -azkeneko aldian 1988an gertatu zen-, Perito Moreno glaziarrek laku beste ertzearaino zeharkatu eta Magallanes penintsularen kontra jotzen du. Orduan Argentinako lakuaren adarrak diren Brazo Rico eta Brazo Sur itxi egiten ditu, urtegi natural bat sortuz. Bi beso hauek ezin dute utz-lakuan hustu, glaziarrek bidea itxi dielako eta ondorioz, Brazo Rico eta Brazo Sureko uraren maila igo egiten da -Argentinako laku baina 32 metro gorago ere hazi izan da. Pilatutako uraren indarrak izotza zuluatu egiten du azkenik, eta glaziarren muturrak lehertu egiten da goitik behera.

Bi edo hiru egun ematen ditu glaziarren erorketa osoak eta halako ikuskizunak ren parekorik munduan topatzen zaila omen da. Hurrengo aldia noiz izango den ezin da asmatu: glaziarrek neguan aurrera eta udan atzera egiten du, ezin jakin lakuaren beste ertzearaino iritsiko ote den. Hala ere, Perito Morenok aho zabalik uzten ditu bisitariak egunero. Tebistan ikusi edo liburuetan irakurri badugu ere, ikaratu egin gaituzte gu autobusaren tamainako izotz puskek, glaziarretik askatu eta 50 metroko altueratik Argentinako lakura amildu direnean. Halak eztauden ondorioz, olatu erraldoiak altxa eta gizaki baten tamainako izotz espalategan abiatzen dira. Baimen berezirik gab gerturatzea debekatuta dago orain, baina 1968 eta 1988 artean 32 lagun hil ziren glaziarren oinean. Perito Morenoren hasieraldien ondorioz.

## Txokolata eskalatzailerentzat

San Sebastian eguna Patagoniako bide kaskar baten ertzean ospatu genuen, eskaladuraren balezta zulo gaizto batean hautsi eta gero. Josuk eta Balentinek autobusaren azpian zortzi orduz lanean jardun zuten, eta jotzen zituzten mailukaden eritimoan antolatua genuen danborrada. Umore ona nolabait zabaldu behar, bide ertzean ia egun osoa galdu baikenuen El Chalten herrixkara iristeko.

El Chaltenera peregrinazioan joaten dira mundu osoko eskalatzailerik, Fitz Roy, Cerro Torre eta inguruko paretatik mitikoak igotzeko asmoz. Peregrinazio horretan, bidea da penitentzia, Job santuaren pazientzia behar baita El Chaltenera doan infernuko pista 200 kilometro betetzeko. Eta pazientza garatzea ondo etorriko zaie eskalatzailerik, Patagoniako eguraldi gaiztoak denboraldi luze ez die-lako paretetara igotzen uzten. Esan digutenez, azaroen etorritako bi talde euskaldun inguruotan omen dabilta oraindik, gailu-

retara abiatzeko aukeraren zain. Baina Cerro Torretik gertu dagoen Agostini kamentura hurbildu garenean, ez ditugu topatu: Fitz Roy tontorra hodeirik gabe dago, azkeneko hilabete osoan lehenengo aldiz, eta eskalatzailerik guztiek ospa egin dute, hemengo aukerak oso urriak baitira. Eta igotzen hasiz gero, auskalo. El Chaltengo Josh Aike txokolategian, eskalatzailerik opari gisa utzitako kaskoan sinadurak eta ohar bat irakurri ditugu: «23 egun paretan zintzilik».

Josh Aike txokolategiko jabea, Anabel Machiñena, duela hamar urte iritsi zen hona, jaiotzen ari zen herrixkan negozioa jartzeko asmoz. El Chalten 1982an sortu zuen Gobernu argentinarrak: hemen ere, Txile eta Argentinara arteko muga ez dago marra sendoz ezarrita, eta bertan biztanle argentinarrak biltuz gero, lurralde hauen gaineko eskubidea sendotuko zuela iruditu zitzaion Buenos Airesko Gobernuari. Beraz, doaneko lurra banatu zituen, eta haiek

sail batean eraiki zuten Anabelek bere txokolategia, egurrezko etxetxo batean.

Herria hazi egin da -34 biztanle 250era-, eta tabernak, janari dendak, bidai-agentziak sortu dira, baina Anabel kezkatuta dago: «Turismoaren inguruko hamaitzako negozio zabaldu da, baina bisitari gutxi etortzen zaizkigu. Ezingo dugu denok irau, baina dintzak hobetzen ez badira: Gobernuak 20 kilometroko pista madaikatu hori hobet beharko luke, eraikinen itxura pixka bat zaindu... Edozeinek egin du adreiluzko hormigoizko txabola narrats bat nahi du lekuan eta herria itsusi samar gelditu da: El Chalten hutsetik sortutako herria zen eta ondo egiteko aukera galdu dute». Hala ere, mendi zorrotzen magalean altxa zuten, eta herrixkak badu bere xarma. Paseoan ibilgar bertatik eta ezustekoa topatu du Pangea izeneko taberna. Hantxe gelditzea tentazioa etorri zaigu... Edozer gauza paretatik ez itzultzeko.

ANDER IZAGIRRE  
pangeo2000@mxmail.com  
El Chalten, Argentina

HEGO AMERIKA

LAGUNA DEL CARBÓN  
-105 m.



## Pangea

Kontinenteetako  
sakontasunera bidaiatu

Ande  
patagonikoetako  
txokoak miatzen  
eman dugu aste hau  
ere. Suitzako geneak  
Patagonian landatu  
eta herri alpino eder  
bat nola jaio zen ikusi  
dugu San Carlos de  
Bariloche. Handik  
gertu, paradisu  
desberdin bat sortu  
zuten El Bolsonen:  
duela berrogei urte,  
hippien babesleku  
bihurtu zen herrixka  
isolatu hau, eta  
orduko hippiek hippi  
izaten jarraitzen dute  
gaur egun.

Aiton-amonduta  
daude asko, baina  
haien ilobek bizirik  
eusten diote  
hirugarren belaunaldi  
hippiari.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mizmail.com  
San Carlos de Bariloche, Argentina

HEGO AMERIKA

LAGUNA DEL CARBON  
105 m.

# ► TXOKOLATEA ETA BESTELAKO BELARRAK ◀



SAN CARLOS DE BARILOCHE. «Argentinako Suitza» izenez ezagutzen dute herri hau.

Postaletan agertzeko orraztu berri den herria ematen du San Carlos de Bariloche. Nahuel Huapi lakuaren ertzean eta mendik elurtuen magalean. «Argentinako Suitza» bataiatu dute Bariloche, eta ez da alferrikako topiko: XX. mendearen hasieran, etorkin suitzarrak, austriarrak, alemaniarak eta italiarrak iritsi ziren bertara, paisaiak Alpeetako sorterrira gogoratzen zielako seguruenik.

Turistak erakartzeko irudi aproposa omen zen Suitzarena, eta kontu handiz zaindu zuten bertako biztanleek: herriko plaza nagusia Bernakoaren imitazioa da, eta Suitzako hiriburuaren bezala, harrizko dorre erlojudun bat nagusi da. Hemen ere, kanpaiek orduak jotzen dituztenean, leihatila bat ireki eta egurrezko irudiak bueltaka hasten dira desfileen. Irudiek, gutxienez, Patagoniako historiaren zerikusia badute: indigenak,

misolariak, soldaduak, kolono nekazariak... Turistak orduo biltzen dira desfile honi argazkiak ateratzeko, eta ordutik ordura badute argazki tipikorako beste aitzakiarik: plaza honetan bertan, bi edo hiru San Bernardo zakur ibiltzen dira, kupeltxoak lepotik zintzilik dituztela.

Plaza utzi eta herriko kale nagusian sartu gara. Agintariek baldintza zehatzak jarri zizkieten erdialdeko eraikinei, arkitektura munduan ospetsua den «Bariloche estilo» zaindu zezaten: arkitektura patagonikoa eta alpinoa nahastuz, etxeak harrizkoak dira, balkoiak egurrezkoak eta teilatu zorrotzak arbel beltzezkoak. Hala ere, pisu askotako eraikin itsusi askoak hazi dira erdigune honetan, eta baimena nola lortu zuten pentsatzerakoan susmo txarrak pizten dira.

Susmoak baino, desio gozoak pizten dira Barilocheko kaleak inbaditzen dituen txokolate usainarekin. Suitzako etorkin batzuk txokolategintza ekarri zuten Patagoniara, eta

Argentinako txokolaterik famatuena Barilocheko eltezetan egosten da. Ez dute publizitatekerik behar: herriko airea loditu egiten da txokolatearen lurrunarekin eta gure urriak zuku gastrikoak jarriaten hasi dira. Ezin eutsi; txokolatearen megadendan sartu gara, katilukadak edan eta txurroak bustitzeko.

Megadenda honetan guztia da txokolatezkoa, haurtzaroko —eta ez hain haurtzaroko— fantasietan bezala: pastelak, galletak, bizkotxoak, pilulak, txokolatezko etxeko eta herrikoak, mendiak, zuhaitzak, loreak, animalak... Hemen, txokolateak atomoa ordekatu du unibertsuaren oinarri bezala.

### Bestelako belarrak

Unibertsuaren oinarria beste era batekoa da El Bolson herrixkan. 1960 inguruan, Andean aitzako bailara honetan nekazari gutxi batzuk bizi ziren, isolaturik: leku aproposa paradisu hippi bat sortzeko. Argentinako hippi ugari El Bolsona emigratu zuten mundu materialista atzean utzita, bakea eta maitasunaren bila. Hemen, Bariloche bezala, txokolatea dastatzen da, baina beste belar klase batzuk ere. Orandik ere hippien eragina oso handia da herriaren bizimoduaren, herritarren janzkera eta ohituretan. Artearen eta kulturaren inguruan ekitaldi ugari antolatzen dituzte —kontzertuak, erakusketak, errezitalak, antzerki lanak— eta biztanle asko artzaintzan aritzen dira. El Bolsongo azokako postuetan ikusi ditugu egurrezko eta larzuko objektuak, janari makrobiotikoak, belar aromatikokoak, ehunak, jabolak, panpinak, belarritakoak... Guretzat deigarriena, hala ere, saltzaileak berak: orain dela hogeita hamar edo berrogei urte hona iritsi ziren hippiak, bizardunak eta txima lusedunak, kopetan zinta lotuta eta lepotik medailoiak zintzilik, loreduen alkandorak eta koloretako galtzak jantzita... eta eskuik helduta, seme-alaba edota ilobatxo hippi berriak.

Hippiek beren bidea bilatu zuten bezala, pangeakideok ere bidagurutzetara iristen hasi gara: Joxemi, Eneko eta Amaia lanera itzuli ziren; orain, Susana Mendozarantz abiatu da, Aconcagua mendia (Amerikako garaiena, 6.959 metro) igotzeko asmoz, eta egun batzuk barru harekin elkartuko dira Josu eta Marijo. Besteok, pixkanaka hasi gara etxerako itzulera prestatzen: hiru kontinentetako oroimenak dauzkagu maletan, eta horiek hustu ahal, lekua egingo diegu falta zaizkigun beste hiru kontinentei buruzko asmoei.

## Hatza gora Patagonian

Argentinaren zatirik handiena, Patagonia, argentinarr gehienentzat ezezaguna ere bada. Horregatik, uda australcan gazte asko Patagoniarantz abiatzen da autostop eginez. Andrés eta Cintia autobusean eramán ditugu eta, kontatu digutenez, neska-mutil bikoteak errazago hartzen dituzte beste autostopistak baino. Horregatik, komenentziazko bikoteak osatzen omen dira, baina Andesek eta Cintiak zin egin digute berarek benetako bikote direla. Ez diegu paperik eskatu.

Motxiladun hauek, Rosariotik datozen Nicolásek eta Antonellak adibidez, Argentinaren erradiografia pessimista egin digute. Nicolásek Psikologia ikasten du eta Antonellak, Zientzia Politikokoak. Lau urte

falta zaizkie ikasketak amaitzeko, baina argi daukate lan bila Espainiara joan nahi dutela: «Argentinan ez dugu etorkizunik. Lanik ez dago, soldadak negugarriak dira eta politikoak luxuzko munduan bizi dira, herria ahaztuta. Ustelkeria eta lapurreta besterik ez dago, baina ez goiko politikariren artean bakarrik, gizarte osoan bai:zik: polizia sobornoak eskatzen dituzte, enpresariak ez dute araurik errespetatzen, hiritar guztiak zergak ez ordaintzen satiatzen dira... Ikasleek ere, Europara ikasbilketan doazenean, ahal duten guztia lapurtzen dute eta orain inork ez ditu argentinarrak hoteletan hartu nahi. Argentina lapurren herrialdea da».

Leo (20 urte) eta Juanjo (21) Córdoba-

koak dira. Leok Filosofia bere kabuz ikasten du, herriko liburutegian liburuak eskatuz, ikasketak ordaintzeko dirurik ez daukalako. Juanjo txirindulari ibili zen: 19 urte zituela Espainiara alde egiteko zorian egon zen txirindulari profesionala izateko ahalegintan, baina azken orduan izorratu zuzuzko asmoak. Oran, okindegi batean lan egiten du egunero hamar ordutik, astean zazpi eginez. Inlekan 250 peso (15.000 pezetan inguru) irabazteko.

Patagoniako bidet ertzetan, hatz potoloa altxatu egoten dira garratxo eske. Baina Argentinako gazteen egoerari buruz galdetzen zaigun, hatz potolo hori behera begira jartzen dute, Eromak zirkuan bezala.



Kontinentetako  
sakontasunera bidaia

*Mila bederatzirehun ta  
lenengo urtean,  
maiatzaren hamalau  
garren egunian, Orioko  
herriko barraren  
aurrian, balia agertu  
zan beztik aldian.*

Euskal Herrian azkeneko balea ikusi zenetik ehun urte pasa direnean, gure bizitzan lehenengo aldiz ikusi dugu balea, gertu-gertutik eta denbora luzez. 2001eko urtarrila hasieran, Argentinako Valdés penintsulan Hego Amerikako sakonune baxuenetako bilatzen ari ginela, bertan biltzen diren baleak, pinguinoak eta itsas elefante eta lehoiak ikusteko aukera aprobeztatu genuen.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mixmail.com  
Puerto Piramide, Argentina

## HEGO AMERIKA

LAGUNA DEL CARBON  
-105 m.



# ► BALEA AGERTU ZEN EGUERDI ALDEAN ◀



PANGEA

**BALEA.** Berandu zebiltzala uste arren, Pangeakoek bertatik bertara ikusi zituzten baleak.

**V**aldés penintsulara 2001eko urtarrilaren lehen iritsi ginen, eta espero genuen berria eman ziguten Puerto Piramideko kaian: «Baleak ikusteko berandu zatozte, ospa egin dute denek». Izan ere, balea australak maiztasun handian iristen dira Valdés penintsulako kostaldera, irailla-urrian biltzen dira gehienak, eta abenduaren erdialderako denek migratu dute hegoalderantz.

Valdés penintsulan, gure helburua Salinas Grandesko depresioa zen (-42 metro), baina lurralde honi mundu osoan ospa eman dion fauna ere ezagutu nahi genuen: pinguinoak, itsas elefante eta lehoiak... Bage-nekien berandu genbiltzala baleak ikusteko, baina urtarrilaren bigarren goizean sorpresa galantarekin esnatu ginen. Balcengana

hurbiltzeko itsasontzi bidaia antolatzen zituen emakumea korrika etorri zen gugga-na: ontzitik irratiz deitu omen zioten, kostaldetik gertu hiru balea ikusi omen zituztelako, eta eguerdian ezusteko irteera antolatu zutela esan zigun. Izena eman genuen, noski.

Peke Sosa ontzian hogei minutuko bidaia egin genuen baleak begien aurrean izateko, eta azkar uxatu genituen pangeakidoren baten susmoak: enpresak ez zituen gomazko baleak uretara bota turistak erakartzeko... bene-benetakoak ziren baleak. Benetakoak eta telebistan ikasi duguna baino handiagoak, gertutik ikusita hotzikara emateko modukoak. Hasieran bizkar beltz baten distira antzeman genuen urazalean, urrutian, eta gero beste bi askoz ere gertu-go: ama eta kumea.

Argentinako Gobernuak Monumentu Natural izendatu zuen balea australa -baleci inork esan ez badie ere- eta babestua dago itsasoko ugaztun urri hau. Aspaldian ehun mila bazirela kalkulatu zuten zientzialariek, baina balea australaren betiko lasaitasunak eta patxadak kaltea besterik ez zion ekarri: erraza zen ehizatzeo eta, gainera, oso estimatuak ziren bere olioak eta bizarrak. Ondorioz, gaur egun hiru edo lau mila besterik ez dira gelditzen.

Hauetako bi igerian zebiltzan ontzitik oso gertu, gero eta gertuago konfiantza hartu ahala. Ordubetek pasa zenean, ia eskura geneuzkan munduko animaliarik handienetakoak: balea austral batzuk 16 metroko luzera eta 54 tonako pisua izatera heltzen dira. Harri itxurako kostra zuriak dauzka buruan eta begien gainean, eta arnasa hartzeko zulotik airea eta zipriztirak botatzen ditu bi edo hiru metrora, V forman.

Ontziko kapitainak azalpenak ematen zizkigun aldiro: «Begira, kumea amari esnea hartzen ari zaio orain. 200-250 litro esne edaten ditu egunero». Esne horrek koipe ugari du, eta hari esker baleakumeak ur hotzei aurre egiten die eta egunero 3,5 zentimetro hazten da. Balea helduek ez dute pieza handirik ahoratzen, baina egunero tona bat krill irensten dute: oskoldun fimiñoak etengabeko aperitiborako.

Balearen ikuskizunak aho zaballik utzi ginetuen, eta hala jarraitu genuen Valdés penintsularen inguruan emandako buelta osoan. Itsas lehoiak ikusi genituen hondartzetan: arrak borrokan ari ziren emeak lortzeko, bularra bularren kontra, orroka... Galtzaileak bizkarra erakusten zion irabazleari, eta bitartean kaioak zain zeuden, borroka haue-tan arrunta izaten baita ar handi bat kume txiki baten gainean erortzea: kumea zapal-duta hil eta hondartzan lehertuta gelditzen da, kaioen bazka. Itsas elefanteak lasaia-go zeuden, hondartzan seko etzanda, eta milaka pinguinoren desfileak ere adi-adi jarraitu genituen.

Azkenik, aho zabala behingoz itxeko, bale-en dieta guretzat hartu genuen: oskoldunak plantzan. Rawson herriko kaian Argentinako historiako langostino arrantza oparoen-a jasotzen ari ziren. Itsasontziak lehertzar-sartzen ziren Rawsona, bakoitza 5.000 kilo langostinoz kargatuta, eta kaira iritsi ahala erosi genituen kilokada batzuk (kiloa 700 pezetan!). Gauean, gatzak ezpainak zartatu zizkigun arte afaldu genituen langosti-noak, Orioko balearen ohoretan.

## Euskaldunak sakonuneetan

Argentinan, edozein ate joz gero euskaldun-  
nen ondorengo bat agertuko da. Bisitatu  
ditugun depresioetan, beste horrenbeste:  
Pangea bidaiaren hirugarren atal honetan,  
Amerikako eremurik sakonena -eta ezeza-  
gunena- topatu genuen Gran Bajo de San  
Julián inguruan (-105 metro), eta lursail  
haren jabeak, Margarita Egiluz Mendietak  
guraso euskaldunak zituen. Mapa eta atlas  
gehienean Valdés penintsulako Salinas Gran-  
desen (-42 metro) kokatzen dute Hego  
Amerikako punturik baxuena, arrazoirik  
gabe. Dena den, hango sakonunera jo eta  
bertan ere euskaldunak aurkitu genituen.

kalduna hementxe jaio zen, 1927an», esan  
zigun bertako gizonak. Handik gertu, Estan-  
cia Elenaren jabeak -March abizeneko  
argentinar-kataluniar batek- azaldu zigun  
Valdés penintsulako lehenengo kolonoak  
Leon ingurukoak eta euskaldunak izan zire-  
la, XX. mendearen hasieran. Valdés penin-  
tsulako lurren jabeak gaur egun zein diren  
bilatu eta zerrendan hauek topatu geni-  
tuen: Alberdi, Arbeleteche, Betelu, Bezu-  
nartea, Daguerre, Echave, Eliceche, Elis-  
salde, Errosarena, Gabilondo, Iriarte, Jau-  
regui, Lasarte, Machinea, Mariezurrena,  
Mendioroz, Olazabal, Tolosa, Urtasun eta

baleen hotsak apertzen dituen biologo  
argentinarra topatu genituen, baina Valdés  
penintsulako bitanleek oso bestelako lanak  
egiten zituzten aspaldian: «Oso lurralde-  
lehona eta antzua da hau», esan zigun Mar-  
chek. «Kolonoek premia larria zuten ura  
bilatzeko eta putzuak asko sakondu behar  
zituzten. Lan horietan famatu ziren eus-  
kaldunak: 200 metroko sakoneraraino pu-  
tzuak zabaldtu zituzten, eskuz, jo ta ke, eskai-  
leretan behera, gerritik lotutako soka emak-  
teak goitik heltzen zela. Nire osaba,  
Leongoa, putzu baten barruan hil zen, ehun  
metroko sakoneran». Kontinentetako ere



Kontinenteetako  
 sakontasunerako bidaia

Hego Amerikako bidaia Iguazuko urjauzietan hasi genuen pangeakideok. Puerto Iguazuko hilerrian zera irakur daiteke hilobi apal batean: «Guillermo Larregi, el vasco de la carretilla». Eta heriotzaren data: 1964ko ekainaren 4a. Iguazuko hilobi hartan datzan euskaldunak Argentina osoan sonatua izan zen balentria bete zuen 1935 inguruan: apustu baten ondorioz, Larregik 2.500 kilometroko ibilbidea bete zuen oinez, ehun kiloko eskorga bati bultzaka. Euskaldunek egoskor fama zuten, eta halaxe azpimarratu zuen orduko *Critica* egunkari argentinarrak: «Bizilagunek bazekiten Larregi euskalduna zela... baina ez hainbeste!».

ANDER IZAGIRRE  
 pangea2000@mlxmail.com

HEGO AMERIKA

LAGUNA DEL CARBÓN  
 -105 m.



## ► BAZEKITEN EUSKALDUNA ZELA... BAINA EZ HAINBESTE ◀



PLAZA. Comandante Piedrabuena Larreategiren izena jarri zioten herriko plaza bati.

Iguazuko parkean, bidexka baten ertzean, etxola zahar baten arrastoak ikusten dira. Urtean milaka turista pasatzen dira handik, baina inork gutxi ezagutzen du etxolaren istorioa: bertan agortu zituen bere azkeneko egunak Guillermo Larregi euskaldunak, garal batean *El vasco de la carretilla* izenordearekin Argentina osoan ospetsu egin zenak. Argentina goitik behera ibili ondoren, Iguazuko ur-jauziek liluratu zuten eta porlanez betetako pintura poteak erabiliz, etxola hura eraiki zuen parkearen barruan. Hantxe hil zen, 81 urte zituela. Bagenuen hari bat eta tira egin genion, *eskorjaren euskaldunaren* istorioa aurkitu arte. Puzzlea osatzeko, Patricia Halvorsenek Buenos Airesen argitaratu berri duen *El vasco de la carretilla. Una historia patagónica real* liburuan irakurritakoak, Ascensio Abejón kazetariak idatzitakoak eta Iguazuko parkeazainek kontatutakoak bildu ditugu.

Guillermo Larregi Iruñean jaiotzen 1883an. Bere bizitzako lehenengo 52 urteetan zer egin zuen ez dakigu, baina 1935ean Argentinako Patagonian zebilen, Ultramar petrolio plantan lanean. Urte hartan, Gobernua petrolio planta itxiarazi egin zuen eta langileak, Larregi tartean, kale gorrian gelditu ziren.

Aspaldi desagertutako *Critica* egunkariak zioenez, langabetuen arteko solasaldian sortu zen Larregi famatuko zuen apustua: sua-



Guillermo Larregi orgarekin.

ren inguruan. «Makina modernoak erabilizteak meritu handia du —esan zuen Larregik—, baina horrelako abenturek ez dute indar fisikorik behar. Auto gidari eta abladore jaun horiei desafio egingo nieke, ezetz oinez Iritsi Patagoniako zoko honetatik Buenos Aireseraino, ehun kiloko eskorga batekin».

Lankideek adarra jo zioten, bera horretarako gal ez zela esanez: «Halakoak esanda andaluzar dirudizu, uste genuen euskaldunak ez zutela gezurrik esaten». Solasaldia-

Guillermo Larregiren egoskortasunak euskaldunen inguruko topikoak indartzen egin zituen. Argentinan, burugogorrei «sos un vasco» esaten zaie —euskaldun hutsa zara—. Ascensio Abejón kazetariak euskaldun inguruko beste esaterik argentinarrak batzuk bildu zituen, gehienak euskaldunek izaten zituzten lanbideekin zerikusia dutenak.

Pampa eta Patagoniako lautada amatezinetan hesiak jarzeten oso tebeak omen ziren, eta ohikoa zen euskaldunak pauso luzeak ematen ikustea. Halaxe kaleratu-

brador- esaten zioten. Abejónnek kontatzen duenez, bere haurtzaroko irakasle batek, umeak zarata bizian ari zirenean, ikasgelak «fonda de vasos lecheros» ematen zuela esaten zien. «Patagoniak asko zor die euskaldunei —idatzi zuen Abejónnek—, haien eragin nabarmena frogatzeko edozein herritako abizenen zerrenda begiratu besterik ez dago... luzeak eta ulergaitzak diren abizen horiek: Aortasagasti, Pagasaurtundua, Aginezabala...».

Gaur egun, abizen zailekin eta beste topiko batzuekin ere lotzen dituzte eus-

ren berotasunean, apustua zelaztu egin zuten. Sandalio Alvarez arotzak egurrezko kajo bat orga moduan moldatu eta Larregik bertan sartu zituen sukaldeko tresnak, erremintak, arropak... lotarako denda bezala erabiliko zuen estalki batekin itxi kajoia eta hantxe abiatu zen, 1935eko martxoak 25, bere ehun kiloko etxe berriari bultzaka.

*Critica*k halaxe deskribatu zuen abenturazalea: «Guillermo Larregi 52 urteko euskaldun isila da. Abarkak janzen ditu, panazko galtzak eta jaka, zapia lepoan... eta buruan txapela, noski. Martxoak 25, goizeko 9etan, Comandante Luis Piedrabuena herritik abiatu zen Buenos Airesa bidean. Piedrabuena herritarrek bazekiten Larregi euskalduna zela... baina ez hainbeste!».

### Jainkoa euskalduna da

Errokanaren berria Argentina osoan zabalduta zen, emigrante euskaldunen artean batez ere. Herrietako sarreran bere zain egoten ziren ongietorria emateko eta orgaren estalkin milaka sinadura idatzi zizkieten Larregiri. Egunkariak haren berri ematen zuten: «Gaur iritsiko da euskalduna gure herrira». «31 oinetako pare erabili ditu»... Avellaneda hirian, helmugatik gertu, Miguel Angel Martíncorenari, *La Libertad* egunkariako idazkariak, ideia bitxia izan zuen: hiriko kale nagusian erakusleho batean sartu zituen Larregi eta orga famatua, ikusgai.

Buenos Airesen sekulako harrera egin zioten: jendetza bildu zen kalean azkeneko pausoak bertatik ikusteko, eta krabelinez bete omen zituen orgatxoak. Patagoniatik irten eta hamalau hilabete geroago, 2.000 kilometro ibili ondoren, Guillermo Larregi Plaza de Mayor iritsi zen eta bertako Piramidearen azpian utzi zituen jasotako krabelin guztiak, bere bigarren herrialdea zen Argentinari eskerrak emateko.

Oraingo kirolariet bezala, orduan hasi zitzaion bidaiarik astunena Larregi izan zen. egunkariak ibili zen elkarriketak eskaintzen eta ordukoak dira bere hitz maitasuenetakoak. «Bidean jende jatorra topatu dut, baina gehienetan ez dut laguntzarik jaso. Herrietan aurkitzen nituen euskaldunak erosten nien esnea eta hori ere kobratu egiten zidaten... Euskal elkarteen laguntza banu, New Yorkeraino edota Alaskaraino jarraituko nuke, baina ez dut sosik: 16 pesorekin heldu naiz Buenos Airesera».

Hala ere, Ascensio Abejón kazetariak Larregik jasotako laguntzak aipatzen ditu: Bahía Blanca hiriko Kirol Elkartek 7.000 peso eman zizkion eta Olavarría hiriko euskaldun esnezale aberatsek 15.000 peso bildu omen zituzten berarentzat. Bestelako laguntza bitxiak ere izan ziren: César eta Pepe Ratti anaiei antzerki konpaniak antzezlan bat sortu zuen Larregiren abenturatan oinarrituta, euskaldunarentzat dirua biltzeko asmoz. Antzezlanaren izenburua: «*Te juro que Dios es vasco!*».

Beste hiru ibilbide ere osatu zituen Larregik orga bati bultzaka. 1936an, Coronel Pringles herritik La Quiaca-raino (4.405 kilometro); 1941ean, Villa Mariatik Txileko Santiagora (2.018 km.); eta 1944an, 61 urte zuzkara, Trenque Lauquenetik Iguazu-ra.

Iguazuko basoan, orduko turista urteak utzitako zaborrak jaso eta zauritutako animaliak sendatzen igaro zituen bizitzako azken urteak. Comandante Piedrabuena, lehenengo bidaia hasi zuen herrian, Guillermo Larregiren izena eman zituen plaza bati 1987an. Orduan esan zuten bezala, «*Te juro que Dios es vasco!*».




Kontinentetako  
sakontasunera bidaia

Duela 40 urte, Javier Iriondo Australiara abiatu zen maleta bat hartuta, eta emigrante euskaldun gehienak bezala, tropiko aldean azukre-kanabera mozten hasi zen. Hurrengo urteetan tabako hostoak bildu, basoan pinua eta eukalipto atera, kamioi gidari bezala 1.200.000 kilometro bete eta itsasoko gas plataforma batean lanean aritu zen.

Pangeakideok Australian astebete generamala, Javier Iriondoren etxera iritsi ginen, Victoria estatuko Glengarry herrian. Gure furgoneta txikiari erremolke bat jartzen lagundu behar zigun, eta huraxe izan zen aitzakia bere etxean bi egun pasatzeko, mahaiaren inguruan kontu-kontari. Javier kontalari fina da, eta maleta bete istorio erakutsi zigun.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mixmail.com

## ► JAVIER IRIONDO, 40 URTE AUSTRALIAN ◀



PANGEA

GLENGARRYN. Ordu mordoxka eman zuten kontu-kontari pangeakideek Iriondoren etxean.

**M**ila bederatzehun eta berrogeita hamabost urte inguruan, Australia hutsik zegoen oraindik ere hala dago eta mundu osoko langileak behar zituen kontinentea betetzeko. Australiaren deiak oihartzun handia izan zuen Euskal Herrian eta gazte asko antipodarantz ontziratu ziren. Horren asmotan zebilen Javier Iriondo, 19 urte zituela. Legorretako Domingotegi baserrian jaio zen Javier 1940an eta etxean hamahiru anai-arreba ziren; anaia Dionisiok 1958an hartu zuen Australiarako bidea -30 egun itsasoz-.

Baina emigratioak kezka sortu zuen herri askotan eta Legorretako apaizarentzat infernuaren sukurtsala zen Australia: «Hara doazenez oihanean lan egiten dute, erdi biotzik tximuak bezala, pizti pozoitsuen artean, ez dakite zein egunetan bizirik diren ere...».

«Apaizak Australiaren kontra botatzen zituen sermoi haiek emigratzeko gogoia gehiago piztu zidaten», kontatu zigun Javierrek. «1960an, anakak biajerako dirua bidali zidan Australiatik. Emigratzeko asmoa nuela jakin zuen apaizak eta aitarengana etorri zen, baratzera: «Beste seme bat Australiara joango zaizula esan didate». «Bai,

hango huraxe da, Javier'. 'Eta ez al dakizu Australiako sugeak gizon bat osorik irensteko gai direla?' Aitak, erantzun aurretik, goitik behera begiratu zuen apaizaren sotana: 'Berorrek ba al daki suge gaiztoenek zein kolore duten? Beltza!'.

Legorretako apaizak hanka egin zuen haserre eta Javierrek hegazkina hartu zuen Brisbaneraino: «Abioia hartu zutenen lehenengoetakoa izan nintzen, 1960ko maiatzean». Australia zapaldu eta berehala joan zen azukre-kanabera moztora, Javierrek ederki gogoratzen du lanean hasi zeneko eguna: «Azukre-kanabera ekainetik aurrera mozten zen, baina ekainaren 16an Ingalaterrako Erreginarean urtebetetzea ospatzen zuten Australian. Ordaindutako jai eguna zen hura, eta nagusiek ez ziguten opor egun bat ordaindu nahi. Horregatik, ekainaren 17an kontratatzen zituzten langileak eta ni neuz 1960ko ekainaren 17an hasi nintzen Australian kana moztora».

Euskaldunekin batera, italiarrak, alemanak, serbiarrak, kroaziarak eta beste hamaiak herrialdetako langileak aritzen ziren azukre-kanabera moztan. Hasierako sei hilabeteetan, Javier Iriondo 1.700 tona kanabera moztu zituen eta, irabazitakoarekin, anaia Dionisiori bidai-dirua itzuli zion. Etxera

itzultzeko adina diru ere bazuen, baina Euskal Herria lehenengo bisita egin zuenerako 16 urte iguro ziren: «Euskal Herrian hilabete pasaz gero soldaduska egin behar nuen; horrexegatik ez nintzen 1976 arte etxera itzuli».

Javierrek kanabera mozten zuen, eta azukre garaiari amaitzen zenean tabako bilketan aritzen zen. Baina 1963an lana bukatu zitzaion, azukre-kanabera mozteko makinak sartu zituztenean, eta Victoria estatura alde egiteko erabakia hartu zuen. Bi urtez basoan lanean jardun zuen, pinuak eta eukaliptoak ateratzen, eta diru nahikoa bildu zuenean, kamioia erosi eta egurrta gartaiatzen hasi zen.

**Azukrez estalitako herria**  
Javierrek 31 urte zituen. 16 urteko Marijose Ulibarri ezagutu zuen Melbourneko Hurrengo urtean ezkondu ziren. Conlocos herriak asturiarean jaio zen Marijose -aita bizkaitarra zuen- eta bost urte zituela iritsi zuen Australiara, non zegoen ondo ulertu gabe: «Iritsi berritan hondartzara joan nintzen amarekin», kontatu zigun Marijosek. «Baina ez zidan bainatzen utzi eguraldi txarra genuelako. Orduan, haserretu, negarrez hasi eta amari garrasi egin nion: 'Confocoserá noal', eta korrika hasi nintzen itsasertetik». Urte batzuk beranduago, Bizkaitarra bisitan itzuli zirenean, Marijose neska harrituak paisaia zuri-zuri ikusi zuen goiz batez. Australian ez zuen inoiz elurrrik ikusi eta presaka joan zitzaion amona bizkaitararengana: «Begara, amona, azukrez estalita dago herria!».

Haien etxean izan ginenean, bapoa jaten eta Javierren abenturak entzuten pasa ginen ia bi egun. Bazkaldotan, Javierrek zigarrak bildu eta emigratioaren istorioak -barregarriak batzuetan, gogorrik bestetan- zehatzten zizkigun. Kontalari fina da Javier, mantso hitz egiten eta etenaldiak egiten dakiena. Memoria ikaragarria du -duela 28 urte ezagutu nuen Tasmania; ostegun batez iritsi nintzen bertan hiru egun pasatzeko...- eta pangeakideon herrietako bakoiko asko geuk baino hobeto ezagutzen dituzte: erretiratu zenetik maizago bisitatzen du Euskal Herria eta zehetasunik tipien memoria gabetzen zaio. Legorretatik inoiz atera ez balitz bezala egiten du euskaraz, ingelesezko hitzik edo esaserrik erantsi gabe: Ordiziako ferian norbaitek topatuko bahu, ezingo luke asmatu Javierrek Australian 40 urte pasa dituenik. Bere ateraldi selebretuen algaraka edo emigranteen istorio latzenekin ezarria korapilatuta, orduak eman gaituen belarrikak tente-tente. Bitartean, Marijosek sukaldetik atekoak ekartzen zituen etengabe, eta halaxe lotu gaituen, bata bestearen atzetik lekuzaldu eta menedak, alaiak eta gosarik, hamuketakoak eta berriz ere bazkariak.

Javierrek eta Marijosek semea eta alaba dituzte. Izan, brokinkak ikasi eta Estatu Inoian lanean aritzen da, Jose Javier sukaldaria. Bigarren egunetan Jose Javier zigurtatu gaituen, eta bere artean pasatu ginen orduko zeharretatik. Hala ikasi gaituen emigranteentzat kontinentea atzera zera hurrengo belaunaldiarentzat mundu berrira itzuli dela. «Begara», esan zigun Jose Javierrek gaztearek, «eta erretiratu dago eta hala ere lanean joan ke jarraitzen du, baina

## Australiako azukre garratza

William Douglass ikerlaria Renoko (Nevada, Estatu Batuak) Basque Studies Centerren arima izan da, eta Australiara azukre-kanabera moztora emigratu zuten italiar eta euskaldunen historiari buruz liburu bat argitaratu zuen, *Azúcar amargo* izenburupean. Pangea bidaiaren lehenengo iturritan, Ipar Amerikan, Douglass elkarrizketatzeko aukera izan genuen, eta Australian, Javier Iriondoren istorioa frogatu ziguten Australiako azukre garratza izan zela askorentzat. «Oso lan gogorra zen -kontatu zigun Javierrek-. Lehenaldiz kanabera moztu, gero puntak moztu, kanabera lepo-

tsetan ibiltzen ginen, eta kanaberari erortzen zitzaion hautsak goitik behera belztuta uzten gintuen, aborigenak bagina bezala. Eguerdian atsedena hartu eta te hotza edaten genuen. Atsedendian, aihotza lurtuan zutik sartu behar izaten genuen: etzanda utziz gero, lurraren beroak goritu egiten zuen eta aihotza berriz hartzerakoan eskua erretzen zizun».

Koadrilla osoak egindako lanaren arabera ordaintzen zuten ugazabek: hainbat tona moztu, hainbeste diru irabazi, Javierrek dioenez, «horrek haserreak sortzen zituen, koadrilla batzuk besteak baino

batzen nituen. Igeltseroek 36 libra irabazteko bi asteko lana behar zuten. Gure nagusiak hamabosten behin sobietan banatzen zizkigun billete herri-benak eta lisatuak. Faktura zehatza ere ematen zizun: hainbeste ordiko lana, hainbeste tona moztuta, hainbeste soldata... eta bukaeran 42 libra kentzen zizkiguten. Italiar batek muturrituta galdetu zion ugazabari ea zergatik falta ziren 42 libra horiek. «Robert Menziesek kentzen dizkizu», erantzun zion ugazabak. Menzies Australiako lehen ministroa zen, eta 42 librak kentzea hura zergeri zegokien. Egun hartan, Italiarra handik eta heneandik

## ▶ ABORIGENAK, AUSTRALIAREN KONTZIENTZIA TXARRA ◀

### Pangea

Kontinentetako sakontasunera bidaia

Australiak 49,11 segundotan lasaitu zuen bere kontzientzia. Denbora horretan, Cathy Freeman aborigenak 400 metro korrika bete eta urrezko domina eskuratu zuen Sydneyko estadio olinpikoan. Egun batzuk lehenago, Australiako aborigenen buruetako batek, Charles Perkinsek salaketa gogorra plazaratu zuen: «Hegoafrika zaharra baino arrazistagoa da Australia». Aborigenen kexuak australiarren erakusleho olinpikoa zikintzen zuten, baina hain zuzen ere atleta aborigen batek lortu zuen ehungarren urrezko domina Australiaren historian. Garaipen ezin hobe, Australiak jatorrizko biztanleen historia bere nortasunean uztartu nahi duen honetan.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mixmail.com



ABORIGENAK. Dantza erakustaldi batean.

James Cook kapitaina Australiara iritsi eta kontinente berria Ingalaterrako errege-erregimentzat aldarrikatu zuenean hasi zen dena, 1770an. Ez horixe. Askoz ere lehenago hasi zen dena Australiari: zuriak duela bi mende heldu ziren kontinentera, baina aborigenek 40.000 urte eman dituzte bertan. Arrasto batzuen arabera, 120.000 urte ere bai.

Ingalaterra prezos gainezka zegoelako jaio zen Australia zuria. Ingelesek Ipar Amerikako kolontak galdu berri zituzten eta presoak erbesteratzeko lurraldeen bila hasi ziren: Cookek aurkitu zuen kontinentea huts hura kartzela bikaina izan zitekeen. 1788an, itsasoz zortzi hilabeteko bidaia bete ondoren, gaurko Sydneyren ingurura iritsi ziren Australiako lehenengo kolonoak: funtzionarioak, soldaduek eta 700 preso. Presondegien inguruan jaiotako kolonia haiek garatu eta 1901eko urtarrilaren 1ean Australiako Federazioa osatu zuten. Beraz, Australiak mende bat bete du orain, aborigenek bertan daramatzaten 400 eta 1.200 mendeen aldean.

Eta orain, milurtearen hasieran, Australiak herrialde moderno eta demokratikoaren itxurarekin aurkeztu nahi du bere burua, basamortuak irenstitako kontinente batean lortu duten bizitza kalitateaz apimarratuz. Baina aborigen gehienek baldintza negargarriak jasaten dituzte, zuriak baino hogeit hamar gutxiago bizi dira batez beste, langabezia, alkoholismoa, droga eta suizidioen maila ikaragarria dute... Hirugarren Mundua, Lehenengoaren erraetan landatuta. Duela urte gutxi arte, australiarrek arrazakeria basatienera erabili zuten -baita britaniarrak ez ziren etorkin guztiek ere-; orain, lotsa horri aurre egin eta barkamena eskatzeko benetako asmoz bete dute ehungarren urtemuga.

Horrez gain, Sydneyko 112.000 ikusleek oihu egin zuten, pozarren. Freemanek



FREEMAN. Aborigenen ikurra.

osoak ikusi zuen Australiako aborigenek arrakastak lortzeko aukera dutela -gero eta egia den aukera- eta kontinente osoak kontzientzia lasaitu eta oihu egin zuen katarsi handi batean. Australia oso nazio gaztea da eta mitoak behar ditu bere nortasuna sendotzeko. Ez dago Cathy Freeman bano mito hobirik: atleta hau gai izan zen 49 segundotan aborigenen historiaren 40.000 urteak Australiaren nortasunean lotzeko.

Baina zuria sakona da eta asko kostako zaito ixtea. Cook iritsi zenean, Australiako 750.000tik hiru milioiari biztanle omen zegoen. Mende bat beranduago, Australiako Federazioa jaio zenean, 60.000 aborigen beste-rik ez ziren gelditzen, eta eguneroko gara ziren lepo mozetak, haur bahiketak, gaixotasun europar hilgarriak eta buruzur

nak atxilotzeko, eta besteak akabatzeko. 1876an hil zen Trucanini, Tasmaniako jatorrizko azken biztanlea.

### Terra Nullius

Gutxiagatik, baina Australiako lehenengo herriak ez ziren erabat desagertu. XX. mendean hilketak gelditu egin zituzten eta aborigenenganako kezka, pixkanaka, hazi egin zen. 1967an eskubide zibila eskuratu zituzten, eta 1976ko lege bati esker haien zatitadura historiko edo sakratuak zituzten lurralde batzuk itzuli zizkieten. Lurralde haietan erreserbak sortu zituzten, aborigenak Australiako parke nazional batzuk kudeatzen hasi ziren -Uluru-Ayers Rock izan zen esanguratsuenak, basamortu erdian altxatzen den 348 metroko harkaitz gorri hori baitzen leku sakratuenak-. Australiako jatorrizko biztanleek zientzialarien aholkulari bihurtu eta basamortuaren sekretuak ikertzen lagundu zieten...

Baina 1992an epai iraultzaile batek dardaran jarri zuen elkarlaguntza hori. Eddie Mabo eta beste lau aborigenek salaketa jarri zuten Torres itsasarteko irla batzuen jabe-goa eskatzeko. Australiako Epaitegi Gorenak arrazioa eman zien eta "Terra Nullius" printzipioa baliorik gabe utzi zuen. James Cook Australiara iritsi zenean, aborigenak oso gizaki atzeratuak zirela eta jabe-goa kontzeptua ulertzen ez zutela iruditu zitzaion: kontinente berria "Terra Nullius" izendatu zuen -jaberik gabeko lurra- eta printzipio honetan oinarritu zuen ingelesek kolonizazioa. Baina Mabo kasuaren epailek ziortez, Cookek ez zituen gizarte aborigenaren konplexutasunak ulertu, eta europarrak iritsi aurretik gizarte antolatua bat jabe-goa, kolonizazioak ezabatu ez zuten jabe-goa sistema berezi batekin.

Mabo epaiak lurrikara sortu zuen Australiako Meatzetako nagusiak, adibidez, zeharo izutu ziren, lurrak itzularazten bazizkieten negozioa itxi egin beharko zutelako Western Mining Companyko buru zen Ray Evansen, haserre, Mabo epaiaren esanahia argi utzi zuen: «Epaile-saldok horrek Australiako kolonizazioari zilegitasuna kendu dio. Ultraeskuindarek ikara piztu zuten, zuriak kontinente osoa itzuli beharko zutela oihukatuz, eta aborigenen buru erradikalenek ikara hori sendotu zuten: Winnie Quaidiok, adibidez, Melbourne hiria dagoen lurraldea bere herriarentzat eskatu zuen.

Hala ere, aborigenen eta zurien gehiengo kontinentea pakcan banatzearen alde dago. Errekontziazioaren mugimenduak indar handia hartu du Australiako eta 250.000 lagun bildu zituen azko maiatzeko manifestazio batean. «Errekontziazioa aborigenek egin duguten oinarri da. Australiari zilegitasuna eman diezaiokela», idatzi zuen Cameron Forbes kazetariak. Bi gizardeen arteko elkar-ulerterak abian da, baina aborigenen bizi-baldintzak oso txarrak dira oraindik ere. Basamortutik desertotu dituzte, eta hiletan ez dute zeregnik etorri izanik gabe, jasotzen dituzten dirulaguntzak alkoholisismoa bultzatu besterik ez dute lortu, kasu gehiegitan. Arzoa konpentezko benetako asmoa dago, baina eguneroko horriko eta soluzio zehatzetarako laborantzia dago aurretik.

Melbourneko kale turistikoan, Cathy Freemanen irudia erakusten duen kartelak eta baten sei pisuak betetzen ditu. Haren oinetan, eskalare aborigen batek zehar zehar




## ► BELAUNALDI LAPURTUAREN OROIMENA ◀

### Pangea

Kontinentetako  
sakentasunera bidaiatu

Hegoaldeko  
Australiako Port  
Augustako parke  
batean bazkaltzen ari  
ginela, emakume  
zahar bat inguratu  
zitzaigun oihuka:  
«Ongi etorriak nire  
herrialdera».  
Bostekoa luzatu zigun  
banan-banan eta bere  
burua aurkeztu zuen.  
Saltxitxak eskaini  
genizkion eta,  
ordainetan, Joy  
Schmerlek bere  
istorioa kontatu  
zigun.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mixmail.com



ULURU-AYERS ROCK. Aborigenen leku sakratua.

oy Schmerl ingelesez ondo moldatzen zen baina luridja zuen berezko hizkuntza: «Ni ez nintzen ospitalean jaio... ni Simpson basamortuan jaio nintzen -gure mapa zahaldu eta lurralde huts baten gainetik pasa zuen eskua-. Nire ama hil egin zen eta gamelu esnez hazi ninduten. Oodnadatta herriko (basamortuan galdutako herrixka) eskolara joan nintzen eta Adelaideko familia zuri batek alabatz hartu ninduen. Orduetik, haiekin bizi nintzen hirian».

Ez genuen sakonago galdetzeko ausardiarik izan, baina Belaunaldi Lapurtua burura etorri zitzaigun berehala. 1880 eta 1960 artean, zuriek ehun mila haur aborigen bahu zituzten hezkuntza europarra emateko asmoz. Basamortuko herrixketara iritsi, umeak kamioietan sartu eta hirietara eramaten zituzten, azalpenik gabe. Australiar zuri askok ez zituzten aborigenak giza-kizat hartzen: haien alde egin zitekeen gauzarik onena. «gizarte zibilizatuaren maila baxuenean sartzan saiatzea» zen, bahiketen antolatzailetako batek esan zuenez. «Aborigenek ez dute gure sentimenduen antzerik. Haurrak kentzen dizkiegunean espantuka hasten dira, gurrasi eta negar egiten

dute, baina berehala ahazten dituzte haurrak eta bizitza normalari ekiten diote berri». Gurasoek ez zituztela maite edo hil egin zitzaizkiela esaten, zieten haurrei; gero, neskek zurien etxean neskame lanean jartzen zituzten eta mutilak nekazari-tzarako eskulan merkea ziren. Halako basakeriak ez ziren 1997 arte kaleratu.

Port Augustako parke hartan, Joy Schmerlek gure harmonika hartu eta kanta bat jo zuen. Argazkia ateratzen saiatu nintzen, baina ordutan harmonika utzi eta burua atzeraka biratuz ezkutatu zitzaidan. Aborigen askok gorrotatzen dituzte argazkiak. Barkamena eskatu nionean, bostekoa eta irribarre bat luzatu zizkidan eta ondoren harmonika jotzen jarraitu zuen. Handik pixka batera, harmonika utzi eta mezetako kantak abesten hasi zen, bata bestearen atzetik. «Katolikoa naiz», aitortu zigun imbarre enliz. «Jaunari kantatzen diodanean, bekatuak bikarreuk ateratzen zaizkit eta deabruak korrika ihes egiten du. Deabrua ez dugu ikusten



JOY SCHMERL, Lujanbio eta Dorronsororen erdian.

baina beti inguruan daukagu, ez ahaztu. Pokémon horiek ezagutzen dituzue, haurrek jostatzeko erabiltzen dituzten papirna horiek. 150 papirna dira eta deabruaren izen guztiak dauzkate». Hortik aurrera, jarria askatu eta istorio bibliko luzeak azaldu zizkigun: Noe, Abraham, Moises, juduen exodoa, Israelgo hamabi tribuak... Bat-batean, isildu, arnasa hartu eta beste aitopon bat xuxurlatu zigun: «Teologia ikasi nahi dut».

### «Basamortuan hilko bazinete...»

Posteen ostean, Joy Schmerlek aholkuak banatu zizkigun, eskuzabal: «Oso pozik utzi zuek topatu zaituztedalako, europarrak zuretelako, Jesukristoren eta Bibliaren lurralde-tik zatoztelako. Orain lagunak gara eta arretaz entzun behar didazue, basamortua ondo ezagutzen baitut». Australiako barnealde idorra -outback- famatua- zeharkatu nahi genuen, eta hari buruz hitz egitean, Joyri taupadak azkartu egin zitzaizkion, keimika hasi zen eta noizean behin oihukak ere bota zituen: «Mesedez, ez zaitzete onoz abatu basamortu madarikatu horretan zehar. Hildakoen lurraldea da! Eta emakumezkoen gaitzardiak eros itzazue fungetan jartzeko, faborez. Airearen iragazkia gaitzeri horiekin babestu behar duzue, bestela moztu izorratuko zaizue eta basamortuan hilko zarete. Jaungoikoaren eskatzen duzue argi argertu bat da nire ahotik hitz egiten ari zazuena -gero begietara so egin zidun- argian zure ama da nire ahotik ari zazuena, kontuz ibiltzeko esaten dizuna».

Outback inguruen mapa zabaldu digu bere aurretan, eta bertan agertzen den arrano -aquila audax- hartzarekin zapaldu du Joyk. «Basamortuko erregina da, gure herriaren ikurra». Basamortuan hilko bazinete, arranoa zuen gainean bueltaka hegan hasi eta hon ikusta aurkituko lituzkete zuen gorputzak.

Gure bidaiaren alde otortu egin du. Bere helbidea idatzi digu koadernoan, banan

## 40.000 urte dituen abangoardia artistikoa

Aborigenak 40.000 inguru dira gaur egun, Australiako biztanlearen %2 baino gutxiago. Talde txikia da gizurtean, baina arazo latzak ditu. Azken urteetan Gobernuak dirulaguntza ugari eman die; aborigenak, ordea, etorkizunik gabe pilatzen dira Sydneyko Redfern bezalako auzo marginaletan, eta Gobernuak emandako diru erraz horrek alkoholismoa bultzatzen lagundu du. Askori, parkeetan ezanda pasatzen zaio bizitza.

Bestalde, dirulaguntza hortan inguruan elite aborigena sortu zen, abokatu, politikari, sindikalista eta beste zenbaitzuk osatzen zutena, eta ustelkeria eskandaluak jaio ziren haien artean. Gobernuak aborigenak itzultitako lurren

jabego hutsak ezer ez duela konpontzen salatu dute: «Zertarako nahi dugu mila akreko lur sail bat basamortuan... Osasuna, hezkuntza eta lana behar ditugu». 37 urteko Noel Pearson aborigenak liburuxka bat kaleratu zuen, *Ardurak hartzeko eskubidea dugu* izenburupean. «Dirulaguntzen sistemak aborigenen legea eta bizimodua kaltetu ditu, ezin dugu gure kabuz ardurarik hartu», salatu zuen Pearsonek.

Hirietan ustelzen diren aborigenek ezin dute betiko bizimodua berreskuratu, ez dakite kanguroak lantzarekin ehibitzen, ezta basamortuan bizitzeko ere. Eta, batez ere, ez dute *souvenir* turistikoa bihurtu nahi. Qantas konpainiak abo-

munduari, baina aborigenek etekin-etatik dagokien zatia eskutzen dute. 40.000 urte bete dituen abangoardia artistiko honetako milioika dolar mugitzen ditu Sydney, London eta New York-eko galerietan. Basamortu erdian dagoen Alice Springs hiriko txikiak planeta osoko galeria kontzentrazio handiena izango du seguraski, eta milaka artezale erakartzen ditu urtero.

Alice Springsen, aborigenen inguruko negozioak zurien esku direla, aborigenak parkeetan moztortuta edo asperuta dauden bitartean. Baina aborigenek gero eta denda gehiago zabaltzen dituzte, eta berme bezala -aborigenek kudeatutako galeria- zintzilikatzen dute eta

## ► BASAMORTUKO MEAZULOETAN, OPALO BILA ◀

### Pangea

Konfinamendutako  
geografia berrak

Zer arraio egiten du herri honek Hego Australiako basamorturik kiskalgarrienaren erdian? Terminoetroako 50° harrapatzen ditu; ez dago urik, ezta itzalik ere, baina 1915ean Hutchinson urre bilatzaileak opalo harri bitxia topatu zuen nahi gabe. Gerra txikitutako Europatik etorkin uholdea iritsi zen opaloaren bila, greziarrak, serbiarrak eta kroaziarrak, gehienbat. Gaur egungo 4.000 biztanleak 48 herrialdeetatik etorritakoak dira, eta bero itogarria jasateko lurrazpian zulatutako etxebizitzak. Aborigenek *kuper piti*, gizon zuriaren zuloa, deitu zioten. Eta halaxe gelditu zaio izena herriari: Coober Peddy. Kasualitateak eraman gintuen Vash Farid meatzari iraniarrarengana, eta harekin sartu ginen meazulora, lurrazpian ehunka kilometroko pasabideek osatzen duten txingurritegira.

ANDER IZAGIRRE  
izazag@3000@mlmail.com



VASH FARID. Opalo bilatzaile iraniarra, lurpera sartzeko tresnak prestatzen.

ZABALIK

oiz hartan seko ikaratu ginen, gure ordenagailuak ez zuelako piztu nahik. Asteko kronika egun hartan bertan bidali behar genuen, baina basamortu erdi-ko Coober Peddy herrian geundin, zibilizazio-rik 600 kilometrorra. Liburutegi publikoan esan zigutenez, informatikan bi aditu omen zeuden herrian: «Roger eta Vash. Roger ez da sekula jaikitzen eguerdia baino lehen. Vash Farid hemen ondoan bizi da».

Vash iraniarra bere etxean topatu genuen Josemik eta biok, eta goiz osoa eman zuen gure ordenagailua berriz martxan jartzen. Lanak eskertzeko, bazkalazera gonbidatu genuen, eta bazkalostean eskaini zigun bere opalo meatzera sartzeko aukera.

Autoz hoge minutuko bidea bete genuen, Coober Peddy famatu egin duen paisaiari so: harri eta hondarrezko milaka piramide ikusi genituen hilde ertzean, meatzetako zuloak irekitzean gelditzen diren hondakinak metatuz sortu direnak. *Moon plains* deitzen diote inguruari, ilargiko lautadak, eta zientzia-fikziozko pelikula askoren eszenatoki izan da «Mad Maxena, esaterako».

Coober Peddyren inguruan 4.000 km<sup>2</sup>-ko lurraldea ustiatzen dute meatzariek, Gipuz-

koa halako bi. Mundu osoko opaloaren %80 basamortu honen errietatik erazutzen da, baina aberastasun iturri honen inguruan ez dago enpresa handirik: Hego Australiako Meaz Departamentuak 100x50 metroko lur sail txikiak besterik ez ditu alokatzen; meatzariek 10.000 pezetako baimena ordaindu eta urtebetez horik ateratzeko gai diren opalo guztiak poltsikoratuko dituzte. Bakarka ala binaka egiten dute lan meatzariek: «Bi meatzari gehiegi da -esan zigun Vashek-, etekinak banatu egin behar direlako, eta meatzari bakarra gutxiegi, zerbait gertatuz gero inork ez zaituelako zuloak aterako». Vash bakarka aritzen da.

Sarterako zuloa lurrazaletik bertikalean jaisten zen: 30 metroko anplitude ilun eta oso estu horretan, ukalondoak ezin genituen zabaldu paretari gabe. Eskailera dardarti batek zintzilak, ezeri lotu gabe, infernuko putzu hartara jaitsi ginen. Eta lehenengo sorpresa: infernua nahiko freskoa zen. Kanpoko bero itogarritik lurrazpiko 24° epeletara pasa ginenean, berehala ulertu genuen hango etxebizitzak zengatik dauden lurrazpian.

Lurrazpiko ganbara hartan, Vashek opalo bilatzeko tresnak erakutsi zigkigun: bi metroko zulagailua, pala, bahea, plastikozko poltsa bat opalo puskek gordetzeko eta garrantzitsuena... bombila bat, lurrazalean

utzi genuen gasolinazko sorgailu bati kable bidez lotuta. Vashen urratsak galduz gero, bonbilaren kableari esker atera gitezkeen labirinto hartatik, Ariadnaren hariari helduta.

Makinek zabalduetako pasabide hauek elkarrekin lotuta daude, eta Gipuzkoaren tamaina bikoitza duen lurralde honen azpian milaka kilometroko txingurritegia korapiltzen da. Beste norbaiten sailcan sartzearraz gero ez ote den galdetu genion Vashi. «Bai, isun handiak daude beste etemuetan opalo bila harrapatzen dituztenentzat, baina kontrolatzen oso zaila da. Horregatik, norbaitek opalo mardoa aurkitzen duenean, disimulatzen saiatzen da. Baina batzuetan aurkitzearen zurrumurrua zabaltzen da herrian eta lapurrak gaez sartzen dira, meazulotik beste opaloa ateratzera. Meatzari batzuk zakurrak uzten dituzte galerietan, beren ustiaketa babesteko; tiroketak eta hildakoak ere izan dira labirinto honetan».

### Lau milioi pezetako opalo puska

Kolorea eta distira, horra hor gakoa. Hori ezin du iragarri non egon ditezkeen hurrez preziatuak eta loteria horren menpe daude meatzariak. «Normalean, hamar milioi pezeta behar dira makina egokiak erosi eta lanean hasi, baina pasa den urtean bi gazte agertu ziren Coober Peddy, bost mila pezeta gastatu zituzten pala eta pikatxoia erosten, hamar mila pezeta baimena loritzeko... eta lau milioi pezetako opalo puska atera zuten handik lastertera».

Vashek inbentsio handiagoa egin zuen eta etekin erregularragoak lortzen ditu. Astero lau egunetan jaisten da meazulora, bost edo sei orduz paretak zulatzen. Kide batek opalo puskek garbitu, leundu eta katezaten dizkio; ondoren, Coober Peddy Japoniak eta Hong Kongetik datozen erosleek saltzen dizkie harribitziak, edo [www.opalcountry.com](http://www.opalcountry.com) helbidean jartzen dituzte.

Zulagailua paretan sartu zuen berriz, Pareta bere dardarrean zela, hat-batean gelditu eta irribarre egin zuen Vashek: «Ez al duzue soinu leunago bat entzun? Horrek esan nahi du opalo jo dugula». Egia esan, zarata infernal horretan ez genuen ezer berezirik antzeman, baina Vashek entzumen zorrotza zuen: «Soinu leun hori ezin dut burutik kendu -esan zigun, begiak ixita- Halakoa entzun nuen behin... eta hiru milioi pezetako opalo puska atera nuen».

Egun hartan ez genuen halako suertirik izan eta bueltako bidea hartu genuen, Vashek galerietan gertatutako heriotz beldur-garrieriotan kontatzen zizkigun bitartean. Zuloak irten baino lehen, etxean egin-dako lebergailua sartu zuen Vashek paretan: «Nitro-amoniozko ongaria erosten dut, etxeko lorategirako erabiltzen dudana, eta zukukada bakoitzari bi litro gasoil gututzen dizkio. Metxari su eman eta minutu bat daturkat eskalaretan gora zuloak presaka ateratzeko». Josemi eta biok aurretik atera ginen, hurratzalera berriz. Handik gutxira, eskailera bertikalean gora Vash ziguan zetorrela entzun eta hantze agertu zen narriarra, amesestuka. Segundo batzuk geroago ezlandu umu haren oihartzuna entzun eta hurrak dardar egin zuen gure omen azpian. 30 metro beherago, opalo puskarik ez zirela egin zitekeen agian. Horren bila jutsiko zen narriarra hurrengo egunean. Lan zuzian, beturako aberastasuna izan ezazkenean, baina horek ez zuen Vash Farid kezkatzen: «Opalua ugaria balitz ez luke baloririk izango. Horregatik, opaloa topatzen ez dudanean ere poztu egiten naiz».

## Iranetik ihes egin behar izan zuen bahaia

Vash Farid duela 42 urte jaio zen Iranen; baina etxekoan jarraitzeak izanik, larri bidali zen islamistek Irango agintea eskuratu zutenetik. Hogei urterekin Filipinetara joan zen Ingeñiaritza Zibila ikasteko asmoz, eta bertan bost urte pasa zituen. «Baina Irango Gobernuak pasaportea bahogabatu zigun baha guzietan, etxera itzuli ginatezen. Itzuli zirenean ondoren gurtak kendu eta jazapen gogorra egin zuten. Ni Australia eskualde honetara iritsi eta errefuxiatu gisa hartu nin-

duen». Adelaidda Disemu Industrialak ikasten hasi eta bertan ezagutu zuen gaur egun bere amaizeta dena. «Nire amaizeta ere iraniar bahaia da. Indian ikasten ari zen pasaportea kendu ziotenean, eta Adelaidara etorri zen, ni bezalala». 11. hamazortzi urte daramatzate Australiara, azkeneko hurrak Coober Peddy, eta auzi daukate zeintzuk diren basamortuko harribitxi preziatuenak: «Gure lau alaba iraniar-australarrak, dudarik gabe».


## ▶ AMERIKAKO SAKONUNETIK AMERIKAKO GAILURRERA ◀



Kontinenteetako  
sakontasunera bidaia

Pangea bidaiaren helburu nagusietako bat Argentinan lortu genuen: Patagonian ahaztuta dagoen Laguna del Carbon (-105 metro) Amerikako depresiorik sakonena dela ziurtatzea. Baina Amerikako hondoa zapaldu eta gero, kontrako puntan, goikoan, jarri zuen burua Susana Elozegi pangeakidea: Amerikako gailurra den Aconcagua (6.960 m.) zapaldu nahi zuen. Neska egoskor hau ezagututa, ez genuen zalantzarik arrakastari buruz.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mixmail.com



ACONCAGUA. Susana Elozegi pangeakidea Amerikako tonorrik altuena atzean duela.

**D**epresioak dira gure helburu, baina gailur esanguratsuetara igotzeko aukera ez dugu galdu bidaian zehar. Iparramerikako eremurik baxuenean, Heriotz lbarrean, egon eta gero, taldeko mendizaleena den Susana Elozegi Whitney tonorra zapaldu zuen (4.420 metro), Estatu Batuetako garatena Alaskakoak kenduta). Australiar, herriz, Eyre lakuko depresioaren bila basamortura sartu aurretik, elurretan busti genituen oinak: Australiako gailurra den Kosciuszko mendia (2.228 metro) leunago zen eta zazpi pangeakide iritsi ginen goraino. Azkenik, Hegoamerikako punturik baxuenera iritsi eta gero, Susanak Amerikako punturik altuena jarri zuen goira. Aste biturik geroago, gogoaz gain oima ere jarri zuen, eta hauxe da Susanak hurre egunero-

koan egin zuen kontakizuna.

«Mendoza hiririk bi egunetan iritsi naiz oinarritzko kanpamentua den Plaza de Mulsera (4.200 metro) eta neure buruak pisua eta alferkeria nabari du. Bide hau hiru egunetan osatzen da normalean, aklimatazioa errazteko: tarteko egun bat Confluencia izeneko kanpamentuaren ematen da, altuerari neurria hartuz eta Aconcaguak hegoaldean duen 3.000 metroko paretan mirestuz. Baina eguraldia okertuko ote zen beldur nintzen eta... betiko presak!»

Lau mila mendizale baino gehiago ingurartean dira urtero Aconcaguara, eta Susanak «hiritxo kosmopolita» bat topatu zuen mendia magalean. «Hemen ez da ezer falta: hotela, tabernak, jatetxea, sendagilea, dutxa -hamar dolar, 2.000 pezeta inguru, ordaindu beharrek, hori bai-, komunak... Akanpalekuetan mundu osoko mendizale-

ak daude: argentinarrik, estatubatuarrik, finlandiarrik, suitzarrik, iratarrak, hegoafrikarrak, kataluniarrik... Taldeka etorri dira gehienak, babesle eta portatzaileekin batzuk, eta bakarrik dabilzanak ere badira». Susanak ez zuen euskaldunik ikusi, ordea. Juanito Oartzabal, Koldo Aldaz, Felipe Uriarte eta beste zenbait Aconcagua inguruan ibili ziren abenduan eta urtarilean, baina orduko alde egin zuten.

Altuerara ohitzeko hartu zuen atsedean egun hartan Susanak igogera plana zehaztu nahi zuen: «Bakarrik joatearen arazo handiena zera da, biren artean bana zitekeen zama (denda, sukaldia...) norberak igo behar duela. Horregatik, buruko mina arindu zaidanean, dendakide baten bila irten naiz. Bakarrik daudenekin hitz egin dut, baina gehienek asmoa ez datur nirearekin bat. Azkenean, Rich izeneko estatubatuar batekin elkartu naiz».

### Bideokamera izoztuta

Hurrengo egunean, Susanak eta Richek bideari ekin zioten. Nido de Cóndores kanpamentura igo (5.400 metro), bertan jantaria utzi eta Plaza de Mulas oinarritzko kanpamentura jaitsi ziren herriz. Bigarren eguna Plaza de Mulasen igaro zuten, atsedean hartzen, eta hirugarrenean Nido de Cóndoresera igo ziren herriz, oraingoan lotara.

Laugarren egunean, Nido de Cóndoresen Berlin aterpetxera (6.200 metro) igotzeko asmoa zuten. Baina Richek egun hartan bertan gailurrera iristeko saioa proposatu zion Susanari. «Baietz esan diot. Animo handiekin eta oso goiz jaikita irten behar dugu, 1.500 metroko desnibelari ekiteko. Eta okerrera, bukaerako zati gogorra: 400 metroko azken desnibela igotzeko, harri askea eta 50 graduko aldapa zikina duen kanaleta igaro behar da». Goizeko lauretan esnatu zen Susana —beranduegi— eta hostak aldean abiatu zuen, hotz handiarekin. Rich ez zegoen orduko prest eta aurrea hartzeko esan zion Susanari.

«Kopetargia piztu eta bakarrik irten naiz. Nire aurretik, bostehun metroa, beste kopetargi bat ikus dezaket eta atzetik lau gehiago. Bidea oso ondo markatuta dago, eta zerua izarrez beteta. Bi ordu eta erdi behar izan ditut Berlin aterpetxera heltzeko, eta bertan mendizale gehiago etorri dira erromeriara: Santa Ageda bezpera da eta, ohi-turari jarraituz, makilarekin lurra kolpatuz ari gara oinez —makilen ordez eski-bastoiak ditugu, baina tira—. Kolpeei laguntzeko, 'jeupp!' esan beharrean arnasaldi sakonak botatzen ditugu errotmoan».

Azken kanaleta zekula baino itsusiago omen zegoen, eta mendizale askok etsi egin zuten bertan. Baina eguerdian laino itxia sartu bazen ere, Susanak aurrera jo zuen: «Gailurra bertan ikusten nuen berri, baina hiru ordu zaitu kanaleta guzto horretan. Pazientzia gauza ederra da!».

Pazientziak ez zion hutsik egin, indartek ere ez, eta aratsaldeko hirurotan iritsi zuen Susanak Aconcaguaren tonoriko gailurra. «Ez ikurririk eta ez gailurrik besarkatu edateko lagunik, ni neure soiltasunean».

Han gotan, alferrik atertu zuen Susanak bideokamera —«plik izoztu egin zait!»— Zoronez tonorretara mitsatuko argentinak eta bozgarriarekin egin zioten argazki Anneti kiko gailurra. Eta argazki oinik gero, pango sena idatzi zion Susanak aurre hartu. «Laino itxiaren errez, ikusizuna ikaragarria zela egin esan —baina badarude bi gauza ikaragarri: emozioa eta neketa».

## Aconcagua, urbanizazio baten hastapenak

Aconcaguako parkeak azaroaren 15ean zapaldu zuen 2000. denboraldia. Aurretik mendizaleek diru gehiago ordaindu behar dute sartertan egun, trekking egiteko txartelak 20-40 dolar bali dituzte 1.000 eta 8.000 pezeta bitartean: urte-sasotaren eta muntzarren atarrietan, Aconcaguaren gailurra izan abiatzeko baimenak, herriz, 80-160 dolar, 16.000 eta 32.000 pezeta bitartean.

Parkeko arduradunek diotenez, diru honi esker zenbaitzuk hobetuko dituzte, urtero handitzen den mendizaleko

puruari erantzuteko: «Aurreko denboraldian 4.285 mendizale etorri zitzaizkigu. Sei hildako izan ziren, eta erreskate moioa antolatuta genuen». Lehen bost postu zeuden 23 zaindariekin, eta orain bideratzi postu zapaldu dituzte, 36 zaindariekin. Helikoptero bat beti prest zaitzuten da erreskateentzako. Kamerak hiperbarikoa jarriki dute birketako edemak aurre egiteko, eta zerbitzu medikuak osatuko dituzte. Turistek harrera egiteko egoitza ere zabaltzeko asmoa dute.

Amerikako gailurra ez omen da oso

zaila eskarmentua duten mendizaleentzat, eta honek erakusten ditu hurbeste lagun. Masifikazioak duen prezio tristetara denboraldiko ordaindu behar da, dagoeneko mendizale bat hil da —gailurrik jaitsi ondoren Berlin aterpetxean zegoen. Hiri utriko emakume ilanda bat —70 metroko amildegitik etorri ondoren Etxe arduradunek baditue bestelako kezkan ere: «Plaza de Mulasen hotela eta kanpamentu hazi dira, bidexkak sortu dituzte akanpalekuen artean... Aconcaguaren magalean urbanizazio baten hastapenak ikusten direla esan dezakegu».

## ► MARTXEL TILLOUS, EUSKALDUN AMERIKARREN APAIZ IBILTARIA ◀

### Pangea

Kontuenteetako  
kontusunera bidaiatzen

Martxel Tillousen txartelak hauxe dio: «Estatu Batuetako euskaldunen apeza».

San Frantziskon bizi da, Basque Centerko gelatxo batean, eta bere erantzungailuak euskaldunen deiak jasotzen ditu: mezak, hiletak, bataioak eta ezkontzak ospatzeko eskatzen diotenean, Tillousek furgoneta hartu eta

mendebaldeko hamaika estatuetan batetik bestera ibiltzen da. Furgonetari *Pottoka* izena jarri dio matrikulan, eta harekin urtero 100.000 kilometro egiten ditu, euskal diasporaren zerbitzuan.



MARTXEL TILLOUS. Matrikulan autoaren izena jarri du apaizak: Pottoka.

atetik bestera dabil Martxel Tillous apaiza: «Gaur bertan, San Frantziskon euskal arztainaren ohenaldia ospatzen ari gara eta meza eman behar dut. Bihar, Las Vegasen NABO (North American Basque Organization) erakundeak biltzarra du, eta han ere euskarazko meza emango dut». Bere erantzungailuan beste mezu batzuk egon daitezke: Montanako euskaldun baten hiletara joateko edo Wyomingeko ezkontza bat ospatzeko eskatuko diote agian, eta Tillousek furgoneta hartuko du haraino joateko.

Estatu Batuetako mendebaldean beti dago euskaldunentzako apaiz bat, Baijako apezpikutzak bidalita. Gaur egungoa Martxel Tillous da, duela 66 urte Eskulian jaiozako zuberoarra. Apaiz sartu ondoren, Tillousek 26 urte igaro zituen Boli Kostan (Afrikan) mistolari, eta ondoren Parisko euskaldunen apaiz izan zen zazpi urtez. Eta beste zazpi urte dararamatza San Frantziskon. «Antzina, euskaldunen apaizak hiru urte ematen zi-

tuen Estatu Batuetan», azaldu digu Tillousek, «hori zen usadioa, baina maite naute eta jarraitzeko esan zidaten».

San Frantziskon jarraitzeko baldintza bakarra eskatu zuen Martxel Tillousek:

«Hiriko exte batean bakarrik bizi nintzen, eta bakartasunean sobera sufritu dut. Afrikan beti jende artean nintzen eta San Frantziskon bakar-bakarrik. Basque Centerren bertan bizi nahi nuela esan nien, eta gelatxo txiki bat besterik ez zegoela erantzungo zidaten. Baina aski da niretzat eta hementxe nauzeu». Hementxe, liburu betetako gelatxo horretan, ohe bat eta mahai apal bat dauzka, eta batez ere diasporaren deiak jasotzen dituen telefonoa.

Erepeidean ez dagoenean, Martxel Tillous Basque Centerren inguruan bizi da:

«Poliziak behin baino gehiagotan gelditu nau, autoan azkarregi nindoalako», dio Martxel Tillousek

frontoiaren aldalekuetako komunak eta dutxak erabiltzen ditu, eta bertako jatekxan egiten ditu otorduak. «Apeza maite dute hernen, eta laguntzen naute. Ez dut problemarik», dio.

### Pottokak, 100.000 kilometro

Telefonoak jotzen duenean, Martxel Tillous martxan hasten da. Urtero 100.000 kilometro egiten ditu herriz herri, eta bere furgonetari *Pottoka* izena jarri dio matrikulan. Estatu Batuetan badago hori egiterik. «Mila kilometro baino gehiagoko bidaiak sarritan egiten ditut, bataio batera joateko adibidez. Orain dela bi urte, euskal festak asteburu berean ospatu zituzten Jordan Valleyn (Oregonen) eta San Frantziskon (Kalifornian), eta bietan izan nintzen (ia mila kilometro dago bien artean). Gauak hartaputzen naueanean, bide ertzean gelditu eta oihaleko etxola jartzen dut, edo autoaren barruan egiten dut lo».

Martxel Tillousek aitortzen du presaka ibili behar duela batzuetan: «Poliziak behin baino gehiagotan gelditu nau, autoan azkarregi nindoalako. Baina apaiza naizela kontatzen diet, hileta edo ezkontza batera noa, eta ez dimate inolaz isunik jarri. Hurrengoan argi ibiltzeko esaten didate». Hainbeste kilometro presaka eginda ere, Tillousek sasoiari jarraitzen du, baina autoak nekatu egiten zaizkio: «Bi edo hiru urtez behin aldatu egin behar dut autoa. Estatu Batuetan nagoenetik, zazpi urte hauetan hirugarren autoa da *Pottoka*. Aurrekoak *Tximizist* zuen izena».

Tillousen ardurapean dauden hamaika estatu horietan, euskaldunek ez dute eliza propiorik, baina elizkizun ugari ospatzen dituzte urtean zehar: «Bataioak, ezteiak, hiletak eta bestelako mezak egiten ditut euskal etxean, frontoietan... Urtero berrogei bat biltzar ospatzen dira mendebaldean (Kalifornian hamahiru, Nevadaan zazpi, Oregonen lau...) eta euskaldunen festa haue- tara joaten naiz. Meza batekin haseta maite dute

«euskaraz gehienbat, kantutak batez ere» eta gero bazkaria, musika eta dantzak izaten dira». Jaialdiez gain, 13 eta 17 urteko gazteentzat bi asteko kanpamentuak antolatzen dituzte: «Gazteei euskara irakasten zaie, euskal kultura, musikak eta dantzak, haiekin Euskal Herriko egoeraz mintzatzen gara... Kanpamentuetan beti hartzen naute gitula eta txistuak jotzen irakasteko».

Euskal sustraiak Kalifornian gorde dira batez ere, Tillousen iritziz. Hala ere, zaila zaie hizkuntzari eustea: «Boisen (Idaho) ikastola dute, eta horrek asko egiten du. Baina San Frantziskon ez da erraza, han hiri handia izanik euskaldunak elkarrengandik urrutu bizi direlako. Gazteek euskaraz oso gutxi egiten dute, baina maite dute, eta gu saiatzen gara laguntzen. San Frantziskon gau eskola zahaldi nahi genuke, helduet eta gazteei euskara irakasteko».

Martxel Tillousek dioenez, «Estatu Batuetako euskaldunek aukarrendu handia dute elkarrekin, Iparraldekoek batez ere». Eta badu oroimen hunkigarri bat: «Jakin zuten eskale euskaldun bat hil zela kale gorrian, *homeless* gazte bat, eta inork ez zuela haren ardurarik hartzen. Orduan, erabaki zuten meza egin behar zaitzaiola eta hots egin zidaten. Inork ezagutzen ez zuen eskale euskaldun haren hiletara joan... eta euskaldunetz beteta topatu nuen eliza».

## Lokarria 20.000 euskaldunentzat

Mendebaldeko hamaika estatuetako euskaldunek arduratzen da Martxel Tillous apaiza: Kalifornia, Nevada, Oregon, Washington, Idaho, Utah, Arizona, Wyoming, Colorado, Montana eta Minnesota. Hain eremu zabaleko euskaldunek elkarren berri izan dezaten, Tillousek *Lokarria* berripaperera sortu zuen.

«Euskaraz eta ingelesez idazten dut *Lokarria*, 4.500 kopia egin eta Amerikako euskaldunei postaz bidaltzen diz-

kiet, urtean bitan», esan zigun Tillousek. «Ez dago euskaldunen zerrenda ofizialik, baina nik 4.500 familiaren deiturak bildu ditut ene hamaika estatu horietan, eta horrek esan nahi du 20.000 euskaldun inguruk jasotzen duela berripaper hau». Zerrendatik kanpo ba omen da euskaldun gehiago: «Bai, noski, nik deiturak biltzen jarraitzen dut, Lehengoan, Boiseko (Idaho) jaialdian, Minnesotako euskaldun batek esan zidan estatu hartan guxienez bes-

te hoge euskaldun ezagutzen dituela, eta nik izenak hartu nituen, haiei ere *Lokarria* bidaltzeko».

*Lokarria* berripaperak atal finkoak ditu: Martxel Tillousen eskutiz bat hasieran eta, ondoren, Euskal Herriatik iristen diren deiak, Estatu Batuetako euskaldunek antolatzen dituzten biltzarren egutegia eta euskal diasporaren berriak. «Jaioberriak, bataioak, ezteiak, hiletak... Amerikako euskaldunek horien berri jakitea maite dute».

## ► LAS VEGAS, TXANPONJALE ERRALDOIA ◀

### Pangea

(kontinentetako  
alortan zehar bidaia)

Arizona eta Nevadako basamortua zeharkatzen du g3. errepideak: eguzki kiskalgarria, hautsa, kaktusak, zuzengune amaigabeak... eta bat-batean, lautadaren erdian, etxeorrazak, hotel erraldoiak, kasinoak, neoizko argi histerikoak. Basamortuko ispiatzatze bat ematen du, baina Las Vegas da, oasi hortera, frenetiko eta neurrigabea.

ANDER IZAGIRRE  
anderg32000@msn.com



LAS VEGAS. Eguna eta gaua bereizten ez dituen hiria.

Las Vegasera gauaz iristen denari aluzazio larriak dituela iruditzen zaio. Nevadako basamortuan galaxia osoko estralurtarren biltzarra topatu du, espaziontzi guztiak batera lurra hartzen ari diren une berean: argi arrosak, berdeak, laranja, izar artifizialen distirak, kometak, diamanteak, sua, tximistak... Hiriak milioi eta erdi biztanle dauzka, baina ugariagoak dira makina txanponjaleak. Las Vegas osoa makina txanponjale bat da: basamortua itsutzeko adina argi eta distira, domu kutsakorrak, kanpaiak eta txintxin-txintxin, diruaren hotsa... Ludopaten oasia da, baina ez hori bakarrik: Nevadako basamortuan ametz amerikarraren alderik kas-karinena, fitobolena eraiki dute, hezur-haragitan, neoi eta bombilatan. Basamortua leku egokiena da, bertan ez baitago ingurune

mugatzailerik estetika horteroarentzat: lotsarik gabe elkartzen dituzte Kleopatra eta Elvis Presley, Spiderman eta Veneziako kanalak, Marilyn Monroe eta gladiadoreak... Amerikako idoloak eta munduko zazpi mirariak nahasten dituzte, ikonografiaren erakuslehoian parekatuz, batera konplexurik gabe. Alde kaskarin honek -espektakuluak, azalakeriak, su artifizialak- bizi-poz ardura-gabea aldarrikatzen du; adio kezkei eta -viva Las Vegas-, Elvisek kantatu zuen bezala.

#### 24 orduko espektakulua

Kale kantoietan pomografia banatzen dute mexikarrek, irudimena agortu arteko aniztasun pornoa. Espaloi berean ezkontzak ospatzeko elizatxo eta kaperak daude -halako berrogeita hamar Las Vegasen-. Hiri honetan oso erraza da ezkontzea: 7.000 pezeta ordaindu, paperak bete eta kitto. Ko-

txetik jaitsi gabe ezkontzerik ere badago, hanburgesak eskatzen diren bezala. Eta hanburgesarekin bezala, zeremoniarako badira hamaika aukera: erlijio guztietako ezkontzak ala ezkontza zibilak, arruntak ala selebreagoak... Gehiago ordainduz gero, kapera espezializatuak daude Erdi Aroko erritoko edo ezkontza esoterikoak ospatzeko, norberaren manieren arabera jantzi daiteke -apaliza- -Elvis Presley, Batmanek edo Saddam Husseinek ezkon zaitzake, hala eskatu eta ordainduz gero-... Egun hartan bi bikote ezkonberri ikusi genituen, kasinoetan paseatzen eta ludopaten zorionak jasotzen. Gaizki aterako balitz, dibortzioa arratsalde horretan bertan eska daiteke: makina txanponjalean bezala, hotoia sakatu eta konbinazio arrakastatsua baten bila. Viva Las Vegas!

Egun berean ezkontzeko eta dibortziatzeko tentazioari eutsiz, Las Vegaseko etorbide famatuenera heldu gara: The Strip, hamar kilometroko luzera duen kalea. Eta bertan, bata bestearen alboan, Eiffel dorrea, Veneziako San Markos plaza, kristal beretzeko Keops piramidea, 45 minuturo leheritzen den sumendia, bi galeoi pirata laku batean kainonazoka borrokan... Eromena. Eraikuntza bakoitza ondokoa txiki uzten saiatzen da, Caesar's s Palacen sartu gara aurrea, barruan hiri erromatar bat duen palazioan: hartziko zoria du, etxe erromatarrak, enperadoreen estatua eta iturri handidun plaza zabalak... Eraikuntzaren beste hegalean daude hotela -ehunka gelarekin- eta kasinoak -milaka txanponjalekin-. Venezia hotelak kanalak dauzka bere barruan: gondoleroek turistak arraunean eramaten dituzte -Oh sole mio- abesten duten artean, jauregi veneziarretako balkoietan opera kantariak aritzen dira noizean behin, inauteritako maskaradunak bate-tik bestera dabilta jendartearen...

Espektakulua eta antzerkia, egunero 24 orduz eta urtean 365 egunez. Las Vegasek ez du nekerik ezagutzen, sasoi su dago: 1991 eta 96 artean, biztanleria %40 hazi zen; 2001. urtean, hotelek ia baino 20.000 gela gehiago eskainiko dituzte, Zabaldu berri duten Bellagio hotela, adibidez, 45.000 milioi pezetako inbertsioa izan da jabearen zate: hotelak Italiako herri baten itxura du, Como lakuaren ertzean balego bezala. eta artelanez apaindu dute barrutik. Hiru mila gela ditu, 2.500 makina txanponjale, eta gainerako jokoetarako 140 mahai.

Las Vegaseko bide guztiak makina txanponjaleetara daramate. Hotelak eta jatetxeak oso merkeak dira, egunero dozenaka makroespektakulo antolatzen dira hainbat izarretan: David Copperfield, Rolling Stones edo Barbara Streisand... Turistak kasinoetara erakartzeko amuak dira horiek.

Eta kasinoek jokozalea irensten dutenean, ez dute erraz askatzen, jendea desorientatzeko prestatuta baitaude: labirinto geometrikoetan itxura dute eta makina txanponjaleak ilaraz ilara lerrokatzen dira inbiteraino. Irteera topatzea zaila da. Denboraren pasera antzeman ez dadin, gelak erdi ihlupetan daude kasu biziarekin; zatectan, sabaak zeru urdinaren antza izaten du, hodei eta giza, arga naturala buliz bezala. Horrela, ludopata ez da ohartzen egun osoa daramala txanponak sartu eta sartu.

Txanponen hots etengabearekin, histariaren inditzen zaio dena prest dagoela sarrik irabazteko: makinaren aurrean eseri, botola-ri eman, dirua jaso. Eta kitto. Guk eta dolar laurden bat bota genuen makina txanponjalean. limoa... marrubia... eta kanpata. Kaka zaharra. Viva Las Vegas.

## Ezkongaiak ez aspertzeko

Kalifornian urte sukarrak piztu zenean, 1848 inguruan, jendetza handiak zeharkatu zuen kontinentea, Atlantikotik mendebalderantz. Bazekiten Far West hura arriskutsua zela -egardia, sugeak, pistolak-, eta bertara itzuli aurretik paperak prest utzi nahiz zituzten, ezbeharren bat izanez zero familek laguntza jaso zezaten. Aberastasimen atzetik abiatu aurretik, ezkontu egiten ziren urte bitazaila asko.

Kalifornia bidean, urte bitazailak

Nevadatik pasatzen ziren. Nevadako legeak ezkontza azkarrak eta nierkeak bainmentzen zituen; gainera, kanpotarrek nevadatarren eskubide berak lor zitzaizketen, bertan sei aste pasaz gero. Horregatik, urte bitazailak Las Vegas bezalako herrietan gelditzen ziren. Derrigorrezko 42 egun horietan aspertzeko ez zitezen eta istilunk sor ez zezaten, joko baimendu zuten Nevadatu, eta halaxe jaino ziren kasinoak.

Kasinoak ordutan sortu baziren ere,

gaur egungo itxura eta lilura 1945etik aurrera hartu zuten. Urte hartan, Bugs Siegel mafioso Las Vegasera iritsi zen, eta bere milioika dolarrekin etekina ateratzeko Flamingo kasino ikusgarria eraiki zuen errepidean. Eraikuntza iraultzailea izan zen: tamaina erraldoia, forma deigarriak, neoizko argiak, distirak, zaratak... Basamortuaren erdian landatu zuten hazi hortera horrek sortu zuen gaurko Las Vegas estulo lotsagabea.

## ► BONBA ATOMIKOAREN LAGUNAK ◀

### Pangea

Kosmopolitako  
geografiaren bidaria

Nevadako mapetan poligono laranja ugari agertzen da, han hemenka barreiatuta: «Eremu militarra, sarrera debekatuta».

Nevada eta Utah arteko basamortu eta lautadetan, Estatu Batuetako Armadak entrenamenduak, saioak eta isilpeko proiektuak burutzen ditu. Han entrenatu zen 1945ean bonbardaketa talde trebeena, eta

Wendover herrian monolito bat eraiki zuten haien ekintza gogoangarrienaren ohoretan: Hiroshimako bonbardaketa atomikoa.

ANDER IZAGUIRE  
pangea2000@mixmail.com



ZABALIK  
OROITARRIA. Hiroshimako bonbardaketa atomikoa burutu zuen taldearen omenez jarri zen.

rrapidetik izkin egiten diete eremu militar misterioitsu hauei, eta mundutik aparte gelditzen dira. Gizaki aruntok ezagutzeko eskubiderik ez dugun zona haietan plater hegariak besterik ez dira sartzen, Estatu Batuen Armada espialtzeko. Hala dio behintzat supermerkatuetan erruz saltzen den *News of the world* aldizkari fantastikoak. Sinesgarritasun handiko argitalpen hau zeharo kezkatuta dago, estralurtarrek gero eta zientzialari estatubatuar gehiago hahitzen dituztelako. Guk, badaezpada, Pangeako astronomoa gauero zerura begira jarri genuen, noiz etorriko ziren zientzialariak.

Basamortuko sekretu militarrek halako paranotak elikatzen dituzte, baina oso erakargarriak dira beste konspiraziozale batzuentzat ere. Aberraren aldeko leherketa eta bonbardaketan zaleentzat, adibidez.

Nevadako muga zeharkatu eta Utah estatuko lehen herria Wendover da, Great Salt Lake Desert gatzaga zabalaren ertzean. Wendover USA Memorial fundazioak oroitarri bat altxatu zuen han, inguruko eremu militar sekretu batean entrenatu zen Composite 509 taldearen ohoretan. Soldadu haiek balentria gogoangarria bete zuten: Hiroshimako bonbardaketa atomikoa.

Fundazioak banatzen duen eskuko orriak dioenez, heroi puska hauek Wendovergo eremu militarrean «gizakia erorkizuna aldatzeko» entrenatu zituzten. Halako eufemismoz jositako dago testua; egileak ez du sekula aipatzen soldaduen ekintza ausartak ondorio latzik izan ote zuten. Azalean, *Enola Gay* hegazkin famatuaren marrazkia eta izenburu zalantzarri bat ageri dira: «Agiar, munduaren historiko gertakizunik garrantzitsuenak». Azpian, Composite 509 taldearen logotipoa, txamista bat beste esaldi baten

ginean: «Lehen bonbardaketa atomikoa». Hau zoriona. Eta oinarrian, justifikazio gisa, Harry Truman presidenteak 1945eko abuztuaren esandakoak: «Bonba atomikoa arriskutsuegia da, legerik gabeko mundu batean kontrolik gabe egotea. Jainkoan oitutz egiten diogu, bere bide eta asmoak betetzeko bonba erabiltzen erakutsi diezagun».

Jainkoa erreklutatuta eta gero, Estatu Batuetako Armada bonba atomikoa japoniarren aurka erabiltzeko prest zegoen. Nevada eta Utah arteko txoko galduta honetan, bonbardaketa talderik onena entrenatu zen, Paul Tibbets koronelaren agindupean. Tibbets jeneral izendatuko zuten Hiroshima eta gero, botoi bat sakatzeko erakutsi zuten trebezia sartuz.

1945eko abuztuaren 6an, goizeko 8:15ean, *Enola Gay* abioia Hiroshima gainean zebilen, bere tripetan *Little Boy* «mutil koskor» edo «izenarekin batatu zuten bonba atomikoa zeramala. Umore esplosiboa, soldaduen. Ferebee maiorrak «bonba kanpora!» oihukatu eta Tibbetsen botoi, sakatu zuten.

### Tibbetsen irribarreak

Wendover USA Memorial fundazioaren eskuko orriak, barnealdean, onddo atzekoaren argazkia dauka. Azpian, Paul Tibbets alaiak *Enola Gay* abioiaren leihoak burua ateratzen du. Eta argazki oin mamitsu bat: Paul Tibbets koronelak zorionak ematen dizkio bere taldeari, bonbardaketa historiko eta arrakastatsuen ostean. Tibbetsen irribarre egiten du, munduko sarraski eta hilketa handienaren marka lortu berri duenari dagokion bezala.

Argazkiaren bueltan txartel bat aurki dezake: «Bai, Wendover USA Memorial monumentuaren alde diru-laguntza eman nahi dut, 509 Composite taldearen misio gorenaren oroimena piztuta inantentzeko, gizartearen etorkizuna aldatu eta «Berriz Mundu Gertaren amaiera azkartu zuen ekintza gogoratzeko». Bost, hamar, hogeitau, berrogeita hamar dolar ala dolar gehiago bidal dizaket, Ber: geita hamar ala gehiago emanek gero, hiru bideo hauetako bat jasoko dut, aukeran: «Enola Gay abioiaren hegaldia» -Paul Tibbets jeneralaren hitzekin-, «Hondamena aurretik ikusia», edo «Tibbets jeneralaren gogoetak Hiroshimari buruz».

Zen bideo nahiago dudan erabaki bitartean, eskuko orriari irakurtzen dut abuztuaren 6an Hiroshimako eraikuntzen %60 errauts bihurtu galditu zela. Hiru egun geroago, beste bonba atomiko batek Nagasaki txikitu zuen -egun hartan, Composite taldeko mutilek Kokura hiria zuten helburu, baina lainoak misioa eragozti zuten eta eskursioa Nagasakiarantz bideratu zuten-. Eta abuztuak 11 zituela, Japoniak amore eman zuen.

«Composite 509 taldea historia egiteko aukeratu zuten... baina ederki egin zuten! Eufonia puntu horrekin amaitzen da testua».

Egia da Estatu Batuetako familiei odol asko aurrezki zela bonbaketak, egi da Austrialian eta beste herrialdeetan sekulako lasamota hartu zutela bonbak japoniarrek txakitu zituztenak japoniarrek Australiako partak deituta bidaltzen ibili zirenean, eta kangueroen herrialdea maldazeko prest zirenean, estatubatuarrek konkista eragozti zuten arte. Zalantzarik gabe, egi da gertatutako amaiera eman zutela Wendovergo mutilek. Baina badirudi esku onak zehetasunen bat abaztu egin duela... Hildakoak? Zen hildako?

## «Jainkoarren... Zer egin dugu?»

Alamogordon, New Mexikoko basamortuan, lurak dardar egin zuen 1945eko uztailaren 16an, goizeko bostetan. Lautadan 1.500 metroko suzko bola bat leheritu zen, nukleoan 55 milioi graduko tenperatura zutena, eta distira tsingarrak Gallup hiriarengana zuzen, handik 378 kilometroa, eguzki askoren indiarekin. Ke zuziko zutabe bat zertuzantz 12.000 metro igo eta onddo baten itxoran zabaldu zen. Ongi etorriak aro atomikoa.

Hilabete bako lehenago, infernua bitan jautsi zen japoniarren gamera:

1945eko abuztuaren 6an, Hiroshiman, 90.000 hildako izan ziren. Abuztuaren 9an, Nagasakin, 75.000. Kontagutzak dira hurrengo egunetan, hilabeteetan eta urteetan lal eta gaixotuta zirenak.

Bonbaren inguruan eztabanda moral korapilatuta piztu zen munduan, baina Harry Truman presidenteak ez zuen zalantzarik: «Bonba atomikoa beste arma bat da, zilegi da gerra bukatzeko erabiltzea». Lehen almiranteak, ordea, horren beharrik ez zegoela adierazi zuten: «Ondurako japoniarrek galduta ikusten zuten

bere burua, amore emateko zorian zuden». Gerra koraridun nagusienetakoa zen Stimsonen iritziz, ordea, beste anekdota guztiak beldurgarriagoak ziren: «Bonba atomikoko gerra gertatu du, lurak erretzeko bonbardaketak amaitu dira eta lurra eta amada handien arteko barrika utzela sahestu dugu». Hitzik alderazgarrienak, agian, *Enola Gay* abioian kopiatu zen Robert Lewis kapitaniarenak dira, bonba jaurti ondoren Hiroshima suntsitua ikusi zuenean: «Jainkoarren... Zer egin dugu?».


## ► GUARANIEN ETXEAN ◀



Kontinenteetako  
sakontasunera bidaiatu

Bisitatu ditugun lehenengo hiru kontinenteetan, bertako biztanle originalek historia tamalgarriak jasan dituzte gizarte europarra iritsi zenetik. Ipar Amerikan nabajoak eta paiuteak ezagutu genituen, nahiko egoera kaskarrean; antzera zeuden Australiako aborigenak (arabannak, luridjak, ananguak...). Hego Amerikan, aldiz, Patagoniako herriak (tehueltxeak, maputxeak, onak...) desagertu egin ziren XX. mendearen hasieran. Baina iparralderago, Iguazú urjauzien inguruko oihan subtropikalean, guaraniak topatu genituen. Guaraniak osasuntsu diraute, betiko bizimoduari eutsi diote eta gizarte zuriarekin nahiko ondo moldatu dira.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mixmail.com



PANGEA

HAUR GUARANIAK. Eskola berria eraiki nahi dute Irapuá komunitatean.



ihian sartian aurrera toaz, lagun guaraniaren atzetik. Izena galdetu diogunean, zantalza egin du: «Nire izena... gaztelerez Chamorro Elvijo da». «Gaztelerez?». «Bai... guaraniarez Bera Suno deitzen didate». Bera Suno edo Chamorro Elvijo gaitza bakeroak eta alkandora zuri marraleduna daramatza, eta guk baino pauso azkarragoa.

Lur gorriak Australiako erdialdea gogoratu digu, baina bestelako bizimodua topatu digu han. Oihanaren erdiko zelagune batean Irapuá komunitatea dago, Bera Sunoren herria. Argentinako Gobernua eta talde guaraniak ados jarri zirenetik, betiko bizimoduari eutsi nahi dioten guaraniak lursail batzuk eskura dituzte bertan bizitzeko, eta Gobernuaren laguntzak —hezuntza, osasuna...— jaso ditzakete nahi izanez gero. Guk ezagutu dugun Irapuá komunitatea duela hogeit urete sortu zuten, Misiones probintziaren oihan subtropikal honen erdian. Egun, hogeit familia guarani bizi dira Irapuá, eta Bera Sunok haien bizimodua erakutsi digu.

«Guaraniak komunitateak luraren jabe go tituluak izaten dituzte, baina gurvak ez du, ez dakit zergatik», esan digu. Titulurik eduki ala ez, eguneroko lanarekin erakusten dute luraren jabe direla. Zelagune zabal batean baratze anankomunak daude: «Beharrezkoa zaiguna landatu dugun txakloa (artoa), mandioka, batata, porotoak (babarrunak), mamak (kakahueteak)...». Egunerako etxolab hau hemenika baretatuta ageri dira, bakoitza bere baratze txikiarekin.

Basoan berriz sartu eta pixka bat aurrerago beste zelagune bat zapaldu digu. Erilian, etxola handiago bat ageri da, enborez egindako bi porteria eta lau haur futbollean: guaraniak eskola. «Komunitatea jaiotzen, zuhaitz azpitian biltzen ziren haurrak irakaslearekin», kontatu digu Bera Sunok. «Ondoren, egurra, txapa eta kartoiak etxola handi hau eraiki genuen, eta horixe da eskola. Datorren urtean, eskola sendoagoa egin nahi dute, eta horregatik daude bileran». Etxolaren inguruan, hogeit bat heldu eta beste hainbat haur daude bilduta, hizlariari adi. Eskola bertaren proiektuari buruz ari dira. Bakean utzi ditugu gure bisita jarraitzeko, baina haur batzuk poze oihuka hasi zaizkigu: «Tu-ris-tas, tu-ris-tas!». Gugana korrika hasi behar zutela iruditu zagu, baina geldu-geldu jarraitu dute. Nagusiak ondoan zeuzkatelako, seguruenen... Geroago, bidezidor batean, haurrak inguratu eta isilpean «monedita, caramelo» eskatu digute.

Bera Sunok azaldu diguzte, Puerto Iguazú herritik andre bat etortzen da eskolak guaraniarez eta gaztelerez ematera: «Haurrak eskolan ikasten dute gaztelerez; zaharrek guaraniarez besterik ez dakite».

**Tranpak, eliza, kartzela**  
Basoko bidexka batean berriz sartu eta Bera Sunok animaliak ehizatzen tranpa ugari erakutsi digu. Aripuka izenekoak usoa eta

mikak harrapatzen ditu. Badira tranpa harri-diagoak, adar eta liana luzeekin erakitzeko direnak, eta haterik basurdeak, k...jak eta oreinak ehizatzen omen dituzte. «Tranpak harrapatzen ez dituztean, arkuz eta geziz ehizatzen ditugu. Baina basurdea sakratua da guaraniarentzat. Jainkoak basurdeak asko maite ditu. Guretzat oso bereziak dira eta egosita besterik ezin ditugu jan, eta saltsarik gabe».

Guaraniak ederki ezagutzen dute basoa. Iwirapitá zuhaitzaren azalarekin infusioak egiten dituzte gripea eta bronkitisa sendatzeko, belar lasaigarriak biltzen dituzte haigeko minak, bizkarrezurrekoak eta hilekoa duten emakumezkoen minak leuntzeko, badute zuku berezi bat begietako gaitzak sendatzeko eta beste bat maitale galduek berreskuratzeko... «Maitasunarena sekretua da, bestela denok eskatuko zenukete eta», esan digu Bera Sunok. Capigua zuhaitzaren azaletik pasta gorriak bat ateratzen dute pintatzeko; egurrekin artisa-lanak egiten dituzte; liana mota bat errekin botata, urak zerbezaren gustua hartzen omen du eta arrinak tripez gora uzten ditu, eskuz jasotzeko moduan...

Lezioa ikasita, etxola huts batera eraman gaitu gure gidariak. Enbor zurituak lianekin lotu dituzte eraikina altxatzeko, eta tartek lur gorriarekin bete dituzte. Barrutik, huts-hutsa dago. «Eliza da», angitu digu Bera Sunok. «Ezkontza ospatzen denean, komunitate osoa biltzen da hemen. Ospatzeko, batata erre eta pindú landarearen kukulua eztiarekin jaten dugu. Gazte ezkontzen gara guaraniak; guretzat, 20 urte azpikoak dira gazteak. Ni berandutxo ezkontzen nintzen, 22 urterekin. Orain 37 urte dauzkat, zaharra gure ohiuren arabera, eta 15 urteko alaba dut: ea laster aitontzen nauen!». Elizan bataoak ere ospatzen dituzte: «Haurrak urtebete egiten duenean, apatzak Jainkoari galdetzen dio ea zein izen jarri behar zaiton. Orain agiriak eta paperak bete eta Puerto Iguazúko erroldara joan behar dugu, baina ez diegu gure ohiurei uko egiten».

Ondoren, festak ospatzen dituzte. Yabuti landarearen zuku eta kainaberaren ma edan, eta dantza egiten dute biribilak, zibolina, kitarra, txirula eta maraken musika jarraituz. «Zaharrek erakusten dizkigute kantak». Jaunarentzat dira abestiak, ez dugu mar... sunezko kantarik», kontatu digu Bera Sunok. Zaharren artean, bereziak kazikea da, guztien artean hautatzen duten buruzaga. Kazikeak, besteak beste, z... orrak ezartzen ditu norbaitek legeak hausten dituztean: «Guk ez dugu zuek zuriok bezala pentsatzen. Zuk bihotz onet 30 kilo gaileta ematen badizkidazu, nik den-dena banatuko dut nire ingurukoekin, ez dut familiarizatu bakarrik gordeko. Bestela, gure lege hautsiko nuke eta kazikeak kartzelara bidaliko ninduke».

Bera Sunok kartzela erakutsi digu: kainaberaz egindako etxola ahula, zandu gabekoa. Doministiku batek nahikoa ematen du ihes egiteko. «Antortu behar dizeut kartzela kanpotarrei erakusteko dala-kagula, gure legeak bete-arazten ditugula ikus dezazuten. Kazikeak kartzelara eraman gaitzake, baina mork ez dute legeak hausten. Gu aske bizi gara. Neure gogoz etortzen nintzen komunitate honetara eta denok elkarren mesedetan egiten dugun lan. Zuriok balogetan sartuta egoten zaute, presoak dituzte. Guk beste bizimodu bat dugu: antontzen garaia da orain, eta elkarrekin biltzen gara, bakoitzak ardurari bat sutan jarri eta bizketan... Horixe da gure irabazia».

► Maitale galduek berreskuratzeko zuku berezi bat dute guaraniak; eta beste bat begietako gaitzak sendatzeko

## ► EMIGRANTEEN ALBUMA, MUNDUA BEZAIN ZABALA ◀

### Pangea

Erredakzioa  
Publizitatea

Australiako Trebonne herrian (Queensland) pilotalekua zeukatela esan zigutenean, bertara desbideratu eta tabernan galdetu genuen ea inguruan euskaldunik bizi ote zen. Tabernara sartu aurretik gure furgonetari so zeudenak, haiek ziren Jaio familiakoak, Aulestitik (Bizkaia) Australiara 1950ean iritsitakoak.

ANDER IZAGIRRE  
pangea2000@mixmail.com



AZUKRE-KANABERA. Hori moztara joan zen Australiara euskaldun asko.

ekulako merienda atondu zituen Jaioarrek -Joxemari eta Felix anaiek, 80 eta 70 urte, eta haien emazteek, Pilar Astorkiak eta Mari Zelaiak- Gaztak, urdaiazpikoak, oilas-koak eta zerbezak tartea uzten zigitenean, beren emigrazioaren historia kontatu zituzten.

Bi anaiak batera iritsi ziren antipodetara, 1950ean: «48 egun igaro genituen itsasontzian, Suezko kanaletik barrena Australiaraino, eta guk geuk ordaindu genuen bidaia. Hurrengo urteetan, Australiako Gobernuaren kontura iristen ziren langileak Europatik».

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, kontinente hutsa jendeztatzeke erabakia hartu zuten australiarrek, eta horretarako doaneko bidaia, lanpostu ugari eta bizimodu berri baten aukera zabaldu zuten gerrak txikitutako Europar. Erraztasun hauetako esker euskaldun askok erantzun zion emigrazioaren deia. Jaioarren herria, Aulesti, txikia da, baina aulestiarren arrastoak mundu osora hedatu ziren garai hartan: Kalifornia, Alaska, Australia...

Diruaren hotsak erakarri zituen emi-

granteak, eta gutxi batzuei poltsikoak majo bete zitzaizkien, baina oso lanbide gogorrak topatu zituzten beste kontinenteetan. Felix Jaio 20 urterekin heldu zen Australiara, anaiarekin batera, eta orduko nekeak eta izerdiak bizirik ditu gogoan: «Soldaduska saihesteagatik etorri nintzen azukre-kanabera moztara... Hobe soldaduska egin izan banu!».

Hiru urtez ibili ziren Jaio anaiak azukre-kanabera moztzen, eta urteko beste sasoietan tabako hostoak biltzen zituzten tropikoko plantazioetan. Baina makinak langilea ordezkatu zuenean, aurrez tutako dirua bildu eta Euskal Herrira itzuli ziren euskaldun asko.

Joxemari eta Felixek, ordea, okindegi bat zabaldu zuten Trebonnen. «Herri lasaia zen, euskaldun talde handiarekin», esan zion Pilar Astorkiak, Joxemariaren emazteak. «Sydneyra iristen ziren euskal emigranteek Trebonnen frontoia bazela entzuten zuten eta hona etortzen ziren, zuak bezala. Urtero-urtero, San Inazio egunean festa handia ospatzen genuen Queenslandeko euskaldunok».

Euskaraz eta italiaraz Meriendako platerak pixkanaka garbitzen genituen bitartean, Australiako euskal emi-

granteen oroimenen albuma zabaldu zituzten. 80 urteko Joxemari, orotzapean arrapaladan, Gerra Zibilaren garaiko kontuak zekartzan gogora... «Eboko bataila, nazionalak eta gorriak, Gibraltar... «Shut up!», moztzen zuten Pilarrek, «utzi bakean, hainbeste gorri eta hainbeste Gibraltar...».

Marik kontatu zigun ez, ingelesa ikasteko behar handirik ez zuten izan: «Inguru honetan, lautik hiru italiarrak ziren. Jendea, langilea. Astebetean ikasi genuen italiarrez eta primeran ulertzen genuen elkar».

«Nik ingelesez txarto egiten dut», aitortu zigun Joxemari. «Azukre sailetan euskaraz egiten genuen berba, Trebonnen euskaldun asko bizi ginelako. Italiaraz apur bat ikasi, eta nahikoa». Atseden hartu eta antzinako beste oroimen batek begiak estutu zitzaion: «Gerran ere bazebiltzan italiar batzuk, bai, Mussolinik bidaltakoak... «Shut up!», Pilarrek berriz».

Felix eta Mariaren alaba bat, Miriam, italiar batekin ezkondu zen: «Guk italiaraz badakigu eta berak euskaraz ikasi zuen, noski», esan zigun Marik. «Orain bi ildoa dauzagu, ingelesez, italiaraz eta euskaraz dakitenak». Haur poliglotak bueltaka zebiltzan inguruan, baina lotsatu egin ziren ezzagunen aurrean, eta ez zituzten hitzik egin.

Italiarrez gain, Jaioarrek bizilagun bixtiagoak ere ezagutu zituzten: «Baltzak», Australiako aborigenak. Eta ez zituzten oso estimu handitan: «Ez dute sekula sarri lanik egin eta Gobernuaren lepotik bizi dituzte», esan zion Pilarrek, haserre. «Bizitza osoa lanean pasa dugunon diruak soldata ematen die Gobernuak. Exe ederrak ere ematen dizkiete, bizitza osoa lanean pasa dugunok sekula erosi ezin genituzkeenak, eta baltzek aukiak eta mahaiaik sutarako erabiltzen dituzte». Gaia leuntzen saiatu ginen: «Tira, beraien bizimoduak kendu zieten eta orangora ez daude ohituta», baina Pilarrek ez zuen zalantzarik: «Makiliak zibiltzatu beharko lituzkete. Baina horren ordez, eskatzen duten guztia ematen diete. Orain Australia osoa haiena da». Biak Australian egonik, elkarren antipodetan daude emigranteen mundua eta aborigenena. Bi patu latz, elkar ulertzen ez dutenak.

Baina aborigenen aipamenak beste «baltz» batzuen oroimena piztu dio Joxemari: «Baltzak... Bai, Gerra Zibilaren garaian moruak ere hantxe zebiltzan, fronteetan batetik bestera, gauzak salduz... «Anís, galeta, leche condensada!» Hori jendea, moruak, beti komertzioan! Eboko batailan hildakoak nonahi zeuden eta moruek ahoa irekitzen zieten urrezko haginak lapurtzeko... Hori jendea, moruak, beti komertzioan!».

Zein herritakoak garen galdetu zigun banan-banan: «Zeu donostiarra, e? Donostian badago ospitale militar bat... Fista bat sendatzeko ebakuntza egin zidaten han, gerra ostean. Hospital Militar General Mola. Han al dago oraindik?». Pilarrek begirada zorrotza bota zion, gerra kontuak eteteke adinakoa. Ospitale hura aspaldi itxi eta duela urte batzuk bota egin zituela kontatu nion Joxemari.

Joxemari, isilik, begiak estututa, buruarrekin haiez egin zuen astiro, General Mola ospitale militarren postale horietan oroimenen albumean saiklatuz bezala. Aulestiko haurtzaroa, Gerra Zibila, 48 eguneko itsas-zeharkaldia, Australiako azukre-kanabera, langile italiarrak, aborigenak... emigrante baten oroimenen albuma mundua bezain zabala da. Zabalegia, merienda baterako.

## Australiara, birikak sendatzera

Azukre-kanaberen inguruan hazi zen Townsville hirian, eta hantxe afaldu genuen Johnny Mendiola eta Kontxita Arrasateren etxean. Mendiola familia Australiako euskal emigrazioaren izen nagusia da: 1924an, ezerezetik hasita, sail handiak eskuratu, azukre industria sortu eta emigrante euskaldunei lanpostu ugari eskaini zitzaizkien.

Duela 80 urte, Teresa Mendiola Murrelagako (Bizkaia) baserri batean bizi zen. Baserriko emakume guztiak biriketako gaiztak jota hiltzen ziren, eta sendagileak urrutiko klima batean bizi beharko zuela esan zion Teresari: Austra-

lian, adibidez. Teresak ez zekien non arraio zegoen lurralde hori, baina senarra eta bi haurrak hartuta bara heldu zen 1924an, haurdun zegoela. Laugarren eta bosgarren urteak ere antipodetan jato ziren, haien artean Johnny, alafitza gonbidatu gintuena.

Johnny Bizkaia joan zen 31 urte zituela, emazte bila, Australian arrakasta lortu zuten, euskaldun askok egiten zuten bezala. Lekeition 18 urteko Kontxita ezagutu zuen: hantxe bertan ezkondu eta Australiara itzuli ziren biak.

Ordurako, Mendiolaarrek ehunka

bizkaitarri Australiarainoko bidaia ordaindu zieten, familiaren azukre-kanabera moztzen lan egin zuten. Lehenengo soldatekin bidaiaren dirua itzultzen zieten Mendiolaarrei, eta hortik aurrera bizitza berria eraikitzen zuten, Australiako tropikoko gune euskaldun sendoak sortuz. Euskaldunen presentzia indartsu hura alaldu eta sakabanatu egin da, baina oraindik euskara entzun daiteke antipodetan. Hori bai, herrimina betirako txertatuta daukate. Australian 39 urte daramatzan Kontxita Arrasatek baieztatzen duen bezala: «Nik Lekeitioko kantuak ere gogoan ditut».